



Iturria: *Maietzeko ill edo virgina chit santari konsagratutaco maietzeko illa*,
Gregorio Arrue. Pedro Gurrutxaga, 1888.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/ArrueGilla.htm>

**MAIETZEKO ILL
edo BIRJINA TXIT SANTARI
KONSAGRATUTAKO MAIETZEKO ILLA**

Gregorio Arrue

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

BARKAZIO EDO INDULJENZIAK

Birjiña txit Santari añ gogoko zaion, eta animari ainbeste on eta probetxu erakartzen diozkan debozio onetara kristauak mugierazitzeko Aita Santu Pio VIIak 1815garren urteko martxoaren 21an eman zituen letretan Maïetzeko ill onetan zenbait agur on, berarizko orazio eta birtutezko beste lanakiñ Maria guziz Santa onratzen duten kristau fededun guziaz illaren egunetako bakoitzeko irureun eguneko indulzia, eta ill beronetako egun batean konfesatu eta komulgatu eta Aita Santuaren intenzioaren erara, Eliza santagatik,etc. erregututa indulgenzi oso edo plenaria eman zuen, eta gero 1822ren urteko Garagarrilaren 18an Aita Santu beraren aginduz Indulgenzien Kongregazioak eman zituen letretan guziak purgatorioko animen alde eman litezkeanak dirala agertu zuen.

Aita Santuak bere ordeiz Madrilla bialdutako Don.Juan Brunelli Cardenal jaunak 100 eguneko indulgenzia eman zuen, Maïetzeko illean Mariari egiten zaizkan eliz-pestetara joaten diran, edo liburu onek dakaizkien eran Maïetzeko ejerzizio santuak nork bere etxean debozioaz egiten dituzten kristau guzientzat, eta indulgentzi au illaren egunetako bakoitzean irabazi liteke.

Toledoko Arzobispo Don.Juan Jose Bonel eta Orbe jaunak 80 eguneko indulgenzia eman zuen Jesusen Conpañiako Aita Ramon Garciak egiñ zuen, Mariaren ill edo Maïetzeko illa deritzan liburu onetan dauden orazioen batzuek egiten dituzten kristau fededun guzientzat.

Burgosko Arzobispo Fr. Cirilo Alameda jaunak 80 egunekoa eman zuen.

Puerto Vitoriako Obispo Don. Fr. JoseMaria -Benito jaunak 40 egunekoa.

Astorgako Obispo Don. Benito Forcelledo eta Tuero jaunak beste 40 egunekoa.

Salamankako Obispo Don. Salvador Sanz jaunak beste 40 egunekoa.



Astorgako eta Malagako Obispo izandako Don. Juan Nepomuceno
 Cascallana jaunak beste 40 egunekoa.

Osmako Obispo Don.Fr. Vicente Horcos jaunak beste 40 egunekoa.
 Archisko eta Malagako Obispo Don. Francisco Sales Crespo jaunak
 orobat eman zuen beste 40 egunekoa, guzi oiek len esan degun bezela ira-
 bazi litezkeanak.

BIZI BEDI MARIA

IKASBIDEA

Maria guziz Santa bere debotoak egunean irutan onratu oi duten bezela, au da, goizean eguerdian eta arratsaldean, eta beste egunetan baño biziroago bera onratzeko larunbata autu duten bezela, gauza justu eta bidezkoa iruditu da urtearen illetako bat ere beraren onrarako esleitzea.

Eta nola doai-eskeñi edo ofrendetan gauzik bikañena eraman bear baitan, onegatik aukeratu da beste ill guzien artean ederrena, au da, Maietzeko illa, bada ill onek bere lore zoragarri eta kanpoaren edertasunaz txit ederki gonbidatzen gaitu zeruko Erregiñ andiari birtutezko lanaz egindako koroa bat egitera.

Debozio au zenbait modutara egiñaz atsegiñago izan dediñ, eta Ama maiteari gogokoago izan dakion, egiten da onela.

Familiak errosarioa eta gañerako debozioak errezatu oi dituen leku artan, edota eliz edo oratorioen batean, ipiñiko da aurrean Mariaren imajiñ alik ederrena, bakoitzak aldeakean ongien apañduta, eta zenbait kandela eta lore, batez ere sasoi artakoak ipiñiaz. Txit on litzake etxeakoak komunkiro alkarganatzan diran leku artan debozio an egitea, leku hura santifikatzeko, eta an egiñ oi dira gauza guziak Birjiña guziz santaren begien aurrean egiten balirta bezela egiteko.

Maietzaren lenengo egunaren bezpera arratsaldean, esan dan aldaretxoan argiak piztu, eta leku artara etxeakoak batu, eta debozio andiaz errezatuko da Errosarioa, edo beintzat Leteia eta gañera egiñ litezke familiak usatu oi dituen beste debozioak. Baña orazioak geitzeagatik debozioa gutxitu bear ezta, orazio oek lasterka errezatuaz, edo ta familia nekatu eta aspertu eraziaz, batez ere aurrak edo persona arazotuak an badaude.

Orazio oek egiñ ondoan, ateratzen da suertean bakoitzak ill guzian egiñ bear duen lan on edo debozioa, lan au, espirituko lorea bezela, Mariari ofrendatzeko. Onetarako egiten dira zenbait txartel, ondoren ipiñiko ditugun, espirituko loreetako bat txartel bakoitzean ipiñiaz, eta bakoitzak ateratzen du suerteak ematen dion txartela, arrek dion birtutezko lana illaren egun guzietan egiteko. Gero, gisa onetan bertan artzen da bigarren listan ipiñiko ditugun loreetako bat, eta onek bigarren eguneko bakarrik serbituko du, eta bereala irakurtzen da Maietzaren lenengo



egunerako señalatu dan pensabide edo konsiderazioa, bere ejemplo agur on, eta eskariarekin.

Aurreneko arrats onez esan dana bera aditu bear da beste arrats guziaz, egun-oroko espirituko lorea suertean ateratzea utzita. Baña arrats guzi orietan al guziaz saiatu bear da, egun artarako señalatua dagokion birtutezko lana alik ongien egitera, nola ta ill guzikoak, meditazioak dakaizkien puntuak bakarrik beretzat balira bezela begiratuaz, eta señalatua dagokion eskaria egunean zenbait aldiz esanaz.

Onez gañera, aste oro, edo beintzat amabostean beñ konfesatu eta komulgatzea, txit on da, lan au berotasun andiaz egiñaz.

Etxetik irtetean Maria guziz Santaren eliz edo aldareren bat bisitatu gabe etxera bihurtuko ezta.

Illak diraun bitartean bakoitzaren esan-egiñak alakoak izan bear dira, nun guzia Mariarena dala, txit ezagungo dan, Ama maite onen begi guziz garbiak gogoan joko ez dituen eran lan guziak egiñaz.

Illaren azkenean eskeñtzen dio Mariari bakoitzak bere biotza, liburutxo onen azkenean arkitzen dan bezela.

MARIAREN ILL GUZIAN

EGIÑ LITEZKEAN ETA APIRILAREN AZKENEKO EGUNEAN SUERTEAN ATERATZEN DIRAN BIRTUTEZKO AMABI LAN EDO AKTO

1. Jeikitzeo garaian laster eta nagitasun gabe jeikitzea, nagitasunezko egite batekin egunari asiera eman eztakion; bereala moldesi andiaz jantzi, eta esku-liburuak dakaizkien eguneroko debozio edo erregu-eskariak egitea.

2. Egun guzietan Meza entzun eta Maria guziz Santaren Eliz-errezoto txikia errezatzea.

3. Egun oro ordu laurden batean liburu onen bat irakurtea, konturako, Mariaren Gloriak dakaizkiena edo onelako besteren bat, gañerako liburu jostagarriak irakurtetik gordez.

4. Gogoko zaion gauz edo gozaldi edo atsegiñ zaion zerbait egun oro uztea, artu litekeana izanarren, konturako, fruta edo goxo-gauzen bat, edo gauz ikusgarriren bat, musika, paseoa, etc.

5. Bearrean daudenai eskua luzatzea, bera zerbaiten bearrean geratiko bada ere, oiei limosna bat emanaz.

6. Egun guzietan lanari ekiterako belaunikatu eta Ave-Maria bat errezatuaz, Birjiña txit Santari bere laguntza eskatzea.

7. Etxetik irteterakoan eta etxean satzean, Maria guziz Santaren imajina adoratzera, Ave-Maria batekin berari agurra egiñaz.

8. Nagusiagoai eta buruagoai zuzen eta leial obeditzea, agintzen duten guzia laster eta gogoz egiñaz non eta Jainkoaren kontrakoa eztan.

9. Besteaz gaizki ez itzegitea, eta iñoren utsaldi, ariñik ere, ez esatea; andiak ez agertzera egiñ gaitean.

10. Ejemplo ona emanaz eta ongi itzegiñaz, lagun zabarren bati gauz onen bat eragitera egun oro saiatzera, konturako, elizen bat bisitatzera, Errosarioa errezatzera, Meza entzutea, sermoia aditzera, konfesatzera eta komulgatzera edo onelako beste gauz onetara.

11. Janean bere buruari uko egitea, konturako, gogokoen zaion jakiren bat, edo bere zatiren bat utziaz, orduaz kanpora ez edanaz etc.

12. Oartua dagoela pekatu ariñ edo benialik ez egitea.

MAIETZEKO ILLEAN

EGUN GUZIETAN SUERTEAN ATERATZEN DIRAN BIRTUTEZKO BESTE LANAK

1. Maria guziz santaren izen ezitsua esatean, edo liburuan topatzean burua makurtzea.

2. Maria txit santari bizitzan jaiera eta debozio andiena izan zion purgatorioko animaren alde Meza bar ateratzea edo ta entzutea.

3. Erlojuak jotzean Ave-Maria errezatzea.

4. Goizean jazten eta arratsean erazten diarduenean, batek jaierarik andiena dion, Mariaren elizen bateronz, edo bere imajinen bati begiratu, eta Ama maite oni bere bendizioa eskatzea.

5. Gorroto digula deritzagun, edo txarkeriren bat egiñ digun personari on edo mesederen bat egitea.

6. Sentiduak, batez ere begiena arret andiaz gordetzea.

7. Errosario santua errezatzea, onetarako zernai jostaket edo dibersio utziaz.

8. Birjiña txit santari andiena izan dion animagatik *Deprofundis* deritzan salmoa iru bider, edo beste orazioren batzuek esatea.

9. Debozio eta modesti andiaz Meza entzutea.



10. Mariaren amorez inñolako gure egiñkizunetan, batez ere geien utsegiñ oi degun aietan ez utsegitea.
11. Lagunai inñolako naigaberik ez ematea, eta berak ematen badigute, onez eramatea.
12. Orazioan eta gañerako egiñkizunetan zuzen eta zintzo ibiltzea.
13. Egunaren asieran gure esan-egitiñ guziak eta gorputzaren senti-
duak Birjiña txit Santari ofrendatzea.
14. Ordu laurden batez adimentuzko orazio edo orazio mentala idu-
kitzea.
15. Mezan gogozko komunio edo komunio espirituala egitea.
Komunio au egiteko bost gauza bear dira: 1 egiñ bear dira fedezko akto-
ak: 2 adoraziozkoak:3 amodiozko edo kontriziozko edo damuzkoak: 4
asmo edo proposituzkoak eta 5 Jauna artzeko zale eta desozkoak.
16. Birjiña guziz santari atsegiñ agiteko soñekoren bat utzi, eta onen
balioa bearrean daudenai ematea.
17. Egunak dirauñ bitartean kontriziozko aktoak egiñ, eta Santo
Kristo bati muñegitea.
18. Nagitasuna bota eta goizean goiz jeikitzea.
19. Gaaitzgabea bada ere, gogokoen zaion jostalde edo dibersioren
bat uztea.
20. Ordu laurden batez liburu onen bat irakurtea.
21. Arratsean oiera baño len konzienzia begiratu edo examiñatzea.
22. Bear edo premi estugabe orduaz kanpora ez jatea eta edatea.
23. Bakoitzak bere nai edo borondateari egunean irutan, iru akto
oiek Mariari ofrendatuaz.
24. Janaren zati edo parte bat pobreai uztea.
25. Presondegian daudenak edo gaizki datzanen bat ikustera joatea,
edo ta naigabe eta penetan dagoenen bat konsolatzea.
26. Pekatu mortalean daudenakgatik Birjiña guziz Santari biziro
erreguzea.
27. Birjiña txit Santaren amorez umiltasunezko lan agiriren bat egitea.
28. Konfessorearen konsejuaz gorputz nekagarri edo mortifikazioren
bat egitea.
29. Espirituko gauzetan nagitasun guzia botatzea.
30. Mariaren onran besoak zabaldu eta *Gloria Patri* zazpitan errezatzea.
31. Maria onratzen izan dan nagitasunaren barkazioa berari eskatzea.
Begira, irakurlea. Baldiñ lore oiek suertetan ateratzeko erarik ezpa-
dezu artzen da egunean bat beren errezkadan ipiñiak dauden eran. Baña
suertean ateratzen badira, on izango da ogeita amaiken artean debozio au

alkarrekin egiten duten personentzat egokien datozen aiek esleitzea,
bakoitzak bereak txarteltxoetan eskribituaz urrengo egunerako, eta gau
bakoitzean bat artuaz, goien esan dan bezela.

MAIETZEKO ILL EDERREKO

lore espiritualetan jarduteko modu txit egoki eta ongarrria

Gauza jakiña da, Mariari ill onetan egiten zaizkan agur on eta onren
atsegiñgarriena, goien señalatu diran espirituzko loreetan leialki eta zintzo
jardutea dala. Debozio au eriotzeko orduan pozkarriago izan dakigun,
eskribi litezke papertxo batean lora oriek, onela.

Nik (onelako edo alako) *pekatari guziz andiak nere eriotzeko orduan
Mariari aurrean ipintzeko bildu ditudan loreaz egiñdako arranbillote* (onelako
urtetako) *Maietzaren lenengo egunean asi eta egiña.*

Gero paper artan bertan eskribitzen dira illeko egunak modu onetan:

Lenengo eguna.

Bigarren eguna,

Irugarren eguna,

etc., etc., etc.,

Gauean ondo begiratzen da, ea suetean irten diran lore biak, au da,
ill guzikoan, eta egunorokoan, agindua egiñ dan; eta egiñ bada, ipiñiko da
baiezkoa egun beraren aldamenean, bi gurutze egiñaz, eta egiñ ezpada, be
zero, bigaramonean obeto kunplitzeko asmo edo propositu sendoaz, edo
bata egiñ eta bestea egiñ ezpada ipiñiko dira gurutze bat eta zero bat
onela:.

Lenengo eguna edo ta 0, 0 edo 0.

Egunetik egunera lore berriak batuaz arranbillote on bat arkitzen da
illaren azkenean. Garagarrillaren lenengo egunean ipiñi bear zaio lora
sorta au aurrean Birjiña guziz Santari bere Seme jaungoikozkoaren odo-
lez bustia dagoela kontu egiña, urrikaltasunezko Ama onek ordañsaritu-
ko duelako uste oso betean. Debozio au zintzo egiñ zuen gazte batek bere
biotzean barrunda zuena, eta Birjiña Santagandik ordañsaria artuko zue-
lako uste eta esperantza osoa ara nola aditzera eman zituen:

Nulla mihi, pia Virgo, dies sine floribus ibit.

Derta quibus capiti dem placitura tuo,

Quam lubet in mediis vitam traducere spinis,

Tantus honor natis si venit inde rosis?



*Al tu pro tali (sic das sperare) corona,
Serta feres servo non peritura tua.*

EUSKERAZ:

Oh! Donzella eztsua! egun oro jarriko det lore zuri-gorritzko koroa ederra zure bekoki jaungoikozkoaren gañean eta erregalo izango zaizkit arantzak.

Bada oietatik sortzen dan arrosa garbiak ainbeste iristen ditu Zuri onrazko koroa ipintzean. Zuk ordañez, ala uste det, ene Ama, koroatuko dezu egunen batean nere bekoki umilla.

Eta nork usteko eztu, Birjiña txit Santak bere eskuetan dauzkan gloriazko ainbeste koro ederretatik bat gordeko ezuela bere bizian leialtasunaz bere biotzaren zale eta deseoz guziak Maietzeko loreakiñ berari eskeñi diozkanari?

LOREEN ASIERAN

*Atozte, goazen guztiok
Laster Ama alabatzerara:
Maria onratzerara
Biotz alaiarekiñ.*

Donzella zoragarria,
Ona seme-alabak,
Belauniko emen danak
Zer nai dezun egiñ.

Atozte, goazen guztiok etc

Lorerik ederrenak
Nai dizkitzugu eman,
Zer naizun, bada esan
Guk dezagun jakiñ.

Atozte, goazen guztiok, etc.

Gure biotz ezoak
Zuretzat dituzu,

Eman bear diguzu
Apañdua zerekiñ.

Atozte, goazen guztiok, etc

Borondate onak gaitu
Gaur onera ekarri,
Zuri begira jarri
Begi zabalakiñ.

Atozte, goazen guztiok, etc

Zeñ pozik zeñ alaiak
Gatozen egun oro,
Izan gaitean gero
Zeruan zurekiñ!

Atozte, goazen guztiok, etc

Oraingo lore ederrak
Balira betiko,
Edo bizi guziko
Onlako usaiarekiñ.

Atozte goazen guztiok, etc.

Zenbat aldiz giñake
Etorriko onera,
Usai au goatzera
Zu ikustearakiñ!

Atozte goazen guztiok, etc.

Guk beintzak nai genduke,
Gure Ama maitea,
Zureak izatea
Biotz osoarekiñ.



Atozte goazen guztiok, etc.

Artu gaitzazu, bada,
Zure mantupean,
Ala izan gaitean
Beti alkarrekin. Amen

Atozte goazen guztiok, etc.

LENENGO EGUNA

**Maietzeko ill onetako debozioa
ongi egiteko dauden arrazoi eta bideak**

Kristau laztana, zeran zerala, atoz eta arretaz begira zazu, zeñ bearra zatun salbatzeko Mariaren laguntza. Garbi eta gaizgabea zera? Baña zure garbitasuna galbide eta perill andian dago. Zu baño garbiago ziran zenbat pekatuaren osinean erori eta sekulako galdu dira! Pekatari damutua zera? Baña zure iraupena segurua ezta. Oitura galgarri aiek, pekatuak bide eta labanarri aiek, lengo lagun gaizto aiek, guzi ori zuk ondo dakizu. Pekataria zera? Mariaren esku eta laguntzaren zeñ bear zeran Jaungoikoagana biurtzeko! Ori egiten beñ eta askotan asi zera, eta beñere zerearekin irten etzera. Mariagatik izan ezpalitz zer izango zan zuzaz?

Guziaz ere, ill onetako debozioaren bidez iritxi zintzake bere laguntza eta zere salbazioa.

Nola dateke Ama añ biguñ eta gozatsu batek berari jaiera eta debozio dion seme edo alaba enzungabe uztea? Errosario bategatik, barau bategatik, grazia guziz señalatu eta andiak egin dizte pekatari andiai, zer egingo ezta, bada, zugatik, ill osoa bere serbitzura ematen dezun orregatik!

Baña ai zure galdubear tristea, baldiñ deretx eder au galtzen badadezu! Ai baldiñ debozio eder au egiten asi, eta egun batzuen buruan uzten badezu! Nork daki au izango bazatzu ere ontzeko Jaungoikoak ematen dizun azkeneko deretxa? Nork daki debozio onetan badago ere zuk azkeneari onean irautea? Eta, azkenik, nork daki au izango bada ere zure biziaren azkeneko illa? Añ erraz eta aisa iritxi zentzake esku eta anparo añ indartsua, eta au egingabez imurtzi zeñ miñak eriotzeko orduan! Au ondo begiratu eta ausmartu, eta debozio au ongi egiteko buruzpidea ar zazu.

EJENPLOA

Gutxiagatik eraman etzuen Mariaren kongregazioko batek bere desleialkeriaren zigorrada. Maiz joan oi zan Mariaren kofradietako batera, baña laster aspertu, eta guzia bertan beera uztera etorri zan. Ez erreguak eta ez gaztiguak ezer serbitu zioten; beste munduko anima baten gaztiguak bear izan zuen. Gau batez, lo zetzala, kongregazioan ezagutu zuen Aita bat begien aurrean jarri, eta onek txit zorrotz itzegiñ zion, esanaz: *Gazte*



alper nagia, kongregazioaren kontu añ andia daukan Birjiña guziñ Santari zure berri eman zaió; bide zuzenean sartzen ezpazera jakiñaren gañean egon zaitte, kas-tigu izugarri baten begira zaudela. Esnatu zan, baña guzi ura amets bat bezela artu, eta Aita ura bera beste gau batean agertu zitzaion, garratzkiago itzegiñaz; baña guzi onek ezer gutxi edo batere serbitu zuen, alabaña ametsak ezertan artu bear etzirala, esanaz, zabaltasun guzian bizi nai zuen. Person ura beregan sartzeko, beste ixill mandatu eta dei gogorrakoak bear izan ziran, bada kongregazioa oso uzteaz gañera, Jaungoikoaren bildurra ere galdu zitzaion. Esan dan Aita irugarrenean ametsetan ikusi, eta onek bere esker beltz itsusia arpegian emateaz gañera, eskutik artu, eta elizara eraman zuela, iruditu zitzaion, non esan zion: *Zer egiten dezu zük, ondo konfesatzen etzeran orrek? Oraindaño ixillik gorde dezu onelako pekatu,* eta pekatua izendatu zion. Gaztea laborriak artuta esnatu, eta igaro zitzaiona egia garbia zala, ikusita, bereala kongregaziora joan, damu bizi eragilleaz konfesatu, eta gero Jaunaren serbitzuan iraun zuen, eta Jaunak begi urrikaltsuaz begiratu zion.

MARIAREN ONRAN

Mariaren imajiña bularrean erabilli, eta noizean beñ amodio andiaz bera estutuaz, esatea: Zuretzat, ene Ama, nere biotz guzia.

ESKARIA

Nere biotzak eta nere ezpañak alaba zaitzate, Donzella guziz sagradua.

BIGARREN EGUNA

Betiko Salbazioaren gañean

Nere burua salbatzeko nago munduan; aditzen dezu anima kristaua? Jostatzeko, apañtzeko, deskansatzeko, eta agitz gutxiago pekatu egiteko, etzaude munduan; zere burua salbatzeko bakarrik zaude mundu onetan. Zer baliok lizuke mundu guzia irabazteak, baldiñ geroenean galtzen badezu anima? Errege, Enperadore, filosofo eta jakintsu andiak, zer serbitzen dizute orañ zuen esku eta aginte eta jakite andiak, baldiñ zeron anima salbatzen jakiñ ezpadezute?

Baña salbazioaren joan-etorri au segurua ezta. Animaren salbazioa urreaz irabazten ezta, norik bere buruari uko egiñaz, irabazten da, pekatu mortal bakar bategatik galtzen dan bezela. Gañera, bat salbatzeko noiz-bait gaitzgabe eta santu izatea asko ezta, gauza bearra da eriotzeraño onean edo Jaungoikoaren garazian irautea. Zer segurantzaz daukat, bada, nik, nere anima salbatzeko? Igaroko nere bizia pekatuzko kate luze bat izan da; orañgo nere bizia leize ondogabe bat da, etorkizun zadan bizia zer izango ote da?

Azkenik, joan-etorri au beñ galdu ezker, erremediogabea da. Auzi bat galtzen badet, osasuna galtzen bazat, erremedioren bat arki nezake; baña bakarrik beñ galtzen badet anima, arreakero sekulen sekuletan erremediorik eztago. Esku bat ebakitzen badidate, geratzen zat bestea; oñ bat ebakitzen badidate, geratzen zat bestea; begi bat ateratzen badidate, geratzen zat bestea; baña anima bat bakarra da, edo bakarrik salbatua edota bakarrik kondenatua. Eta añ gutxi gogoratzen zat nere salbazioa, edo obeto esateko, salbatuko naizelako segurantzaz osoan nago? Sosegu osoan bizi naiz, eta orañ hiltzen banitz salbatuko nitzakean eztakit!

EJENPLOA

Maria guziz Santak bere debotoai animako osasuna iristea, arritzekoa ezta; baña Ama maite au bururatzen ere etzaunarekiñ au egitea, onek argi eta garbi agertzen du bere errai biguñen onginai eta amodioa. Egi au txit ondo progatu zuen Esquilio zeritzan gaztetxoak. Gazte au oraindik bere amabi urteetara iritxi baño len gaizki bizi zan; baña nola Jaungoikoak beretzat nai baizuen, gaitz andi bat bialdu zion, ainbeste-



rañokoa, nun, guziak etsizat utzi, eta puntu batetik bestera erioaren begira zegoen, eta orra non txar aldi batean kordegabetu, eta an zeudenak hill zala uste zutenean, su eta garrez betetako leku izugarri batean bere burua ikusi, eta andik iges zijoala, zeruko Santu asko inguruan zituela, Aingeruen Erregiña zegoen sala eder batera iritxi zan. Esquilo bereala beraren oñetan auzpeztu zan; baña Ama maiteak bekolko illunaz beregandik bota zuen, ostera sugar oietara eramane zezatela, aginduaz; ditxagabea berriz Santu aiei deika asi zan, eta Ama errukitsuak oiei esan zien: *Gazte hura gaizto bigurri bat zala, eta sekulan Ave Maria bat arke erreztatu etzizola.* Santuak ostera gazteagatik erregutu zioten, onduko zala esanaz. Bizkitartean Esquilok, laborriak artuta, ondu, eta oso deboziora eman, eta bere bizi guzian Ama maite au serbituko zuela, agindu zuen. Orduan Birjiña guzeiz Santak aurrena zorrotz itzegiñ. lengo utsegiñak penitenziaz garbitu, eta agindu ziona bete edo kunplitzera animatu zuen, sugarretara botatzeko agindea onekiñ deseigiñaz. Onetan Esquilio bere onera etorri, eta bere gaitzetik oso sendatu, eta San Bernardoren erlijioan sartu eta batez ere Mariaren serbitzura eman zan; eta gero ainbesteraño birtutean aurreratu zan, nun santu izateraño igo zan, eta orañ Ama amoriotsu onen glioriak kantatzen zeruan dago.

MARIAREN ONRAN

Maria guziz santaren imajiñen bati agur onak egiñ, eta amimaren salbazioa iritxi degiola bizi erregutzea.

ESKARIA

Salba nazazu, Ama laztana, salba nazazu.

IRUGARREN EGUNA

Gure animaren anditasun eta garaitasunaren gañean pensatzeko bidea

Nere anima, begira jatorrizko zure nobleziaren aldetik zeñ preziatua zeran. Noren eskuetatik irten zera? Jaungoikoarenetatik. Noren antz-irudira egiña zera? Jaungoikoarenera. Au gauzak diran baño geiago esate bat ezta, itzegiteko modu bat ezta, fedeko egia bat da. Eta zuk zere noblezia askoan idukitzetik urruti galtzen dezu pekatuaren bidez antz-irudi añ ederra, demoniuo izugarri baten artzeko!

Begira gañera zeñ preziotsua zeran zu erostea Jaungoikoaren Semeari añ garesti kosta zitzaion aldetik. Anima nerea, galdua zeunden, eta sekula guzirako galdua. Nork demonioaren eskupetik atera zinduen? Zeruko zure Aitak. Eta zu andik ateratzeko zer eman zuen? Urrea, zillarra, edo arri preziotsuak? Ah, asko geiago, paregabe geiago. Bere odola eta bizia eman zituen. Eta zuk, ezeri eztagokiola, burutazio txar edo bereala aitzen dan atsegiñ-kontentu lizun bategatik alperrik galtzen dezu ainbeste kostatzen dan bizitza bat, bizitza añ preziotsu bat!

Begira, azkenik, zeñ preziotsua zeran zure azken fiñaren anditasun eta doatsutasunaren aldetik; alabaña mundu guziko erregeen Erregearen alaba, bere jarlekuaren ondoan esertzeko, eta Berarekiñ batera erreinatzeke egiña zera. Erregeren alaba, egunen batean koroatua izango dana, nolako kontu eta arretaz azitzen dan bere aitaren jauregian! Eta zu, nere anima, zeruaren jabegaia, nun zaude, nun bizi zera? Oh ene Jaungoikoa! Lokatzean, abere beltza bezela. Eta lotsa etzera? Zerurako deretx eta eskabidea Jaungoikoak kendu degizun bildur etzera?

EJENPLOA

Birjiña txit santak eziñ eraman du berari agindua dagokion gauza batek pekatuako serbitzea. Nola begi onez ikusi lezake bere Seme jaungoikoaren odolaz erositako anima bat pekatuz loitua? Sevillako kofradia bateko sekretario batek kongregazioko lagun guzien izenak, kongregazioan sartzen ziranen agiriak, eta bere beargaioko gauza guziak eskribitzeko sedazko eta zillarrezko luma txit eder eta preziatu bat egiñ zuen: Kongregazio bereko gazte bat luma hura ikusi, eta aren zale eta egarri



bizian sartu zan, eta txularte batean eskuak egotzi ziozkan; baña lan hura txit garesti irten zitzaion; ez ainbeste egiñ zuen lapurretiagatik, nola ta luma arrez egiñ zituen lanakgatik. Gazte onek emakume nabarmen batekiñ tratabidea zedukan, eta oni eskribitzeko ustean, luma hura artu zuen; eskribitzen asi ez al zan, nork ematen zion ikusigabe belarrondoko portitz bat artu zuen; baña adituaz itz oek: *Eta oraindik badezu, gaiztotzarra, nere serbitzurako artua dagoen gauza bat loitutzeko ausardia?* Batetango kolpe, eta itz-ots bildurgarri aiekiñ onbear tristea kordegabe erori zan; ezkutuko indar batek eskutik luma kendu zion, eta bere onera zanean, bere utsegi-tea ezagutu, umiltasun andiaz barkazioa eskatu, eta ontzeko asmo sendo eragillea egiñ zuen. Guziaz ere señaleara kendu etzitzaion, alabaña egun luzeetan matralla ubeldua erabilli zuen, nola ta beatzen markak, lurreko eskuaz egiña etzala, ezagu zezan; eta berak gertakari hura ixillik gorde nai bazezakean ere, bere arpegiak argi eta garbi agertzen zion. Obeto izango zitzaiokean luma arrez Mariaren izena eskribitzea. Santu askok egiñ oi zuten bezela.

MARIAREN ONRAN

Konzienziako bazterrak ongi begiratu, eta ikusi, eta baldiñ pekatu larri edo mortalen bat egiñ dezula, arkitzen badezu, bereala kongesatzea, eta ezperen lengo bizi guzikoak gorrotatzea.

ESKARIA

Gorputzaren salbazioaren gañean.

LAUGARREN EGUNA

Gorputzaren salbazioaren gañean

Zergatik pekatu egiten dezu? Zere aragiari atsegiñ kontentua emateagatik. Ah zoroa! Etzera konturatzen onela gorrotatzen, galtzen eta ondatzen dezula aragi au? Baldiñ anima galtzen badezu bear bada salbatuko dezu gorputza? Ez alafede. Edo biak doatsu, edo biak sekula guziorako galduak. Buruko miñ batek, oi gogor batek, bazkari urri eta txar batek, nekezko egoera batek goibeltzen eta illuntzen zaitu: zer izango da, bada, infernuan?

Nola saiatzen zeran orañ zure gorputz ustelkor orrek munduan paper andia egiñ dezan! Hilko zera, eta andik laxter gorputz ori ezur-uts izango da, burua iñolako narrugabe, begigabe, ezpañgabe, mingañgabe, buru-egur triste bat izango da: esku-oñak orzituak edo aragiaren kutsugabe, eta gañerako guzia usteltasun eta ar likitxen pilla nazkagarri bat. Baña gañera, baldiñ kondenatzen bazera, ikatza baño beltzago egongo da zure arpegia ifernuan, sugeen gisakoak izango dira zure illeak, ziraun baten gisa dardaraz ibilliko da zure mingaña; bi brasa irazekiren antzekoak izango dira zure begiak; itz batean, demonio baten antz osoko izatera etorriko zera. Zer bildurgarria!

Bada Zure aragiak pekatu mugierazi nai zaituenean, esan zaiozu: Ah! aragi lotsagabe gaiztoa, zure gutizira jartzen banaiz, sekula guzietako su eta garretan kiskaltzen egongo zera! On izango da atsegiñ-kontentu uxi au gozatzea, gero ainbeste tormentu eramateko? Zere gorputza maite izan nai badezu, ordu onean izazu; baña saia zaite on egiazko bat, edertasun egiazko bat, betiko on eta betiko edertasun bat berari zeruan ematera.

EJENPLOA

Maria bere debotoen animen ezezik gorputzen ere anparatzalle eta laguntzalle segurua da. Santo Domingoren erlijioako Ageda Gurutzekoak au ondo progatu zuen. Egun batez, aurtxo zala, bere etxearen goieneko leku batean bere kidiko batekiñ jostatzen zebillela, lagun onek bultza, eta goitik bea jo zuen. Erorteko puntuan Agedak *Maria lagun zudazu*, esan eta Ama maiteak, ara etorri, eta bere esku guziz sagraduaz iñolako miñik artu-gabe lurrean ipiñi zuen. Amoriozko Ama maiteak Agedari agertu



zion ongina eta amorioa emen akabatu etziran: aurtxo Agedak, errukiak mugierazita, txit goien esekia zegoen, eztakit zer gauza, iritxi nai zukean. Mariaren seme-alaben etsai amorratu demonioak, ara igotzeko ipiñi zuen eskalleraren tontoretik bota, eta eskuan zuen kanibetak eskuko beatz bat eramane zion; orduan artu zuen miñagatik, eta etxeokak zetozeneko zeukan bildurragatik Mariari erreguka asi zitzaion, eta Ama gozatsuak, bera-ri agertu, beaza len bezela ipiñi, eta esan zion: *Ene alaba, demonioari bildurrik ez izan: zuri gaitz egiñ nai legizukeanean, nere Semeari dei zaitozu eta Berak libratuko zaitu.* Badateke Amodio ederraren Ama onek bere seme-albai dien ongina eta amorioa baño biguñagorik?

MARIAREN ONRAN

Gorputzari eman dizkagun atsegiñ kontentu eragabean penitentzian zerbait nekagarri edo penitenzi egitea.

ESKARIA

Birjiña txit errukitsua, garbi itzazu nere gorputz-animak.

BOSGARREN EGUNA

Denboraren gañean pensatzeko gaia

Igarotzen da denbora, eta denborarekiñ ni ere igaroaz noa. Amabost, ogei, ogeita amar, berrogei, urte joan dira, eta oriek berriz etorriko eztira. Eta beste zenbat geratzen zaizkit? Ori nik eztakit; baña gutxi dirala, badakit. Laburra da denbora; Neronek esan oi det, izpirik sentitugabe egan dijoala denbora. Baña eternidadearen parean ipiñita guziz laburra ezezik, utsa bezela da denbora.

Denbora laburra eta denbora preziatua, zerren denbora txit labur onetan betiko zorion eta ditxa irabazi genzakean. Ondo emandako puntu edo une batek, gloriaren malla bat geiago geitu legiket. Nere animaren kontuak zuzentzen ondo emandako ordu-erdi batek etsaiaren lazoetatik atera, eta Jaungoikoaren eskuetan ipiñi lezake nere anima Oraziara, Meza entzutera, liburu on bat irakurtera, eman nezakean denbora apur batek pekatutik urrutira nezake, eta salbazioa segurutu lizaket.

Denbora laburra, eta denbora bildurgarria. Puntu eta instante guzietan pedatu egiñ nezake, hill niteke eta kondena niteke. Nere galdubear tristea, alabaña denbora añ laburrean santu egiñ nitekean, eta oraindak pekatari andi bat naiz! Denbora guzia zorakerietan, aurkerietan, jostaketan eta pekatuan galdu det! zer frutu eta irabazi atera det?

Aurrerontzean denbora obeto emateko buruzpidea ziñez eta benaz artzen ezipadet, etorriko da eguna, noiz eta Jaungoikoari ordu bete eskatuko diodan, len galdutako denbora erremediatzeko, eta ordu au sekulan iritxiko ezta.

EJENPLOA

Oh Mariaren onran emandako denbora apur batek zenbat balio duen! Bi eskolau gazte, eskolarik etzuten egun batean Italiako Poderitzan ibai andira joan, eta txalupatxo batean sartu ziran. Beretako batek beste-ri esan zion: orañ beste lanik eztaukagun eta naierara jostatu geran ezke-ro, gure kongregazioko erreglak agintzen digun bezela, Birjiña Santaren Eliz-errezoa erreza zagan. Erreglak orretara beartzen ez gaitu, eranzun zion lagunak; gaur eskolatik libre geran ezkerro, nai ainbat jostatu nai det, errezzatzeko gogorik eztaukat; baña guzi orrez ere bestea bakarrik erreza-



tzen asi zan. Onetan zeudela, eguraldia illundu, eta ujol andi bat beñgoan etorri zan; gazte aiek txalupa erabiltzen trebeak ez izanik, eta ujolaren indar biziari eziñ eutsirik, eziñ lurrera baztertu al izan ziran, eta txalupa-txoa irauli eta biak urtan arkitu ziran; biak Birjiña santari deika asi zitzaizkan, eta Ama maitea bereala etorri zitzaien; eta errezatzen ziarduna eskutik artu, eta estura larri artatik atera zuen. Bestea ere ori bera egiñgo ziolakoan zegoen; baña Ama laztanak beraganontz itzuli, eta esan zion: *Zu etzenden ni onratzera beartua, ezta ni ere zuri laguntzera*. Seguruan zegoen lagunak guzi au ikusten eta aditzen zuen, bere ongillari esker gozoak aspertugabe emanen, mesede añ señalatuagatik bere bizi guzian Maria onratuaz, eta onetara beartua zegoela, ezagutuaz: zeruko Erregiñak daukan esku eta ontasun andia txit argi eta garbi agertzen duen gertakaria, nola ta debozioaren ordañsaria.

MARIAREN ONRAN

Birjiña txit Santaren Eliz-errezoa, edo bere Kofradietan usatzen diran orazioetako zenbait errezatzea.

ESKARIA

Ama maitea, iritxi zaguzu bizitza garbi eta gaitzgabea, eta bide zuzen eta segurua.

SEIGARREN EGUNA

Pekatuaren gañean pensabidea

Begira ondo, oraingotz pekatu larri edo mortalen bat egiñ ote dezun. Baldiñ zuretzat zori gaiztoan, egiñ badezu, zer egiñ dezun badakizu? Zere Jaun eta Jaungoikoaren, Egille, Erredimitzalle eta Ongillearen gloria eze-reztu eta utsera biurtzera egiñal guziaz saiatzea, ber on eta mesedeai esker beltz itsusiaz eranzutea; lotsagabekeri andiaz berari obediencia galtzea, bere kontra jeikitzea, grazia galtzea, Bera Aita dezula, ukatzea, egiñ dituzun lan edo obra on guziak galtzea, zerurako deretx eta artupide guzietatik soildua geratzea, eta, azkenik, zerutik bota eta infernua ondatua izatea. Ezbear eta galera andiagorik badateke?

Eta baldiñ oraindik pekatu mortalean badirauzu, ai zure galdubear triste! Jaungoikoa etsai dezu, eta demonioaren eskupeko zera. Nola dezu farregiteko, jostatzeko, seguran osoaz lo egiteko bekokia? Eztezu ikusten, baldiñ Jaungoikoa zuri sufritzez aspertzen bada puntu batean hill eta kondena zaitzakeala? pekatu bakar bategatik millaka aingeru infernua ondatu ziran, eta, zu ainbeste egiñ dituzularik, segurutzat zaude? Oh itsumen negargarria!

Baña pekatuan ezpazaude ere, erorteko arrisku eta perrill andian gaude guziok. Tentazio gogor batek, edo ustegabeko beste perillen batek gutxien uste degunean amill gaitzake. Aingeruak zeruan pekatu egiñ zuen, Adanek paradisoan eta Judasek Jesukristoren eskolan; bada zu ere, naiz aingeru bat, naiz garbi eta gaitz gabe bat, naiz apostolu bat izan zaiteala, puntu batean gera zindezke demonioaren uztarpe gogorrean. Ikara zaitte, bada, peligro añ guzizkoaz.

EJENPLOA

Pekatu egitetik libratu nai duena, Mariaren deboto biguñ eta egiazko izan bedi. Oi ez bezelako eta arrigarria da Ama laztanak Mesinako gazte bat pekatutik libratu zuen modua. (*Anviem, t. 2 pag. 60*) Gazte onek, Kongregazioan sartua zegoela, Ama laztana animako garbitasu txitezkoaz onratzen zuen; baña suertaldi batean txit gutxik egiñ zuen, garbitasun au ez galtzea. Emakume nabarben bat gazte hura pekatua beartzera demonioak mugierazi, eta egun batez mutill gazte onekiñ bakarrean topo



egiñ, eta bere asmo biurria betetzeko eman zion eraso-aldia portitza izan zan. Estura larri onetan mutill gazteak Birjiña guziz garbiagana bere biotza jaso, eta bere esku eta laguntza samurtasunik andienaz eskatu zion, itz banaka oiez: *Ene Ama maitea, arren lagun zadaizu; eta suertaldi onetan ez nazu utzi*. Bere erreguaren indar eragilea bereala progaru zuen, zerren emakume hura oso itsustua, eta mostru izugarri, edo infernutik irtendako demonio baten gisakoa, arpegi bildurgarriarekin eta illen lekuan suge izugarriarekin beñgoan begietaratu zitzaion, alatan non berari begiratzeak ezurretaraño dardarara ematen zion. Bereala tentazioa kea bezela desegiten barrundatu, emakume gaizto ari bere lotsagabekeria arpegi eman, eta bere edadekoak errukarri galdu oi diran lekuan biktori andiarekin irten zan.

MARIAREN ONRAN

Tentazioren bat barrunda danean, gauza txit ona da errosarioari muñegitea, zerren, bere errosario santuari muñegiten zaion garaian Maria gogoan jo dezakean zerbait egitea, eziñ datekeana dan.

ESKARIA

Libra nazazu, Jauna, pekatu mortaletik.

ZAZPIGARREN EGUNA

Pekatuaren gaitz ondore edo penen gañean

Txarkeria egiñ zaion gizon batek txarkeri hura ordaiñdu nai due-nean, askotan eziñ oi du; baña Jaungoikoarekin onela ezta: Berak nai badu, kastiga lezake pekatua, eta ordañ litzake bere etsaiak. Kendu lizaizkigu osasuna, ondasunak, gure gurasoak edo bizia. Berak nai badu, puntu batean egiñ lezake guzi au. Pekatu mortalean dagoena kastiga lezake espirituko eriotzaz. Berak onela egiñ nai badu, nork galerazi lizaioke? Eta zuk, patu gaiztoko orrek, badakizu zer dan puntu onen gañean Jaungoikoaren borondatea? Ez alafede. Bada ori ezpadakizu, nola dezu pekatu egiteko eta sosegu osoaz pekatuan lo egiteko ausardia?

Orañ ondo; jakiñ bear dezu Jaungoikoak kastigatu nai zaituela. Pekatu egiñ badezu, seguru egon zaite Jaungoikoak ordaiñduko zaituelakoan. Edo penitentzia edo infernua. Adan eta Evak barkazioa iritxi zuten, eta salbatu ziran; baña beren pekatuaren denborazko pena edo gaitz-ondoreak oraindik badirau. Zuk diozu: pekatu bat gora-bera, gutxi dijoa. Zoro andia! kastigu bat geiago edo gutxiago izatean ezer ez dijoakizu?

Mundu onetan ere Jaungoikoak kastigatzen du pekatua. Gaitzaldiak, familien ondamenti eta ez bearrak, leku on galdu hura, esperanza eder utseman aiek, jaso zizuten gezurrezko asmazioa, barrunda dituzun tentazio añ portitz eta gogaitkarri oriek, zer besterik dira ezpada pekatuaren zigorrada edo kastiguak, zuk, itsu zaudelako, au ezagutzen ezpadezu ere? Eta baldiñ suertez zure zale eta deseo eragabeak asetzea iñoiz edo berriz koitutzen badezu, eta zure joan-etorriak naierara badijoazkitzu, jakiñaren gañean egon zaite, au kastigu andiago eta bildurgarriagoa dala, zeren orrek zere biziera gaiztoan irauteko eta pekatuen gañean pekatuak egiteko, eta betiko surtarako egurra montoitzeko bidetzat serbitzen dizun. Edota, bear bada, konzienziaren imurtzirik sentitzen eztezu eta Jaungoiko aserretuaren bildur etzera? Ai zure errukarria! bada bere bekokiaren gañean neketan bezela dago bere gogortasun buzia. Mariaren esku eta balimentuaren bear munduan iñor bada, ori zu zera.



EJENPLOA

Jaungoikoak oraindano kastigatu ezpazaitu, ori Mariaren bitarteko-tzagatik izan dala, uste bear dezu; zure patu gaiztokoa, baldin berealatic ontzen ezpazera! Birjiña txit santari zenbait debozio egiten baziozkan ere galgarri edo oitura gaiztoen eingirañ begietaraño sartua zegoen zaldun gazte noble bat Toledoko probinzian bizi zan. Jaungoikoa onen gaiztake-riak geiago eziñ eramanik, oriek kastigatzeko, eta beñoan mundutik ateratzeko, erioari bere eskubidea emateko zorian zegoen, bizitza santua zeraman persona batek ikusi zuen bezela; baña persona onek berak ikusi zuen ere, nola Birjiña txit sagraduak bere errekuak bitartean ipiñi, eta bere Seme jaungoikozkoak eranzun zion: *Zure amorez ematen diot ogeita amar egu-neko epea, penitenzia egiteko; baña baldin au egiñgabe igarotzen bazaitzka oriek, erremediogabe kumplituko da sentenzia. (Aurium. T. 2. pag. 14)* Persona birtute-koi onek, ongina eta karidadeak mugituta, agertu zion Sazerdote bati ikuskari au, onek zalduna kontuan ipiñi zezan: bereala ipiñi zuen, eta bere arrazoi on eta indartsuen bidez zaldun hura konfesatzea iritxi, eta biziera on berri bat egiteko asmoan utzi zuen; baña alperrik, zerren andik laster ostera pekatuan erori zan. Egia da, berriz oitura galdua utziko zuela, agin-duaz; baña au egitetik urruti, bere bizioen zingiran len baño barruago sartu zan. Arrezkero konfessoreagandik igeska zebillen, eta egun batez konfessoreak gazte au suertez kalean topatu, eta onek arpegi musin eta era moldakaitz batean esan zion: *Aita, bere bidean aurrera bijoa, nerekin ikusku-zunik eztaukata.* Gero ere etortzen da ogeita amar egunak betetzen ziran gaua gazteak zeruko gaztigua ezertan artugabe, inoiz ere baño zabaltasun andigoaz bere egoera tristean ziraun; eta orra non gauerdi aldean oñaze miñ zorrotzakin esnatu zan. Aren deadar eta ojuetara etxeakoak lasterka joan, eta itoka konfessorearen billa dijoaz; etortzen da au, baña Maria guziz santaren anparo eta estalpean bere uste eta konfianza ipiñi zitzala onek egiñal guziaz beñ eta berriz esanarren guzia alperrik izan zan; galdu bear tristeak deadar andi bat egiñaz *Ai eta biotza batetik bestera igaro didate,* esan, eta azken arnasa eman zuen.

MARIAREN ONRAN

Ordu laurden batez Mariaren imajiña baten aurrean belauniko ego-tea, Jaungoikoaren aserretik gorde gaitzala, berari erregutuaz.

ESKARIA

Ene Ama, erreku zazu nigatik.



ZORTZIGARREN EGUNA

Eriotzaren gañean pensatzeko bidea

Hill bearrak gera; betiko utzi bear ditugu aideak, adiskideak, ondatsunak eta munduan degun guzia, eta gure bizirañokoa ere. Ar likitxez betetako zulo bat izango da nere bizileku, eternidadea nere etxe; zori onekoa ote, edo gaiztokoa, ori eztaikit. Egia onek, sinisteko, fedebearriek eztu, zerren egun oro gure begien aurrean gertatzen dan egia dan. Hiltzen dira zarrak eta aurrak, bearrekoak eta aberatsak, pekatariak eta justuak. Maria txit Santa hill zan, hill zan Jesukristo, ni ere hilko naiz.

Baña non? Nola? Etxean? Elizan? Oiean? Bidez nabillela? Ori nik eztaikit. Bero edo kalentura geldi batez? Gaitz zorrotzen baten bidez? Txarraldiren batez? Eroriren batez? Ori ere añ gutxo dakit. Emendik ogei ta amar urtera? Aurten bertan? Ill onetan? aste onetan? Gaur bertan? ori ere eztaikit. Ori Jaungoikoak bakarrrik daki, eta Berak esan zuen: erioa arratsean lapurra bezela, gutxien uste danean etorriko dala.

Eta ni sekulan hillko epanitz bezela, eta eriotzaz oroitu ere gabe bizi naiz? Orañ bertan hiltzen banitz nora joango nitzake, nere konzienciak esaten didanez? Bear bada emendik infernura. Au ezagutzen det, eta au gogratze utsak izu gorria ematen dit; nola ipintzen eztaikit, bada, erremedioa? Erremedio au il batetik bestera, egun batetik bestera luzatuaz noa; beti eriotzera alderatuaz noa, eta alere beti gogor nere pekatuan. Ai ene onbear triste! pekatuan hiltzen banaziz nori egotzi nizaioke erru edo kulpa?

EJENPLOA

Amar urteko mutilltxo Maria guziz santaren deboto batek txit ondo progatu zuen zenbat balio duen Ama laztan onen anparo eta mantupean egoteak. (*Auriem, t. 2, pag. 135*). Bere ikasleai Jaungoikoaren eta Maria guziz santaren gauzaz itzegiten zien eskola maisu on bat suerte onez izan zuen, batez ere eriotzeko orduan batek Ama maitagarri au bere laguntzalle izateko, beraganako jaiera zeñ ongarria zan, erakutsiaz. Añ gaztea bezela, eriotzaren bildur izan bear etzukeala, zirudien mutillak, guziaz ere bere maisuaren esanak mugierazita, eriotz on bat idukitzeko zalez Mariari maiz deitzeko asmo sendoa egiñ zuen, esanaz itz oiek: *Agur Erregiñ eta*

Ama errukitsua. Oietik jeikitzerakoan, oierakoan, eskolara zijoanean, jostutzen zebilenean, denbora eta leku guzietan orazio labur biguñ au esaten zuen. Errukien Amak, bere lege on eta amorio samurra txit ondo pagatu zion. Gaitz andi batek artu zuen, nolana ere Birjiña guziz santak ala naita, bere debozio ederra urteakiñ oztu etzediñ. Hiltzen zegoen, eta orra non Aingeruen Erregiñak, beregana agertu, eta begitarte txit eztsuaz esaten dion: *Ene seme ezagutzen nazu? Zuk ainbeste bider deitu diozunai naiz, urrikaltasunaren Ama naiz.* Gaztea, itz oiek aditzean, begiak goratu, besoak zeruronz jaso, eta aingeru baten gisa ara egatu zan. Oh zenbat denbora gutxian eskolan aurreratu zan! Milla bider geiago balio izan zion Maria guziz santaganako debozioaren gazean maisuak erakutsi zion apur arrek, munduko jakiñkizun guziak ikasi bazituzkean baño.

MARIAREN ONRAN

Irutan lurrari muñegitea, esanaz: zergatik arrotzen eta puztutzen zera autsa eta utsa?

ESKARIA

Ama maitea, etsai gaiztoagandik gorde gaitzazu orañ eta gure eriotzeko orduan.



BEDERATZIGARREN EGUNA

Azken juizioaren gañean

Juizioko egunean Juez justu eta zorrotzaren aurrean agertu bear naiz. Zer izu laborria Bera ikusteak emango duen! Nere Aita zan, eta maitatu ez nuen; nere Jabea zan, eta nik utsean iduki nuen. Begiratu bakar batez ipiñiko dizkit aurrean nere eske beltz itsusia, eta nere desleialkeria eta nere saldukeria. Orduan Mariagana joango naiz? Baña nola izango det ainbesterañoko bekokia, baldiñ nere pekatuaz ainbeste bider gurutzefikatu badet bere Seme jaungoikozkoa? Gordeko nau nere guardako Aingeruak? Nola, baldiñ sekulan bere esanik egiñ ezpanuen? Beti nere adiskide izan zan demonioa izango da an nere salatzalle.

Mundu guziaren aurrean agertuko dira nere pekatuak . zer lotsa! Ni aingerutzat nendukaten nere lagunen aurrean; gaitz gabetzat nendukaten nere gurasoen aurrean; nik engañatu nuen nere konfesorearen aurrean. Eta diran guziak, bat bakarra ere utzigabe agertuko dira, gogorazio gordeetarañokoak, zale eta deseo estalietarañokoak ere: nik nere bakarrean egiñ nuen beste hura; bizileku artan, lantegian, denda artan, eliz artan egiñ nuen pekatu hura. Zer lotsaizuna!

Emango da gero salbazioko edo ta kondenazioko epai edo sententzia. Bizien eta hillen Juez Jesukristok emango du sententzia au. Jaun onek edo bedeinkatuaren, edo madarikatuaren izenaz deituko nau. Zer izango ote da nere suertea? Jesusekin zeruetako erreinura igotzeko, ala Satanasekiñ infernuko leizetan ondatzekoa? Baña eziñ gera erazi liteke sentenzi au? Instante batean ere. Eziñ urra liteke? Sekula guzien sekuletan ere. Zer poz atsegiña emango didan aditzeak nola Salbatzalleak esaten didan: *Atoz, nere Aitaren bedeinkatua, prestatua dagokizun erreinuaren jabe egitera!* Baña zer izu eta laborria, aditzen badet, esaten didala: *Oakit emendik, makarikatua, betiko sugarretara!* Oh ene Jaungoikoa! Zeñ izango ote da nere suertea? Eta nola da nai edo ez juiziora joan bear dedalarik, ainbeste dijoakidan gauza bat ozta gogoratzen ere zadala?

EJENPLOA

Aita san Franziskoren lagun kutun eta adiskide mamienetako Fr. Leonek beste askoren artean izan zuen ondorengo begitarazio edo iku-

saldia. (*Auriem. T. 2, pag 289*) Ikusi zuen zelai zabal batean azken juizioa egiten, eta zelai artara tronpeta baten soñura konta al baño geiago persona batu, eta beste asko batuaz joaten. Onetan bi eskallera ipiñi zituzten, bata gorria eta bestea zuria, biak lurretik zerurañokoak; lenengoaren goienean Jesukristo zegoen, eta Jaun onen ondoan, eskallera artatik gora igotzera bere semeak animatzen ziardun Aita san Franzisko.

Onela egiten asi ziran, baña batzuek irugarren mallatik erortzen ziran, besteak laugarrenetik, besteak amargarrenetik. Orduan Guraso santua, agitz estutu, eta asi zitzaien ojuka esaten; goienean Birjiña txit santa zegoen eskallera zuritik igo zitezela; Erlijosok lasterka ara joan, eta Ama txit errukitsuak eskua ematen zien, eta onela zeruan sartzen ziran. Gure galdu bear tristeak, baldiñ Ama maitagarri onegana ezpagoaz, alabaña zerurako bide zuzen eta eskalleran joan nai dutenak Ama onen bidez iritxi bear dute beren salbazioa.

MARIAREN ONRAN

Oieratzean kontu egizu, zu juzkatzera dijoala Jaungoikoa, eta begira orduan zer konzienziak esaten dizun.

ESKARIA

Ama maitea, juizioko egunean gorde gaitzazu.



AMARGARREN EGUNA

Infernuaren gañean

Pekataria, ikusten dezu su eta garrez betatako presondegi izugarri hura? Zuretzat prestatua dago, baldiñ biziera berri on bat artzen ezpadezu. Ongi begira zaiozu; an erre eta kiskaliko da zure anima; an erre eta kiskaliko da pekatuan kulpagarri izan zan zure gorputza. Aotik, eztarritik, eta erraietaraño alere, sartuko zatzu sua; suteagian goritutako burnia bezela geratuko zera, eta demonioak zanpatuko zaituzte. Nola bizi zindezke infernuko galda bizi ikaragarri aietan, len kandela baten gar ariña beatz batean eziñ sofritu zenduen ori?

Bizkitartean zer gauzak gogoratuko zizkitzuzugarri aien artean? Ezer gutxi kostata, salba zindezkiala, eta nai izan etzenduela, pensatzea. Jaungoikoak zuri deitzeko eraratu zizkitzuz, sermoi hura, ejerzizio aiek, liburu on hura, zeruko ixillmandatu eta argi hura izanzinduela, eta aiez baliatu nai izan etzenduela, konturatzea. Zure bizimodu eta estadu, edade, beargai eta kongregazioko lagun asko zeruan andik ikusten, eta zerori infernuan ikustea. Eta onekiñ amorratzea, ernegatzea, zere burua, zere guardako Aingerua, zere debozioko Santuak, Maria guziz santa eta Jesukristo bera madarikatzea. Oh bizitza zeñ doakabe eta hilgarria! Oh beargai zeñ patu gaitzokoa izango dan infernuko beargaia!

Eta su-leize artan erortzeratzen bazera, denbora luzerako izango ote da? Eun urterako? Geiagorako. Milla urterako izango ote da? Asko geiagorako. Zenbat denborarako izango da, baka? Jaungoikoa Jaungoiko dan arte guzirako; beti betirako sekula guzieren sekuletaraño. Eta denbora añ luzean ariñgarri edo sosegu-antzen bat egongo ezta? Sekulan ere. Beatz bat mugitzea bederik itxi-idiki bateko arnas piska bat bederik izango ezte? Egundaño. Edolarik emango didate ur tanto bat? Badauka oberik. O sua, oh infernua, oh eternidadea!

EJENPLOA

Zere salbazioa iristea ziñez eta benaz nai badezu, Birjiña guziz santari eska zaiozu, ezagutzera eman dizazula, zer eta nolakoa dan infernua. Toskanako Markes Hugo zabaltasun osoan bizi zan, bere galgarri eta oitura galduen damuz ere Maria txit santari debozio uxi bat ziolako, Ama onegandik artu zituen ainbeste isill mandatu eta gastiguaz iñolako kontu-

rik egiñ gabe. Egun batez Senario deritzan mendian eizean larrabere baten ondoren, eta bere artan pensatzen zijoala, ekaitz izugarri bat beñgoan sortu, eta turmoi, jasa eta tximista bildurgarriak eraso zioten. Itsumustuan arzulo batean sartu, eta orra nun topatzen dituen gizon itxuran, baña guziz beltz, itsusi eta izugarriak zirr demonioak, gizonen gorputz-zatiak malluaz puskatzen. Hura ikusita Hugok, sorgiñak ziralakoan, garrasi bat egiñ zuen, eta denbora berean illunpe artatik irteten zan itz-ots bat aditu zuen, ziona: *Orri ere eskuak egotzi eta ekar zadak; baña eranzun zioten: Bere garaian, zerren gure gañean alaingo esku eta indarra daukan arke ori egiteko lekurik oraindik ematen eztingun*, Infernuko espiritu aiek esan zuten, orduaraño Mariak gorde zuela Jaun hura betiko kondenaziotik. Markesa, itz oek adituta, beregandik irtena bezela geratu zan, eta bildur santuaren Amagana bere biotza itzuli, eta bere laguntza eskatu zion, eta gurutzearen señailea egiñ, eta etsaiak angoak egiñ zituzten. Ar-zulotik irten, eta Eujenio zeritzan eremutar baten etxetxora joan, eta gaua an igaro zuen, biziera berri ona artzeko asmoetan. Bigaramon goizean Florenziarako irten, eta igaro zitzaion eta Birjiña guziz santari zor zion guziaren berri Eustakio Obispoari eman, eta bere pekatu guziak konfesatu, agiriko penitentzia egiñ, eta bere bizimodu galdu galgarria utzi, eta ontzeari ziñez eta benaz berealatik eman zitzaion, begiak negarrez busti, eta ojuka esanaz: *Hugo aurrerontzean ezta izango Hugo. Zazpi komentu berri egiñ, esku luze ongilleaz oiek bear zutenaz oparo ornitu, eta andik aurrera Mariaren seme egiazkoa bezela bizitu zan, eta gero bere esanegiñ guzietan prinziipe añ ona izan zan, nun prinziipe guziz garaiazen izenaz deitzea merezitu zuen.*

MARIAREN ONRAN

Elizan belauniko zaudenean, gogora ekarzu; zer tormentu izango da sekula guzieren sekuletan infernuko sugarretan belauniko egotea?

ESKARIA

Ama laztana, arren infernuko tormentuetatik libra gaitzazu.



AMAIKAGARREN EGUNA

Infernuko seinalatuak zeñ asko diran

Anima nerea, bera begiratu eta ikus itzazu infernuko leize-zuloak, eta jarri zaite an dauden kondenatuak kontatzen. Begira Mesias mundura baño lenagoko denboretako zenbat dauden. Hura Kain da: bi anaietatik bata salbatu eta bestea kondenatu zan. Beste aiek mundu guzia ondatu zuen ujol andian ito ziranetakoak dira; famili bakar bat berezita, guziak edo geientsuak kondenatu zirala, bildur izatekoa da. An dakuskitzun aiek Sodoma eta Gomorratarak dira. Begira gañera jaungoiko gezurrezkoen zenbat adoratzalle, ejiptotar, amalezita, Canantar, Asiriatar, feniziatar, greziatar eta Erromatar dauden. Begira, orduan erri esleitua zan hebreatarrik ere zenbat dauden.

Jesukristoren denborako beste kontal baño geiago ere ikusiko dituzu; Lege egiazkora etorri etziran jentill edo fedegabeak; beren seta gogor-rean iraun zuten filosofo arroak; Jesukristo persegitu zuten juduak; Salbatzallearekin itzegiñ eta tratatu zutenetako asko; bere mirariak beren begiaz ikusi zituztenetako ez gutxi. An daude Judeako Eraentzalle edo Gobernari Pilatos. Apaiz nagusi Kaifas, Herodes Erregea, Jaunaren ikasle Judas, eta Jaungoikoaren aldean hiltzeko suertea izan zuten lapurretako bat.

Konta itzazu, azkenik, Jesukristoren denboratik onuntz kondenatu diran animak. Ara an Ebanjelioari gerra bizia egiñ diotenak; mirariak ikusteko itsu egiñ diranak; Elizaren zenbat persegitzalle; lenengo iru gizaldietako Erromako Enperadoreak; eta munduan ainbeste ots atera zuten filosofo edo jakintsu andi, iztun eder eta koplari sonatuak.

Begira gañera zenbat kristau fededun dauden, fedea iduki zutelarik, zeruko argi eta ixill mandatuak barrundatu zituztelarik, Jaungoikoaren itza enzun zutelarik, eta Sakramentuak artu zituztelarik. Begira zenbat prinzi-pe eta jaun andi, zenbat Sazerdote eta Erlñijioso dauden, eta Obispoak ere palta eztira.

Bear bada esango dezu: bada baldiñ pekatari guziak kondenatu bear badira nor joango da zerura? Ah konta al guziak baño geiago dira kondenatu diranak. Baña orrekiñ zer galtzen du Jaungoikoak? Zer galera izaten du zeruak? Ai, nere anima! zeñ eta gutxi diran, jarrai zaiezu justuai eta salbatuko zera.

EJENPLOA

Ondorengo gertakariak argi eta garbi agertzen du zenbat Mariaganako debozioak balio duen. 1714-en urtean galgarri eta oitura gaiztoetara emandako bi gazte Flandesen estudiatzen zeuden. (*Aurriem. T. 1, pag. 47*) Jan-edanen eta naierara jostatzen egun bat eman ondoan, emakume galduen etxean gaua igarotzeko ustean joan ziran. Beretako bat, atsedeteko ustean txit beranduan bere etxera biurtu zan; baña bestea bere gurari lizuna asetzeagatik, Babiloniako kalizaren kondarretarañokoa edateko ustean, bertan geratu zan. Lenengoa, bere etxera iritxi zanean, egun oro errezzatu oi zuen Ave-Maria bat errezzatu etzuelakoaz, konturatu zan; artarako gogo andirik ezpazeukan ere, erdilotan bederik bere hura errezzatu zuen. Oieratu zan, eta nola añ nekatua bazegoen, bereala loak artu zuen; baña luzarora begira egongabe, bere gelako atean kolpe izugarriak aditu zituen. bereala esnatu, eta orra non atea idikigabe patu gaiztoko bere laguna itxura izugarri bildurgarrian bere aurrean ikusten duen. Izu-laborriak artu, eta atea itxia zegoela hura sartzeaz arritu, eta garraxi bat egiñ, eta esan zuen: Au zer da? Eta patu gaiztoko lagunak erranzun zion: *Jakin bear dek, ezen Jaungoikoaren asmo zuzenen erara, bi eta ni gaur arratsean infernura amildu bearrak giñala; baña bi Ave-Maria errezzatu diokan Birjiñak libratu au eriotzetik: ni berealatik kondenatua neagok. Onelako kaletan (kalea izendatuaz) zeagok demonioak hill duen nere gorputza.* Eta egia orretan seguru ipintzeko su eta garrak botatzen zituen, eta suge izugarriak aginka puskatzen zioten kolkoa zabaldu eta erakutsi zion.

Orduan beñgoan begietatik galdu zitzaion. Beste au bereala oietik jeiki, eta ematen zaio negarrari, eta onela zegoela, san Franziskoren komentuan Maitinetarako jotzen zituzten ezkillotzak aditu, eta ots aiek Jaungoikoaren deiak zituelako uste osoan, an dijoa korrika elizara, eta ango Erlijiosoan oñetan auzpeztu, eta leia eta alegiñ guziaz eskatzen die habitua, gertatu zitzaion guzia kontatuaz. Lenengo artan federik eman etzioten; baña berak seinalatu zien kalera Erlijioso batzuek joan, eta guzi hura egia zala, ikusi zuten, baka patu gaiztoko lagun zanaren gorputz hill izugarri itsustua an topatu zuten. Orduan Erlijiosoak bestea berengana artu zuten, eta penitenziazko biziera gogorra Erlijioan asi, eta bere bizi guzian Mariari esker eta ezaguera txit ona gorde ziozkan, on eta mesede añ seinalatu hura berari zor ziolako.



MARIAREN ONRAN

Zere bizi guzian Mariaren onran egun oro egiñ bear dezun debozioa señala zazu, eta ori leialtasun guziaz egiteko boto edo promesa egizu, infernutik libra zaitzan.

ESKARIA

Oh ene Ama, milla ta geiago esker dizkitzut, zeren infernutik libratu nazun.

AMABIGARREN EGUNA

Jaungoikoaganako kristauaren esker beltz itsusia

Zer geiago egiñ zenzake, ene Jaungoikoa, ni salbatzeko? Ori esaten nik eztakit. Errukizko txistuaz deitzen badidazu, nik zure ontasunean oso fiatuta, eta zu ofenditzen diardut. Zure justizi gogorraz bildurtzen banazu, zure urrikaltasunaz etsi, eta pekatu egiñaz noa. Biotza samurtzen badidazu, pekatua orregatik uzten ezte; zorrotz itzegiten badidazu, añ gutxi. Orañ Santokristoren oñak negarrez bustitzen ditut, bereala ostera pekatuan eroriaz berriro idikitzen diozkat llagak. Gaiztakeri, esker beltz itsusi eta saldukeriaren zer leize ondogabea da au?

Nere Jaungoikoa, zer egiñkizun geratzen zatzu ni salbatzeko? Eliza santaren barrutietan egiñ nazu; Zu ezagutzeko argia, pekatuaren lozorro-tik esnatzeko zeruko mandatuak, tentazioai burutzeko laguntzak, sendatzeko eta zurekiñ adiskidetzeko Sakramentuak, gauz onak egitera mugierazitzeko ejemplo onak, eta Zugana biurtzeko naigabe eta penak eman dizkidatzu. Pekatua egiñ nuen: kastiga nazazukean, eta barkatu zidazun. Besteakiñ gogor izan zera, nerekiñ beti urrikaltasuna izan dezu. Azkenik, ni bide zuzenera erakarteko, egiñgabe ezer geratu etzazu, eta niri ere ez zuri kontra egiñaz, nere gaitzean gogortzeko.

Eta zer geiago eska negizuke salbatzeko, ene Jaungoikoa? Zure odola? Guzia ixuri dezu nigatik. Zure anima? Zere Aitaren eskuetan eman zenduen nigatik. Zure gorputza? Nigatik gurutzean josia izan zan. Zure aragia? Beti prest dago nere janari izateko. Nik eztakit zer on eta mesede berri eska negizukean; eta guziaz ere Zu ofenditzen zaitudan guzian zure kontrako espak dauzkadala, dirudi, nere biotzean zure graziaren palta balitzat bezela. Ah zeñ zentzugabe eta zoroa naizen baldiñ bakarrik nere kulpaz eta bakarrik gaiztakeriaz betiko galerara noala ezagutzen ezpadet.

EJENPLOA

Salbatzeko zeruko laguntza andi eta banakak izaten duten bezelako bat bear bada ere, laguntza au iritxi genzake Mariaren bidez. Salbazioaren uste eta esperanza guzia galdua zeukan soldadu bat indiako Trabankorko portura baztertu zan, alabaña bere anima demonioari entregatua zedukan. Baña legorreratu zan bezela, Jaungoikoak ala naita, eliza batean sartu, eta



Maria guziz santare imajiña baten aurrean belaunikatu zan, arren lagun zigiola, eta bere Seme jaungoikozkoagandik barkazioa iritxi zegiola, erregutuaz. Onela zegoela, ikusi zuen nola Ama maiteak bere besoetan zeukan Aurtxo Jesus negarrez asi zan; baña añ miñ eta bizi, non bere malakoak amaren eskuetatik txirrian aldarearen gañera erorten ziran, aldareko zapiak bustitzero. Orduan soldaduak ere negar miñari eman, eta bereala barrundatu zuen bere bularrean urrikaltasunaren iturburu eta sustraia dan Ama errukitsu aren bidez barkazioa iritxiko zuen, uste eta esperanza osoa, seguru egonaz, Semeak negarrez artzen zuela, Mariaren erreguen bidez barkatuko ziolakoan. Gertakari au eziñ exillean gera zitekean; soldaduaren ontzi-lagunak mirari hura ikustera lasterka joan, eta gertatu zanaren agiri segurua bezela, aldarezko zapiak oraindik negarrez bustiak arkitu zituzten. Gertakari au zala bide, soldaduak bere bizi guziko konfessio bat damu egiazkoaz egiñ, eta erlijioan sartzeko boto edo promes egiñ zuen, sartu zan bezela, len infernuko etsaiarekiñ bat egiña zegoena, Jaungoikoarekiñ estuago batutzeko. (*Auriem. t. 2, pag 290*)

MARIAREN ONRAN

Maria guziz santari ikusaldi edo bisita bat, bere Seme jaungoikozkoak egiñ dizkigun on eta mesedeakganako esker eta ezaguera onekoak izateko grazia, eta gure pekatuen barkazioa iritxi degizkigula, eskatuaz.

ESKARIA

Gure bizitza, eztitasun eta esperanza, Maria maitagarria, arren lagun zaguzu.

AMAIRUGARREN EGUNA

Gaitzerako bide edo eskandaloren gañean

Gaitzerako bide edo eskandaloa pekatu txit pisu bat da, bada pekatu onen bidez ostutzen zaio anima guzien jabe Salbatzalleari anima bat, baña eriozko agonia, presondegi lotsagarria, burlak eta desonrak, tormentu izugarriak eramatea, bere odol guzia ixurtzea eta bere bizirañoko guzia galtzea kosta zitzaion anima bat ostutzen zaio. Eta zuk badezu Jaun oni anima ori kentzeko ausardiya? eta anima onentzat Jaunaren pasio eta eriotza alperrik izatekoa? Eta bere Biotz añ maitagarria estutzekoa? Onela demonioaren antzeko agiten zera, nor lenengo denboretatik animen hiltzalle izan zan, San Juanek dion bezela. Zu ere animen hiltzalle izan zera zere gazte denboretatik, esan-egiñ lizun loi lardats aiekiñ; keñu, begiratu eta eskari lotsagarri aiekiñ. Onela kendu diezue bizia anima gaitzgabeal! Zer saldukeria! Zer billaukeria!

Gaitz-bide edo eskandaloa deritzan pekatua pekatuen azitegi bat da. Zure leiaren leiaz gazte ark egiñ zuen pekatua, zure pekatua da, eta geroz egiñ zituen guziak, eta zugandik ikasita egiñ zituen guziak ere zureak dira. Ark zugatik pekatu egiñ zuen, eta bereala besteen maisu egiñ zan pekatuaren egitean: bada oiek egiten dituzten pekatu guziak ere, nola zure lenengo gaitz-bide edo eskandalotik sortzen baitiran, zureak dira. Oh eta zer pekatua zere gañean daukazu!

Gaitz-bide edo eskandaloko pekatua Jaungoikoarekiko zor guziz andia da. Gaitzerako bide ematen duenak, Jaungoiko berari gerra ematen diola, eta demonioaren banderapean jartzen dala, dio eta Jaungoikoaren gloria galtzen oni laguntzen dio. Pekatari nabarbena, zu zera zere moldakaitzkeriakiñ Jaungoikoaren sebitzurako dauden aldare eta elizak loituzten dituzuna. Zu zera Jesukristori animak ostutzen diozkatuzuna, anima oiek bere biotzetik atera eta demonioaren atzaparretan ipintzen dituzuna, oiei zeruetako erreinua galarazten diezuna. Eta beragatik, zukan dagoeenez, kentzen diozkatzu zeruari bere irabaziak, galarazten diozkatzu Jaungoikoari bedeinkazio eta alabanzak, eta bere serbitzari leial izan bear lukeenak, oso galdu, eta ipintzen dituzu demonioaren morrontza gogorrean, infernua animaz bete dezazun, eta zeruetako Jaunaz birau izugarriak botatuaz, Jaun au madarika dezaten.

Ezagutzen dezue orañ zere orrenbeste gaitz-bide eta eskandalorekiñ gañeratu dezun zor neurrigabea? Bada guzi orren damuz ere, baldiñ zere



bizimodu on, eta konseju ongarriaz, eta beste zernai eratara, galdu dituzun ainbesteren ordañez anima bat bakarra irabazten badezu, uste dezazuke Jaungoikoa gozatuko zatzula. Zor guziaren alderako serbitzu añ laburra eskatzen du. Uzkur egongo zera zor ori añ erraz pagatzeko?

EJENPLOA

Zure lagun urko edo projimoai gaitzerako bide eman badiezu, zoaz Mariagan, eta iritxiko dezu barkazioa, gaitzerako bide andia ematen zuen batek Aviñon deritzan erri andian iritxi zuen bezela. Birjiña guziz santaganako deboziotik besteakurrutiratzea, bera gaizto izateaz ez aseaz, ezpada besteak ere ala izan zitezzen al guziaz saiatuaz, Maria txit santaren kongregazioetara joatetik atzeraeraziaz, eta kongregazio oien eta kongregaziokoen kontra aora zetorkion guzia esanaz; eta okerren zana, persona zarra zalako bere esanai askok fede eman, eta bere konseju galgarriak artzen zituztela. Gizon au gaitz gogor batek artu zuen; baña erioa ortzetan ikusten bazuen ere, beti bere bostean zegoen, eta damuaren inñolako señaletik ematen etzuen. Baña geroenean Mariaren Sortze edo Konzepzio garbiaren eguna iritxi zan, noiz eta kongregazioak pest hura solemnidade andiaz egiten zuten, eta bizkitartean, nolana ere mariaren bitartekotasunez gaxoa bere egoera tristean, eta igaroko bizitza gaiztoan pensatzen asi, eta bere pensatzeko moduak bat-batean trukatu ziran, alatan nun, gauzak len ez bezela begietaratzen zitzaizkion. Onekiñ len ezertan etzeukan Kongregazioaren zuzenbidea zedukan Aita keitu, berari barkazioa eskatu, eta geroenean, arren kongregazioan ar zezala, erregutu zion. Aitak berealatik artu zuen, eta gizon au animako gaitz eta gorputzeko eritasunetik libre beñgoan ikusi zan, eta osasun ederrean, eta, sinistekoa danez, Jaungoikoaren grazian, oietik jeiki zan.

MARIAREN ONRAN

Saia zaite debozio eta modesti andiaz elizan egotera, nola ta etxean, kalean eta beste zernai lekutan, zere lagun urkoari eman ziñiozakean gaitzerako bidea nolerebait onela zuzentzeko.

ESKARIA

Jauna libra nazazu nere eta besteen pekatuetatik.



AMALAU GARREN EGUNA

Esamesaren bildurraren gañean

Ondu nai zenduke, eta orretaratzen etzera. Nork edo zerk ori egitea galerazten dizu? Esamesaren bildur txar batek. Etxe artara sarriago ezpanoa, ara joatea konfesoareak debekatu didala, esango dute. Lagun gaizto aiek uzten baditut, eremu batera noala, usteko dute. Esaera loi lardats aiek esaten ezpaditut, bizi-zogia ez naizela esango dute. Begiak modestiaz eta modu onean badarabilzkit, komedietara ezpanoa, gaitzerako bidea arkitu oi dan pausoetara joaten ezpanaiz, nizaz farra eta burlegiñ, eta bildurtia naizela, esango dute. Orrela beraz esames txar baten bildurragatik infernura joan bear dezu? Zorakeriaren guzizkoala!

On izan nai zenduke, eta inoiz ere orretara erabakitzen etzera: Zerk ori egitea galerazten dizu? Esamesaren bildur txar batek. Lagunakiko trabidea, lagunarte galgarriak eta komedi eta ikuskari perilsuak uzten baditut, basati bat egiñ naizela, esango dute. Apañdura arroaz jazten ezpanaiz, nizaz konturik egiñgo ez dute. Ospitalera, elizara, jubileora maiz joaten ikusten banaute, itxura emalle bat naizela esango dute. Eta eztezu ezagutzen irudipen añ zoro oriegatik galtzen dezula bizitz onetan kristau on, eta bestean doatsu izatea?

Bada Jesukristo gurutzefikatuaz lotsa bazera, Bera ere zuaz lotsa izango da: *Nizaz eta nere dotriñaz lotsa danak, jakin beza, Birjiñaren Semea ere beraz lotsa izango dala.* (Luc. 9, 26) Jauna, Jauna, esango diozu Juizioko egunean, ezagutzen ez nazu? kristaua naiz. Ezagutzen etzaitut, esango du Jesukristok. Nere señale edo marka eramateaz, Meza bat belaniko enzuteaz, nere izen santua esaten akitzean burua makurtzeaz, debozioaz ziñatzeaz, lotsa izan ziñan. Eta oral kristaua zerala diozu? Zoaz zere lagun gaizto, aragikoi, jostazaleakiñ: zuk mundua eta demonioa serbitu zinduen, berak ezagutzen zaituzte, nik ezagutzen etzaitut.

EJENPLOA

Esamesaren bildur guzien artean galgarriena da gere utsegiñak konfesoari agertzetik atzeratzen gaituena. Au ongi progatu zuen gizon batek Alemanian. (*Aurriem. t. 2, pag. 101*) Bada gizon oni, pekatu txit itsusi batean erori, eta gero pekatu hura konfesatu-bearrak ematen zion lotsa

alaingoa zan, non inola ere eziñ artaratu zan. Bizkitartean bere konzienziaren imurtziak añ bizi eta gogorrek ziran, non aiek ematen ziozkaten naigabe eta estutasunak eziñ eraman zituen, bere salbazioaz etsi, eta bere burua ibaira botatzeko zorian zegoen. Egiaz eta begiaz orretara zijoan; baña ibai ertzera zanean, Jaungoikoaren urrikaltasunez geratu zan. Negarrez, berak zion bezela, *de plenitudine potestatis*, eta konfesatu bearri-gabe bere pekatuak barka zegiozkala. Jaungoikoari eskatuaz, bere etxera biurtu zan. Andik zenbait santuario eta elizetarako egiñ zituen promesak betetzera joan zan; baña guzia alperrik, zerren pake eta sosegurik inon arkitzen etzuen. Jaungoikoak ber Ama guziz santaren bitartez pake au arkitzea nai izan zuen. Goibeltasun eta barrungo ilunaren kargapean makurtu, eta loak artu zuen gau batean, orra nun sentitzen duen espaldan kolpe bat, denbora berean esanaz: *Zoaz konfesatzera*. Luzapengabe oietik irten, eta an dioa Jesusen Konpañiak Warastinen zedukan Kolejiora, aratzen zan bezañ laster konfesatzeko uste osoan; baña elizako atetara zan bezela, lotsak berriro eraso, eta atzera biurtu zan. Ill batzuetan onela ibilli zan, arik eta beste gau batean beste gaztigu bat artu, eta asmo oraindik biziagoaz konfesatzera bigaramonean irten zaneraño; baña berriz ere lotsak azpiratu zuen. Egoera triste onetan zegoela, egiten du bere pekatuak konfesatzera baño len bere burua hiltzeko asmo erabakia; baña graziak txit bizi beartzen zuen, alatan non, egun guzian bere buruarekiñ burruka ibilli zan. Geroenean, ordurako illundu, eta bere etxera zijoala, Ama Birjiñaren imajiñ eder bat zegoen eliz batean sartu, eta bere gaitzen erremedioa Ama maiteari eskatu zion, eta pekatarien gordeleku eta naigabe-penetan daudenen poz-emallea dan Ama txit errukitsuak ditxagabe hura perill artan utzi nai izan etzuen, eta egiten zion serbitzu laburra ere ordañ-saritugabe utzi nai izan etzion; bada, bere Seme guziz santuagandik biktori osoa iritxi zion. Bereala bere biotza oso trukatu barrundatu; zegoen lekutik altxa, konfesoare bat billatu, eta negar goriak ixuriaz, agertzen dio oni bere konzienzia, bere biziko pekatu guziak argi eta garbi esanaz. Absoluzioa artu zuen, eta onekiñ, alaingo pake, sosegu eta atsegiñ-kontentua bere animan sentitu zituen, nun munduko urre guzia irabazi bazukean, alaingorik artuko etzukeala, segurutzen zuen.



MARIAREN ONRAN

Mariaren imajiña bat topatzen dezun guzian berari erreberentzia egiñ, eta erreza zaiozu *Ave Maria* bat, inork ikusiko zaituelako bildurra badezu, bildur ori biotz prestuaz zeregandik botatuaz.

ESKARIA

Maria santa, Jaungoikoaren Ama, erregu zazu gu pekatariokgatik.

AMABOSTGARREN EGUNA

Gloriaren gañean

Zer gogokoen zatzu mundu onetan? Nai dezuna egiteko esku eta zabaltasuna? Zerura joaten bazera, ibilli zindezke zere naierara illargian, eguzkian eta izarretan. Puntu batean zerutik lurrera jetxi, eta bestean igo zindeke. Leku itxi eta gordeenean ezerk galerazigabe, eta inolako bildur-gabe sar zindeke.

Musika soñua? Aingeru eta Santuak zeruan beti aditzen eta gozaten dutena eziñ ederrago eta zoragarriagoa da. Serafin batek zeruko otslankai edo instrumentu bati ukitzeaz beste gabe, Aita san Franzisko beregandik irten eta gozotoro kordegabetua utzi zuen.

Gorputzeko edertasun eta liraintasunaren zalez zaude? Doatsu izatera irixten bazera, bi izarren parekoak izango dira zure begiak; eguzkiak bezela argi egiñgo du zure arpegiak; diamantea ez bezelako perlaz apañduak ikusiko dira zure eskuak, eta argitasun eta edertasunez jantzia egongo da zure gorputza.

Jakiñ naiak zaramazki? salba zaitte, eta Salomon baño jakintsuago, eta munduko filosofo guziak baño argitsuago izango zera; puntu batean eta izpirik nekatu gabe ikasiko dituzu jakiñkizun guziak.

Kreaturen edertasunak zoratzen zaitu? Zenbat ederragoa Egillea dan! Glorian Bera arpegiz-arpegi ikusiko dezu, zoratzeko zorian egongo zera bere arpegi jaungoikozkoari begira eta Bera ikuste utsez berealatik doatsu izango zera. Gañera, Zer poz atsegiña izango dan Aingeruak ikustea, gure Aita Adan, Aitalen Abraham, Errege David, Apostoluak, Martiriak, zure Santu artuak, ikustea! Maria ikustea, Jesus ikustea!

Aberats izan nai zenduke? Bada salba zaitte, eta zeru guziaren eta munduko ondasun guzien Jaun eta Jabe, Jaungoiko beraren jabe izango zera. Bera zurea izango da, eta inork eziñ kenduko dizu, eta ezergatik eziñ galdu al izango dezu. Bera zurea izango da, eta zu Berarena sekula guzieren sekuletan.

Beraz guziz zentzugabea da ondasun galkor eta ezerez bategatik gloria galtzeko bidean jartzen dana.



EJENPLOA

Mariari egiñdako serbitzu labur bat iñoiz asko izan da pekatarririk galdueña ostera grazia berendu, eta gloria irixteko. Gazte noble eta bere buruaz txit pagatu bat iru erlijiosorekiñ Genovatik Savonara itsasoz zijoan, eta nola liburu zoro galgarrien irakurtera txit emana baizan, garai artan amodiozko itz neurtu edo koplak zekaizkien bat irakurten zijoan, eta arazo artan alaingo poz-atsegiña artzen zuela zion, nun dira zartada andi bategatik ere liburu hura salduko etzukean. Erlijiosoetako batek esan zion: *Gogoz egiñgo zitiñoke Birjiña txit santari serbitzu bat? Ori bai, Aita, gazteak eranzun zion, Birjiñaren onran zernai gauza egiñgo det. Bada ondo, erlijiosoak ostera esan zion, Birjiñari atsegiñ egiteagatik liburu ori apurtu eta itsasora bota zazu.* Oni gazteak eranzun zion. *Orra nun dankan— Ez, erlijiosoak ostera eraso zion: zere eskua z ofrendatu bear diozu doai an Mariari.* Orduan gazteak kanibeta batez liburu erdibitu, eta erdi bata itsasora bota, eta beste erdia erlijiosoari eman zion, eta onek ere orri guziak apurtu eta itsasora bota zituen. Biotz prestatuaz egiñdako lan au ordañ-sari gabe geratu etzan, zerren andik denbora gutxiren buruan gaztea Genovara biurtu, eta bertutezko biziera egitera Jaungoikoak deitu, eta Birjiña guziz santak Erljioko gordeleku seguru eta suerte onekora erakarri zuen. Oh zeñ gogoko zeruko Erregiñ oni izango litzaiokean liburu galgarrien irakurtean gazte onen antzeko izan, eta berari atsegiñ egiteagatik liburu oriek beregandik botatzen ere ark bezela egitea! Onek arrazoiz eta bidez uste lezake pekatuen damua eta ontzeko grazia Mariaren baitartez iristea.

MARIAREN ONRAN

Ikus zazu, ea zure liburu, estanpa edo paperetan añ garbia eztan zerbaít ote daukazun, eta onelakorik arkitzen badezu, bereala surtara bota zazu, Birjiña txit santaren onran.

ESKARIA

Zeruko atea, erregu zazu gugatik.

AMASEIGARREN EGUNA

Zerurako bidearen gañean

Zerura joateko bi bide bvakarrak daude; edo pekatarririk ez egitea, edo ta penitentzia. Zer egiñ nuen nik pekatu gabe negoen egoera arrez? Seguru nezake, egoera au, bere balio neurrigabea ezagutu gabe, bere galeraz negar egiñ bage, eta inolako damu gabe galdu nuela. Zer miñgarria añ laster, añ erraz, añ merke eta añ errukarri pekatu gabeko egoera gañtzea!

Eta egiten det orañ nere pekatuen penitentzia? Baña zer diot penitentzia, baldiñ, bear bada, orañdik ondo konfesatu ere ezpaditut, eta konfesoreak ematen zidan penitentzirañokoa, zeñ eta ariña zan menturaz geigizkotzat iduki badet?

Eta betiko glorian sartu nai dezu? Zer bidetatik ara joan uste dezu? Nai edo ez pekatu gabeko bizieraren bidetik, edota penitentiarenetik joan bear dezu: baña pekatu gabekotik eziñ zoazke; penitentiarenetik nai eztezu: nola salbatu bear zera, bada?

Ea, jarri nadiñ penitentzia egitera. Orañdaño jarri ezpanaiz, berealaitik asitzera noa. Bide estu zuzenean sartu nai det; orañdik garaia da. Nork daki zenbat denbora munduan geratzen zadan? Bear bada txit laburra izango da: bada onekiñ irabazi badezaket zerua, gaur bertan penitentzia egiñaz nork edo zer atzeratzen nau? Zergatik ori egiten ez tet?

EJENPLOA

Mariaren debozioa uzten duena, zeruko bidetik zearkatzen da. Lenengo urteetatik Mariaren deboto izan, eta guzia biziera galdu eta lotsagabe batera eman zan gazte bat peligro añ guzizkoan jarri zan. (*Aurien t. 1, pag 23*)

Gau batez amets txit triste eta bildurgarriak egiñ ondoan, esnaur, eta eziñ beregandik botarik begitazio hilgarri aiek, oietik jeiki, eta aiek burutik kentzeagatik, zorakeriak zekaizkien liburu bat irakurten jarri zan. Eseri ez al zan, ematen dute kolpe andi bat atean, geratzen da atea dan ainbat zabal; eta ikusten du zentoi edo gigante baten gisako emakume izugarri bat, begietatik sua zeriola, eta esku-oñetan larrabere gaiztoen gisako azkazalakiñ beregana sartzen. Gaztea burutik oñetarañoko ikarak emanta, an dijoa lasterka zoko batera, arren lagun zegiola, Birjiña txit santari eska-



tuaz. *Alperrik* (itxura hura artu zuen demonioak esan zion) *alperrik deitzen diok len utzi uenari, bada Berak ere utzia auka. Nerea aiz, eta nere eskupean ago onelako eta alako pekatu egiñ ituelako,* (eta ziran guziak bat banaka zearo esan ziozkan), *orañ nerekiñ etorriko aiz.* Gazte tristeari gorputz guzitik izerdi otza zerion, eta Ama Birjiñaren kongregazioan egiñ oi dan promesa al zuen bezela, bertan egiñ, eta biziera berri on bat egiño zuela agindu zuen; au egiñ zuen bezela, bere gelako leioa zabaltzen, eta errespeto andiko Etxeandre bat arpegi estaliaz andik sartzen ikusi zuen, eta hura ikusi zuen bezela, etsaiak ango aldiak egiñ zituen. Orduan Andre miragarri ark gazteari itzegiñ zion onela: *Arrisku eta perill andian egon zera; baña arnas ar ezazu; Zoaz konfesatzera, zere debozioai herriro ekiñ ziaezu, eta biziera berria asi zazu.* Goizean goiz-asko etxetik irten, eta kongregazioari zuzenbidea ematen zion apaiza topatzera lasterka joan zan. Itxura añ galdukoa zijoan, nun obi edo zulotik irtena zirudien, baña berak kontatu zuena, eta demonioak gelan itsatsi zion kirats ustel nazkagarria gertakari aren agiri segurua izan ziran; gazteak lanari ekiñ eta atzera itzultzea zeñ kaltarkitsua dan, orduan ezagutu zuen.

MARIAREN ONRAN

Begira Birjiña Maria maitagarriaganako debozioan epeldu ote zeran, eta onela gertatu bazatzu, biur zaite debozio oni len baño biziroago ekitera.

ESKARIA

Zere ondoren eraman nazazu, Ama guziz biguña.

AMAZAZPIGARREN EGUNA

Mariaganako debozioaren gañean

Mariaganako debozioa txit indartsu eta eragillea da, zerren Andre miragarri onek, Jaungoikoaren Ama dan bezela, bere Seme guziz santuaren esku indartsuaren, graziaren eta urrikaltasunaren ondasun guziak bere eskura utziak dauzkan. Nola ukatuko dio Jesusek bere Amari, bere bular garbia eman zion, bera añ zintzo gorde zuen, berari jaten eman zion, bera azi zuen, bere ibillietan, gurutzearen oñean eta obirañoko guzian bere lagun izan zuen Ama bati, iñolako ezer? Mariak beste gauza guziak baño maiteago du bere Semea, eta Semeak beste kreatura guziaz baño geiago nai dio bere Amari: zer uka lizaioke?

Birjiña guziz santaganako debozioa debozio guziz gozo eta estitsua da, zerren Birjiña au gure Ama dan. Koskako san Estanislaok esan oi zuen: *Jaungoikoaren Ama nere Ama da.* Jesukristoren Ama nere Ama da. Jesus eta ni Ama baten semeak gera. Ona emen zergatik Birjiña txit santak beti guri on eta mesedeak egiteaz gañera, onginai eta amorio txit biguñaz mesede oriek egiten dizkigun. Enzuten ditu gure errekuak, eranzuten digu, biotzera itzegiten digu, eta iñoiz alaingo biguntasunaz eta alaingo poza guri emanaz, non negarretan urtzen geran.

Birjiña txit santaganako debozioa biguñ eta maitatsua da, zerren Ama au pekatarien Ama dan, eta oiek izan baziran ere bere Seme jaungoikozkoa gurutzearan ipiñi zutenak, maite ditu, eta guzien Ama izatea glori anditzat dauka. Zer poz atsegiña bere biotz samurrak artzen duen, bi seme oiek, au da, Jesus eta pekataria, alkarrekiñ ongi ipintzea iristen duanean! Bada zuk, pekataria, zere Amari atsegiñ guztizko bat eman zintzaioke. Utzi zazu bere oñetan Jesus gurutzefikatzeke serbitu zizun burria, jarri zite bere esku txit bedeinkatuetan, eta damu egiazkoaz esan giozu: *Pekatarien Ama, erreku zazu nigatik;* ona nun naukazun, Ama guziz biguña, Ama guziz ezitsua, Ama guziz errukitsua.

EJENPLOA

Setaz pekatuan gogortua dagoela Birjiña txit santaren deboto egiazko izatea, eziñkizuna da. 1713en urtean Flandesko erri andi Valenciennes deritzanean gizon bat pekatu txit itsusi batean erori, eta gero ori konfesa-



tzen lotsak uzten etzion: beste gañerakoak konfesatzen zituen, baña au beti kolkotan gordetzen zuen. Onekiñ konzienziaren arrak imurtzi zorrotzak egiten ziozkan; baña onekiñ zer aurreratzen zuen, zingira artatik nola irten ezpazekien? Onela zertara jokatu etzekienez zegoela, In-Alle zeritzan leku batean zegoen Ama Birjiña bixitatzea bururatu zitzaion, beste gabe libre geratuko zalakoan, eta au obeto egiteko, ara joateko promesa egiñ zuen, ez konfesatzeko ustean, ezpada bakarrik onekiñ bere barrungo sosegua iritxiko zuelakoan. Elizako ateetan zegoela, bada, agiri etzan esku batek geraerazitzen zuela sentitu zuen; sartzeraz al guziaz saiatzen zan, baña alperrik nekatzen zan: bere katazka guziagatik arria baño geiago eziñ mugitu zan. Geroenean, hura zergatik zan ezagutu, eta luzapen geiago bage pekatu hura konfesatzeko asmo edo propositu sendoa an bertan egiñ, eta bereala iñork galerazi gabe elizan sartu zan. Bereala konfesore bat billatu, eta bere biziko joan-etorri guziak oni agertu ziozkan, Birjiña txit santaren mesedez barkatua, eta atsegiñ kontentuz betea bere etxera biurtaz.

MARIAREN ONRAN

Oitu zaite Errosario santua erreztazera, etra txit on litzake besteak ere debozio onetara mugierazitzea, orretarako lagunduko dizutenak billatuaz.

ESKARIA

Oh Ama guziz maitagarria, erregu zazu gugatik.

EMEZORTZIGARREN EGUNA

Jaungoikoaren aurrean egotearen gañean

Norekiñ zaudela uste dezu orañ? Jaungoikoarekiñ. Itzegiten zaude-nean, lagunakiñ zabiltzanean, lanean diarduzunean, lo zatzanean, jaten zaudenean edo paseatzen zabiltzanean norekiñ zaude? Jaungoikoarekiñ. Eta pekatu egiten diarduzunean? Orduan ere Jaungoikoarekiñ zaude. Jaungoikoa zure aurrean dago, zure inguruan, zure barrunen eta zure gorputzaren alde eta sentidu guzietan dago. Zuk egiten dezun guzia ikusten du, zure itzak aditzen ditu, zure zale eta deseoak ezagutzen ditu, zure gogorazio eta pensamentu guziak barruntzen ditu. Gau eta egun begira dagokizu, bakarrik naiz lagunakiñ zaudela, eta denbora eta leku guzietan begira dagokizu. Iñoiz ere eziñ esan zenzake: orañ pekatu egiñ nezake bildurgabe, iñork ikusten eznauta; bada Jaungoikoa beti begira dagokizu.

Zer ausardi eta lotsagabekeria dan Jaungoikoari bere begien aurrean txarkeri edo ofensa egitea! Jaungoiko añ santu eta esku andiko baten, zure Erredimitzalle zure Aita, zure Jaun eta zure Juezaren aurrean! Eta nornai personen aurrean pekatu bat egiteko lotsa zeralarik, Jaungoikoaren aurrean egiteko lotsa ez izatea! Nola ezurretarañoko ikarak artzen etzaitu pekatu egitera zoazenean? Jaungoikoak bere bularrean eskribituak dauka zure gaiztakeri guziak, eta oriek an irakurten diardu beti. Begira, bada, zer egiten dezun Jaungoikoa begira dagokizun pekataria.

Bere tribunalaren aurrean kontuak ematera ager zaiteanean, zu salatuko zaituzten salatzalle eta testigu bearrrik izango ezta. Nerau naiz, esango du Jaunak, Juez eta testigu. Nolakoa izango da zure lotsa eta bildurra zure kontra aserretuak dauden begi izugarri aiek zuri begira jartzean, eta zure lan añ lotsagarriak argi eta garbi ikusi zituztela gogoratzean! Zer itsumena kristauarena, bere salatzalle izango zaion demonioaren aurrean, arrezkero ezertan lagundu naiko eztion guardako Aingeruaren aurrean, eta, guziaz gañ, bere Juez zorrotz eta zuzen izango dan Jaungoikoaren aurrean pekatu egitea!



EJENPLOA

Zere lanak beti zuzen egiñ nai badituzu, kontu egizu, egia dan bezela, denbora eta leku guzietan Jaungoikoaren aurrean, eta bere Ama txit santaren begien aurrean zaudela.

Egun batez Dola deritzan erriko gazte bat Birjiña txit santaren kongregazio bateko buruzagiarekin topo egiñ (*Auriem t. 1, pag 64*) eta onek kongregazioan sar zedilla, modurik egokienean konsejatu zuen, eta gazteak, bear bada, askok egiten duten bezela, debozioz baño, munduarekiko idukitzeagatik geiago artara jarriaz, ala egiñgo zuela, agindu zion, gero, Maria Birjiña errukitsuak, beste askori bezela, esku eman ezpalio, bere promes guziaz aisa eta erraz utsemateko usteetan. Ama maiteak bada, berari agertu, eta esan zion: *Esan dizutena egizu, orrekin atsegin egiñgo didazu eta nire sekulan utzi egingo ditut.*

Ditx añ andiko ikuskari eta ainbeste balio zuen promesak eziñ utzi zezakeen gaztea arritu gabe eta poz atsegin ez bete gabe. Bere ergelkeri eta lengo biziera gaiztoaz guziak txit bildur ziran; baño geroenean prueba asko egiñ ondoan, kofradian artzea merezitu zuen. Gazteak ondoren zeraman biziera onak txantxetan etzebilela eta ziñez eta benaz ondu zala, argi eta garbi erakutsi zuen, bada aurrerontzean txit zuzen eta berotasun andiaz, eta len gaitzerako bide izugarria ematen zuena bere lagunak ispi-llu izanaz bizitu zan. Txit ongi begiratzekoa da Birjiña txit santak agindu zion *Iñoiñ ere utzi egingo ditut* hura, biotz guziak beregana erakartzeko, eta Mariaren kongregazioko guziak beren asmo santuetan sendo idukitzeko nai ainbat eta geiago dan promesa.

MARIAREN ONRAN

Zernai lani asiera ematerako, eta are geiago tentazioa barrunda danean, zere barrunbean esazu: *Jaungoikoa begira dagokit.*

ESKARIA

Itzul itzazu gugana zure begi urrikaltzu oriek.

EMERETZIGARREN EGUNA

Bi nagusi serbitzearen gañean

Argi eta garbi eranzun zazu, anima kristaua, nor edo zeñ serbitu nai dezu, Jaungoikoa ala deabrua? Au ondo begiratu eta pensa ezazu, zerren biak batean sebitzea eziñ datekeana dan. Alkarrekin ongi eziñ letozkean bi etsai batean serbitzea, eta biak kontentu idukitzea, eziñ liteke. Egun batean Jesukristoren soñekoa, eta bestean Luziferrena erabiltea; gaur zenbait orazio errezatu, Meza bat enzun, edo barau bat atera, eta bigar zere zale eta deseo galgarri eragabeetara ematea, au egiaz eta begiaz Satanasen adiskide izatea, eta Jaungoikoaz burlatzea da.

Jaungoikoa serbitzeko asmo egiazkoa egiten badezu, txit laburra izango da nekea, eta sekula guzikoa ordañ-saria. Penitenziatzko urteak, eta bear bada, egunak, laburrak, eta deskansu eta gloria beti betikoak dira. Oñez gañera, sinistua egon zindeke, Jaungoikoa bezelako Jaun eta nagusi batek mundu onetako erbestean zauden artean ere eztuela utziko zuri laguntzea, biotz on eta animoa zuri ematea, eta zu maitatzea. Eta Jaungoikoa serbitzeagatik gurutzua eraman bearra badezu, jakizu, ori eramatea ditx andia dala, eta Jesukristok, iñolako gaitzgabea zalarik, zugatik eraman zuena bezañ pixua iñoiñ ere izango ezta.

Baña zere burua demonioari saldu, eta bere morrontza gogorrean jarten bazera, atsegin-kontentuak puntu batekoak, eta tormentu eta penak sekula guzikoak izango zaizkitzu. Liburuetan irakurten da, Ingalaterrako erregiñ Isabelek, hill zanean, deadar bildurgarriak ematen zituela infernuitik, esanaz: *Bakarrik berrogei urtean izan nai egingo, eta sekula guziko infernua daukat.* Gañera, mundu onetan ere demonioak bere jarraileai nai duten atsegin-kontentu guzia ematea, gauza segurua ezta. Oraingotz au zerorrek progatu dezu, eta bear bada, oraiñdik progatzen zaude. Azkenik, demonioa nagusi gogor eta izugarri bat eta guri eriozko gorrotoa digun nagusi bat da.

EJENPLOA

Baldiñ zure zori gaiztoan demonioak bere eskupean bazauzka, zoaz Mariagana, eta berak aterako zaitu aren atzaparretatik. Izan zan bere zale eta deseo eragabe batzuek koitzearren bere anima demonioari eman zion



gazte bat, (*Aurim. t. 2, pag.275*) bere agiñdupeko izatera bere eskuz firmatutako paper batean bere burua beartuaz, bere deseo lizuna betetzeko deretxa ematen bazion. Baña gero, egiñaz damututa, bere pekatua konfesatzera Ama Birjiñaren eliza batera joan zan, zernai penitenzi, zan bezelakoa zala, egiteko asmo oso betean. Konfesoareak agindu zion, absoluzioa ematerako iru egunez barau egiñ, zilizio bat jantzi eta azotaldiak artu bear zituela, Birjiñaren esku eta laguntza negarrez eskatuaz, eta bere aldetik iru egun aietan beraren izenean Meza enzungo zuela aginduaz. Au egiñ ondoan agiñdu zion, Ama Birjiñaren kapillan sartu, eta oraiñdik biziroago eska zegiola bere laguntza. Gaztea, iñolako poz gabe, negarretan urtzen zegoen, egiñ zuen papera arren eskuetara zegiola, Birjiña txit santari leiaz eskatuaz, eta beñ eta berriz esanaz Elizaren itz aiek:

Mostra te esse Matrem. Birjiña txit urrikaltsua, orañ ager zazu Ama amodiotsua zerala, ni zure seme izatearen diña ezpanaiz ere, ezpada demonioaren agindupeko. Eta orra non ikusten duen, paper hura bere eskuetan jarten. Orduan deardarka negarrari eman zitzaion, ez arrezkero damuzkoari, ezpada poz atsegiñezkoari, esker umill eta ezaguera onezkoak bere Ama maiteari ematez aspertu gabe. Gero konfesoareari paper hura eramatera lasterka joan, eta gaztearen poz atsegiñ andiaz, eta Jaungoikoak bere urrikaltasunez eta Birjiña guziz santaren bitartekotasunez barkatzen ziolako uste eta espe-ranza andiaz onek absolbitu zuen.

MARIAREN ONRAN

Biguñtasun eta debozio andiaz irutan muñ-egiozu Birjiña txit santaren imajiñari, aldi bakoitzean esanaz: *Ene Ama, zu serbitu nai zaitut, arren ez eman demonioari nigan ikustekorik izateko lekurik.*

ESKARIA

Ni, oh Ama lastana, zure agindupekoa naiz.

OGEIGARREN EGUNA

Jaungoikoagana biurtzea luzatzen dutenaz

Esadazu, pekataria, Barrunda dituzu zeregan Jaungoikoagana biurtzeko zale eta deseoak? Ziñez eta benaz ondu nai zenduke? Au eziñ uka zenzake. Baña, ori noiz izango da? Gaur bertan? Ez orren laster. Orañ eziñ dezaket, joan-etorri bat nere kontura daukat, jendearen esamesen bildur naiz, oitura au eziñ azpiratu det, griña onek nai edo ez narama, aldapa asko topatzen ditut, gero egiñgo det. Noiz? Eragozpen hura kentzen danean, griña gaiztoa oztutzean, gaztetasuna igarotakoan, edo baldiñ egiten baditut ejerzizioak, datorren urtean edo Garizuman. Ah zenbat denbora dan ori bera diozula, eta zure zori gaiztoan oraindik ezer egiñ eztezu!

Atoz ea, ori gerorako uzten dezu, eta badakizu, bear bada, Jaungoikoak itxeden naiko dizun? Eta ori eztakizula orrelako arriskuan ipintzen dezu ainbeste dijoakizun salbazioaren joan-etorria? Gizona, Jaungoikoak oraındaño itxeden dit. Berorregatik bildur izatekoa da, orrenbeste esker beltz, kunplitu gabeko ainbeste promes, eta bere urrikaltasunaz añ gaizki usatzeaz aspertuta, geiago itxedengo eztizula, Baña, Jaungoikoa añ ona da! Nai ainbat denboran izan da zuretza ona; Nork daki, bere gogortasun eta justizi zorrotza zure kontra agertzeko eguna etorria bada ere? Gañera Jaungoikoa ona dalako Bera ofenditzen jarraitu bear dezu? Au esker beltz gorrotagarriena litzake.

Infernuan dauden kristauen geienak zuk bezela luzatu zuten Jaungoikoagana biurtzea, eta beren deseo onakiñ leku artara erori ziran. Ondu nai eztet esango duen bezañ zentzu gaberik ezta. Baña orañ bertan ondu nai det ziñez eta benaz diotenak txit banakak dira. Au egun batetik besterako utziaz dijoaz, etotzen da eriotza, eta orduan ere gerorako uzten dute lan au, zerren egun artan, ordu artan gaitz artatik hill uste ezduten. Begira , bada, ea bizi guzian egiñ etzana azkeneko puntu eta instante aietan egiñalko dan, noiz geienetan Jaungoikoa, Beraz burlatu zutenaz burlatzen dan. Au ondo begiratu eta ausmartu zazu; begira onetan asko dijoakizula. Berealatik Jaungoikoagana biurtzen ezpazera, sekulan biurtuko etzerala bildur izatekoa da.



EJENPLOA

Denboraz eta mugonez ontzera saiatu diranak ere, eriotzeko orduan bildur eta laborriak artzen baditu zer izango da Jaungoikoagana biurtzea tranze añ estu eta perill andikorako uzten dutenaz? Izan zan Jakobo zeri-tzan gizon bat, (*Auriem. t. 2, pag. 317*) lurreko ondasunak biltzeko kontuzko eta gosetia bezañ zabar eta utzia salbazioaren gañeko jon-etorrian. Eta areago zana, gutiziarekiñ batera, onek erakarri oi dituen galgarri edo bizio guziak zituen. Bakarrik gauz on bat zuen, eta au Mariaganako debozioa zan, alabaña beste debozioen artean bere errosario santua egun oro errezatzen zion. Egund oietako batean, bada, au egiteko asmoan bere oratorioan sartu, eta aditu zuen itz-ots bat ziona: *Jakobo, bada zük añ zorroztz eta zearo artzen diztetzu kontuak zere etxeoai zük ere iguzketzu niri eta nere Semeari*. Itz oiek ezer askoan artu etzituen, oitura galduetara emanak dau-den guziaz gertatzen zaien bezela. Guziaz ere Ama errukitsuak gaztigu hura ostera berriturik, gizona beregan sartu, bere konzienzia arretaz begi-ratu, eta bere burua Jaungoikoarekiko zorretan guziz atzitua arkiturik, biziera trukatu eta bere bizitza añ garbi eta zuzen ipiñi zuen, non, len pekatu guziz astunak ere utsean zeuzkana gero txit kontuz zebillen, gau-zarik ariñenak ere arretarik andienaz begiratuaz, eta beti buruan erabilliaz Jaungoikoaren esan zorrotz hura; *Gauza zuzenak berak ere Nik juzkatuko ditut*. Andik aurrera bizimodu eta prestaera añ ederraz bere azken-ordu-raño joan zan, eta orduan hiltzen zegoela, ikusi zuen, nola demonio asko Jaungoikoaren tribunalera zijoazen, bere bizi guzian berak egiñ zituen pekatu larri edo mortal guziak agertuaz, eta beren gauza bezela, hura zegietela, leiaz eskatuaz. Hiltzen zegoen tristeza ikara larriak artua zegoen, bere salbazioa perill artan ikusita; baña onetan urrikaltasunaren Ama agertu eta onek san Miguel Aingeruari agindu zion, ipiñ zitzala pisuaren alde batean gizon arrek bere onran egiñ zituen lan edo obrak, eta bestean, konfesatuak zeuzkan, igaroko bizitzako pekatuak. Aingeruak ala egiñ, eta ala zorionean obra onak zeuzkan pisua beeratu zan, eta demonioak ango aldiak egiñ zituzten; gizona bere pekatuetatik libre eman zan, eta Birjiña txit amodiosuak berekiñ zerura eraman zuen.

MARIAREN ONRAN

Pekatu mortalen bat orañ badaukazu, zoaz bereala ori konfesatzera; eta Jaungoikoarekiñ ongi zaudela baderitzazu, begira zere geien galeraz-ten dizun, zeran guzi ori oso Berari ematea, eta ori luzapen gabe bereala kentzera al guziaz saia zaite.

ESKARIA

Jesus, Jose eta Maria, orizkitzute biotz eta anima nere.



OGETA BATGARREN EGUNA

Penitenziako Sakramentuaren gañean

Gaxotzen zera eta bereala sendagille edo medikua deitzen dezu, eta bereala konfesatzen etzera? Zertan dago desberdintasun arrigarri au? Zuk animakoa baño gorputzeko osasuna geiagoan idukitzean. Eta baldiñ konfesatu gabe pekatuan hiltzen bazera? Zure patu gaiztokoa! Sekula guzira-ko galdua izango zera! Bizkitartean, konfesioa luzatuaz zoazen kreduan pekatua animan geiago eta geiago sustraituz dijoa, ori oitura eta zerezko gauza bezela egitera iritxi dedineraño. Geienez ere au Pazkoaz, edo festegun andietakoren batean konfesatzeko buruzpidea artzen dezu. Eta onela, salbatuko bazera, Pazkoaz edo pest-egunen batean zu hiltzea gauza bearra izango da.

Zertako orren sarri konfesatu bear naiz, baldiñ konfesakizunik ezpa-daukat? Ah guapoa! ez orrelakorik esan. Egun oro egiten ez dituzu pekatu ariñ edo benialak? Iñoiz ere eztezu ofenditu Jaungoikoa pekatuakgatik pagakizunik eztago? Purgatorioko suan pagatu bearke dezun ezer eztaukazu? Bada sarritan egindako konfesioakiñ oso paga zentzake bizitz onetan, edo beintzat atera zentzake zorren zati andi bat. Badateke eziñ eraman dezula mantxa bat arpegian, eta anima añ mantxatua eta itsustua dauzkazula, zerutar guzien aurrean jartzeaz lotsa ez izatea?

Bearbada esango dezu: maiz konfesatzea zer dan progatu det, eta beti lena bera naiz. Baña eta ondo konfesatu zera? Baldiñ examiña, damu, propositu eta konfesioarekiñ oraindik pekatuan erorten bazera onelakorik egiten ezpadezu, zer izango da? Oh zeñ ondo kondenatu bat konfesatuko litzakean, zuri ematen zatzun denbora ematen baliote! Bear bada gerta liteke zuk ere konfesio on bat egiñ nai, eta eziñ egitea.

EJENPLOA

Bururatzaz beste.gabe Jaungoikoak txit aisa eta erraz kastiga litzakeala zure pekatuak, gerora begira egongo etziñake, konfesatzeko. 1611en urtean bizi zan Mejikun, (*Aurriem. t. 1, pag. 58*) gazte bat, nor, Birjiña txit santaren kongregazio batera askotan joan oi bazan ere, lagun gaizto batzuek pekatu mortal bat egitera mugierazi zuten. Zeñ egun, ordu, eta zer lekutan lan gaizto hura egiño zuten, alkar aditu, eta pekatu hura egi-

tera lagun aiekiñ zijoan. Baña begiaz joa zeukan, eta gazte au beretzat nai zuen Birjiñak mesede andi eta señalatu baten bidez pekatu egitetik libratu zuen, ara nola. Arpegi txit grabe eta errespeto andiko gizon bat (uste danez gazte aren guardako Aingerua) bidera irten, eta onek, beste gañerakoak ikusi gabe, beragana alderatu, eta esan zion: *Eta kongregaziokoa zeralarik, gaiztakeri ori egitera zoaz?* denbora berean kordea galduta, lurrera bota zuen kolpe andi bat bularrean emanaz. Lagunak lasterka beragana joan, lurrean zetzan lekutik altxa, bere onera erakarri, eta zer izan zuen, edo zer senti zuen, galdetu zioten. Lagun oiek, beste gauzatan burua bazeravilden ere, beren adiskidea zalako, gazte au eliza batera eraman zutern, eta konfessore bat an billatu, eta bertan utzi zuten. Gertakari guzia konfessoreari kontatu, eta negar goriak ixuriaz, konfesatu, eta biziera santu berri bat ordutik artu zuen. Esku bedeinkatua, kolpe bakar batez damu egiatzkoa eman, pekatuan erortzetik libratu eta salbazioko bidera erakarri zuen esku.

MARIAREN ONRAN

Arretaz eta kontuz begira zazu, ea gauza bearren bat zure konfesioetan palta ote zatzun, eta saia zaite ori zuzentzera.

ESKARIA

Jainkozko graziaren Ama, erregu zazu gugatik.



OGEITA BIGARREN EGUNA

Komunioko Sakramentuaren gañean

Oh zenbat Jesukristok Aldareko Sakramentu adoragarrian onratzen eta goratzen nauen! Sakramentu onetan egiten da nere adiskide, eta ostalari, eta nere animaren esposo; ematen dit jateko bere aragia, eta edateko bere odola, eta mudatzen nau Bera izatera, era miragarrian. Eliz, aldare, kaliz eta patenak baño oraindik sagraduagoa da nere bularra, eta esan liteke zeru bat dala nere anima, zerren gloriako Erregea bertara datorren.

Baña nik, ai eta zenbat Jaun au desonratzen dedan, Bera artzen dedan guzian! Izanik nere animaren esposoa epeltasunik andienaz artzen det Jaun au, edota bereala uzten det, bear bezela eskerrak eman gabe, edo, bear bada, beragandik iges egiñ eta uzten det. Desprezio andiagorik eziñ datekeala, dirudi. Eta menturaz au baño aurrerago igaro da nere saldukeria, pekatu mortalean ao sakrilegoan Bera artuaz, infernuko sugarretan berarizko bizilekua dan bular ats batean Bera artuaz.

Baldiñ nere suerte onez iñoiz edo berriz ondo prestatzen banaiz, zer grazi eta mesede señalatu nere gañera ixurtzen dituen! Griña eragabeak ezitzeko grazia, munduaren lausenga engañagarriak ezagutzeko grazia, eta beretatik iges egiteko grazia. O bizitzako ogia, martiriak indartu, birjiñak santifikatu eta Santuak koroatu dituen ogia!

Guziz zentzugabea naiz grazi añ maitagarriaz probetxatzen ezpanaiz, eta egiaz orañ, au ondo begiratzen dedanean ezagutzen det nere zentzu laburra. Nondik dator ni tentazioetan añ erorkor izatea, eta birtutearen bidean nik pauso bat bera aurrera iñoiz ere ez ematea? Sarriago eta berotasun andiagoz ez komulgatzetik, eta fedeak eskatzen duen begiramentu eta debozioaz elizetan ez egotetik. Gauza segurua da, Jauna artzearen diña ez naizela, baño zergatik saiatzen ez naiz, nere burua orretarako diña egitera, biziera on eta zuzen baten bidez?

EJENPLOA

Birjiña txit santak beraizko konru eta arreta dauka bere debotoak sakramentu gabe hill ez ditezen, 1621en urtean bizi zan Lovainan, (*Auriem. t. 2, pag. 262*) Maria biziro maite zuen Sazerdote bat, eta au gaitz estu batek artu zuen. Gaitz hura eriozkoa zala, Medikuak uste etzuten;

baña berak bere arreba bat deitu, eta Elizakoak erakarri zegiozkala, oni esan zion. Etxekoak orretara nai etzuten, peribulurik etzegoela esanaz. *Ez ori egitea luzaerazi, esan zien gaxoak, bada urruti dagoela zuek uste dezuten erioa, txit aldean da; bi orduko bizia ozta geratzen zat.* Etxekoak aditzen zutenaz arri-tuak bazeuden ere, añ azkenetan zegoela, eziñ sinistu zuten, eta mandatuua añ laster parrokiara bialtzeko atzera zeuden. Sazerdote gajoak au ikusita, gertatzen zitzaiena argiroago azaldu zien, esanaz: *Ez geiago luizatu, denbora laburraren epean hiltzera noa ta: Birjiña txit santa agertu zat, eta zerura joateko presta nadilla, eta orretarako lenago komulga nadilla, esan dit.* Arreba parrokoa deitzera bereala joan, gaxoak debozio andiaz Sakramentuak artu, eta Birjiña guziz santak esan zion bezela, andik bi ordu justuetara bere eza-guera osoan hill zan.

MARIAREN ONRAN

Gaur edo bigar eziñ komulga bazindezke, beintzat gogoz edo deseoz komulga zaite Mariaren onran, eta lengo komunioetan egiño zinduen utsaldi edo paltak nolerebait ordañtzeko asmo edo deseoz.

ESKARIA

Adoratzen eta bedeinkatzen zaitut, Jauna, Sakramentu txit santuan.



OGEITA IRUGARREN EGUNA

Zeruko ixill-mandatu eta argien gañean

Milla modutako ixill-mandatu eta zeruko argiaz otsegiten dizu Jaungoikoak, dala barrungo bultzada indartsu, eta betiko egien ezaguera argiaz; dala adiskideren baten konsejuen, edo konfessore baten gaztiguen bidez; bai erri guziaren lazerien bidez; bai predikariaren ots indartsuaren bidez, bai liburu birtutekoaiak irakurtearen zerekin. Jaungoikoagana bihurtu dan pekatari bat, dirudi ojuka dagokizula: *Truka zazu bizjiera ori*. Supituko eriotz batek esaten dizula: *Konfesa zaitte*. Barrunen beti daukazun sosegu txarrak: *Utztazu oitura galgarri ori*. Eta, bear bada, Birtutearen ezitasunetik zerbait inoiz progatu badezu deadar egiñgo zenduen: *Oh gauza zehñ gogo eta atsegiña dan Jaungoikoa serbitze!*

Jaungoikoa nai ainbat eta geiago egiten du guri otsegiteaz, bere otsari obeditzea dagokigu guri. Jaunaren espiritua da egiaz argi ematen duen argia, ongirotzen duen intza, sendatzen duen medikua; baña sendatu nai duenari bakarrik ematen dio osasuna; intza artzako zabaltzen diran biotzak bakarrik ongirotzen ditu; zuzentasunezko Eguzkia ikusteko beren gogoz begiak ixten ez dituzten animai bakarrik ematen die bere argia. Graziak beti salbazioa billatzen eta eskatzen du; baña berari gogor egiten diona salbatzen ez; gu santu egiñ nai ginduke; baña ez bortxaz. Onen erara zer esango degu sermoietatik, konfesiotik, liburu onen irakurtzetik, igeska dabiltzanaz, zerren zorrotz itzegiten diezaten, edo damutzera mugierazitzen dituzten? Au desobeditzea ezezik, Espiritu Santuaren kontra altxatzea ere da.

Jaungoikoak otsegiten digu: ai gure galdubear tristeak bere deiai eranzuten ezpadiegu! San Mateo, Jesukristoren deia aditu ez al zuen, Berari jarraitzeko bereala altxa zan, eta publikano edo petxa-biltzalle zana, apostolu egiñ zuten. San Pedro bere Maisu maitearen begiratu bakar batez negar miñari eman, penitenziara mugitu, eta santu andi izan zan. Baña Judas, ez gatziguak, ez barrungo kezka eta imurtziak, ez ongite eta mesedeak bigundu zuten, eta zer suerte izan zuen? Zori gaiztoko eran hill, eta kondenatzea. Zeregandik bota zenduen lenengo argi hura, edo orañ bertan barrunda dezuna, badateke Jaungoikoak egiñ nai dizun azkeneko grazia señalatu izatea. Bizibide edo estaduren bat artzera Berak deitu eta bereala baietz eranzuten ezpadiozu, bear bada orrek gogoan jo eta geiago deituko ez tizu. Zer izango da onen ondorea? Zuk autuko dezula, ez

Jaungoikoak nai duen bizibidea, ezpada zuri bururatzen zatzuna; eta begidana zer orduan zuzaz izango dan.

EJENPLOA

Suerte onekoa, Jaungoikoaren deiari bereala eranzuten diona! Au txit ondo progatu zuen Bolonian Mariaren kongregazioko gazte batek. Egun batez kongregazioko buru-zagia billatzera joan, eta bere biziera zuzentzeko zeukan deseo irazikia oni agertu zion, bere konsejuaz lagun zegiola, denbora berean erregutuaz, zerren, *nork daki, Aita*, gañera esan zion, *supitoan hilko banaiz ere?* Itz oiek esatean agertu zuen bizitasun, eta ixuri zituen negarrak bere borondatea txit sendo eta eragillea zalako señaile agiri eta segurua ziran. Konfesoreak konseju txit on eta osasungarriak eman ziozkan, eta, bestean artean, gutxienez jai egunetan konfesatzekoa. Guzia egitekoko asmo erabakia egiñ, eta biotz andiaz bere biziera berriari asiera eman zion. Orañdik bi illabete igaro etziran, eta orra non, eri eta gaxoak sebitzen ospitalean egon, eta bearrekoen artean limosna andi bat zabaldu ondoan, bazkaldu, eta sala batean sartzeko ustean joan zan, eta oña atean ipiñi zuen bezela, txarraldiak eman, eta eseri, eta Jesusen eta Mariaren izen ez titsuak aoan zituela, bereala hill zan.

MARIAREN ONRAN

Orañ hiltzeko bazeunde zer miñgarrien izango litzaizuke? Bada ori, dana dala, bereala zuzen zazu, Mariaren esku eta laguntza eskatuaz.

ESKARIA

Erakus zadazu, Ama maitea, nola egiñgo dedan Zuk naizuna.



OGEITA LAUGARREN EGUNA

Pekaru ariñ edo benialaren gañean pensatzeko bidea

Pekatu beniala gaitz txiki edo ariña da; au erraz eta aisa esan oi da; baña inoiz ere ezta gaitz txikia, Jaungoikoa gogoan jotzea. Jaungoiko añ andi batek, Aita añ on batek, Esposo añ garbi batek, Erredimitzalle añ errukitsu batek merezi du, bear bada, berari txarkeri bat egitea?

Gutxi irudituko ote lizazuke mundu guzia auts biurtua geratzea, edo zeruak goitik bea jotzea? Bada paregabe gaitz andiagoa da pekatu benial bakar bat, zerren Jaungoikoari egiten zaion txarkeria dan. Supitoan eta oarkabean pekatu egitea, txarkeria da; baña gezur hura, desobedientzi hura pekatu benial bat dala, ezagutu, eta guziaz ere bere egiñ nai izatea, da esaten balitz bezela: *Jaungoikoa baño pekatua gogokoago zat*. Onela infernuri ezpaltiz, erraztasun berarekiñ egingo zenduke zernai gaiztakeri, alabaña ikusten da kontu gutxiago egiten dezula Jainkoaz.

Baña aurrerontzean onela bazoaz, goiz edo berandu eroriko zera pekatu mortalean ere. Zenbat denboran bizi naiko duela uste dezu Jainkoak Bera añ gutxi maite duen anima batekin batua? Eta gero ezagutzen eztezu, egunetik egunera aulduaz dijoazela zure indarrak, eriotzak eta infernuak len bezela bildurtzen etzaitzela orañ, eta Jaungoikoa zugarrik urrutiratuaz dijoala? Askotan pekatu mortalaren mugetan arkitzen zera, eta muga oriek igaro badituzu ere eztatizu. Nork daki askotan ala izango ote dan? Beti leize ondogabearen ertzean zaudela salbatu nai dezu?

EJENPLOA

Dala pensatu gabez, edo edade txikiagatik ariñak irudi litezkean zenbat uts edo paltak, guzi orrez ere Jaungoikoa eta bere Ama txit santa gogoan jotzen dituzte! Donaiko erri andian dagoen san Pedroren elizan kanpoko aldetik Mariaren imajiña bat zegoen, (*Auriem. t. 1. pag 44*) eta andik igarotzen ziran persona batzuek berari errezatzen geratu ziran garaian, mutiltxo batzuek zabaltasun guziaz jostatzen an asi ziran. Birjiña guziz santak berari zitzaion begiramentu laburra zeñ gaizki erorten zitzaion, agertu nai izan zuen, eta ala, imajiñak, mugitu, eta jostatzen zebiltzanai erriertan emateko bezela, besoa goratu zuen. Bertako batzuek,

bear bada nabarbenenak, au ikusi, eta lagunai esan ziezaten: *Eztezute ikusten, nola Birjiñak besoa goratu duen eta kastigatu nai gaituen, emen jostatzen geratzen?* Guziak izu laborriak artu, eta gertakari hura beren gurasoai kontatzen lasterka joan ziran, eta ordu erdi bat baño len leku artara jendetza andia batu, eta jende birtutekoi hura gazteen begiramentu txarraren barkazioa eskatzera ondorengo zortzi egunetan leku artara joan zan; eta Ama maiteak bere aserrea gozatu zitzaiola, aditzera emateko, egun aietan mirari asko egiñ zituen.

MARIAREN ONRAN

Elizan beste inon ez bezelako modu on eta begiramentua, Mezak diraun artean begiak lurrera begira beti idukiaz.

ESKARIA

Oh Jaungoikoaren Ama, nere pekatu guzien barkazioa iritxi zadazu.



OGEITA BOSTGARREN EGUNA

Purgatoriaren gañean pensabidea

Purgatorioan zer dago? Zer? Jaungoikoaren Justiziak irazekitako su bizia. An Jaungoikoa maite da, eta Jaungoikoak kastigatzen du; Bera ikusi nai, eta eziñ ikusi da; zerura joateko puntu edo garaiaren begira egon, eta noiz au iritxiko dan jakiñ ez; munduan dauden tormentu guztiak baño paregabe portitzagoak daramazkite, baño bortxaz, iñolako irabazi eta ordañ-sari gabe. Egia bildurgarria! Presondegi bat bururatze utsak oso goibeltzen gaitu. Iñolaz ere purgatoriora joango gera, eta orrez konturik egiten eztegu.

Zergatik dijoaz anima asko purgatoriora? Moja bat, zenbait itz alper koruan esan zituelako, joan zan; Erlijosio bat, salmoen azkenean *Gloria Patri* esatean burua makurtu etzuelako; donzella santa bat, ostiral egun batez alegiñ eragabeaz garbitu zalako; san Pelegriñ eta san Pascasio, kulpata txit ariñakgatik; san Valerio bere illoba bati geiegi nai izan ziolako; predikadore santu bat, berak eskribitzen zuenari eder zerizkiolako; eta onela beste asko eta asko. (*Catan, Buen, muert. p. 2, disc. 26.*) Zer izango da zuzaz, orrenbeste kolera, orrenbeste desobedientzi, elizetan egiten dituzun baldankeri, zure egiñkizunetako zabarkeri, itz alper, apañdura eragabe, eta urkoaganako ongina eta amodioaren paltarekiñ? Eta oraindik eztaukazu oriek kentzeko asmo egiazkorik?

Zenbat denboran daude zenbait purgatorioan? Zenbatean egongo zera zu? Pekatu benial bakoitzari eman zaiogun egun bateko purgatorioa, eta kontu egiñ dezagun egunean ogeita amar uts edo palta egiten dituzula. Eta orrela, bizitzako egun bakoitzak ogeita amar eguneko purgatorioa mereziko du, urte bakoitzak ogeita amar urtekoa; berrogei ta amar urteko biziak, milla ta bosteun urtekoa, irurogeikoak milla ta zortzireunekoa. Jaungoiko santua! Zor zeñ andi eta ateratzen gaitza! Egotzi zaizkietzu pekatu ariñ edo benialai, egiñgo zinduen zenbait mortal, barkatuak, bai, baño penari dagokionez oso pagatu gabeak; zenbat euneko urte geiago purgatorioan! Baña zuk oriek erraz gutxitu zintzake bizitz onetan zenbait gorputz-nekagarri edo penitentzi, eta beste lan onak egiñaz eta induljentzi edo barkazioak irabaziaz. Eta añ zabar eta ajolkabe biziko zera?

EJENPLOA

San Bernardoren Erljioko Rainero doatsuari igaroko bere bizierak kezka andia ematen zion, zerren bere kulpak eta oiegatik zor zuen pena Jaunak barkatu ote ziozkan, etzekien, eta beti Ama Birjiñari erreguka zegokion, arren bere animaz kupi zedilla. Beñ batez orazioan zegoela, Jaungoikoagan gozotoro kordea galdu, eta ikusi zuen nola Ama Birjiña bere alde erreguka zegoen, Jaunari eskatuaz, eraman zezala aren anima purgatorioa ikutu gabe zerura, bere pekatu guziaz oso damutua zegoela, eta bear zan penitentzia egiñ zuelata: eta Semeak oni eranzun ziola: *Ene Ama, guzti zure kontura uzten dizut.* Nork ager lezake, onelako gauza bat aditzean Rainerioren poz atsegiña? Andik añ banakak libratzen diran purgatorioaren zer bildur iduki zezakean Maria txit santaren eskuetan zegoen ezker bere joan-etorria? Onegatik bera bere biziera santuan izpirik lasaitu etzan, baizik oraindik berotasun andiagooz saiatu zan lan onak egi-tera, Ama bedeinkatu arrek pena izugarri aietatik libratzea onela merezi-tuaz, bera maite duten seme-alaba guziakiñ egiten duen bezela.

MARIAREN ONRAN

Maria txit santari geien nai dion purgatorioko animagatik iru *Aita gure* errezatzea.

ESKARIA

Erbesteko bizitza onen ondoren erakus zaguzu zure sabeleko frutu bedeinkatu Jesus.



OGEITA SEIGARREN EGUNA

Aurtxo Jesusen gañean pensatzeko bidea

Begira ondo Aurtxo jaungoikozko aren pobreza. Guzia palta zaio. Palta zaio etxea, eta estalpe txar batera baztertu bearra du. Palta zaio oia, eta ganbela batean, lasto pixka baten gañean etzan bearra du. Palta zaio beroa, eta bi aberek beren arnasaz berotu bear dute. Jesus añ beartsu eta pobre, eta ni guzia ugari eta naierara idukitzeko zalez eta deseoz igartzen!

Begira gero bere eramankizun gogorrak. Gorputz añ biguñ eta sentikor batek zer otz gogorra sentituko etzuen urtemuga añ gogorrean? Zeñ narrugorrian zegoen ganbela triste artan etzanta? Eta guziaz ere esparik agertzen eztu, eta ezer sentitzen duelakorik aditzera ematen eztu; eta nik atsegiñ-kontentuen alaingo eresia?

Azkenik, begira bere umillatzea. Nola Jaiotzen da Jaun au? Gaueko ixiltasunean, eta iñork gutxien ezagutuko zuen leku batean. Nork serbitzen du Jaun au? Serbitzaririk eztauka: bakarrik bere Aita eta Ama dira laguntzen diotenak. Nori ematen zaio ezagutzera? Arzai triste ezjakiñ batzuei. Zer itxuratan sartzen da munduan? Gau batez bederik iñork bere etxean karidadez artu nai eztauen eskale baten itxuran. Badateke? Jesus añ umill eta ni añ arro, puztu eta guztiak burua makurtzearen zalez nagoena izatea!

Atoz, kristaua, Salbatzallearen zulo triste onetara, juzkatua izan zaiten; estrabi arrek eta lasto aiek eziñ eman lezakee ontzat zure biziera.

EJENPLOA

Zazpi urteko neska txiki bat, (*Auriem. t. 1, pag 131*) Jesusen edertasun eta grazi zoragarriak adituta, Bera ikusteko zale eta deseotan irazeki zan. Gaxoak al zuen moduan Maria txit santari eskatzen zion, arren ere beñ bederik aurtxo Jesus erakustez mesede egiñ zegiola: baña nola berak eskatzen zuen mesede txit banaketako eta oi ez bezelakoa baizan, berealakoan aditua izan etzan.

Eskari au egiñaz aurrera zazpi urtean joan zan, denbora berean bere biotza eritu zion Esposo jaungoikozkoaren amodiozko aktoak egiñaz. Amodiozko eridak, Gurutzeko san Juanek esan oi zuen bezela, maitearen aurrean ezpada artzen eztera, aur au, beti Mariaren atzetan deika zegoen;

bere animak alaingo egarri biziaz deseo zuen Aurtxo Jesus ikustearen on eta mesede paregabea artzeko. Geroenean Eguerri gau batez zori oneko suerte au izan zuen, bada, bere oratorioan orazio irazekian, zale eta deseo onetan beregandik irtena bezela zegoela, Ama bedeinkatua Aurtxo besoetan zuela ikusi, eta aditu zion, berari esaten: *Ea, ene alaba, ar zazu, eta berarekiñ gozarotu eta erregala zaite*. Suerte oneko donzellak bere hura artu, eta besoetan zedukala, aurrak galdetu zion, ea bera maite zuen. Bai, Jauna, bizi maite zaitut, eranzun zion. Zenbat ordea? Jesusek esan zion. Nere burua baño geiago, neskatzak eranzun zion. Egi egiaz maite nazu? Aur bedeinkatuak osteria esan zion. Nere anima baño maiteago zaitut, eranzun zion. Berriz ere Aurrak galdetu zion: Zenbat maite nazu? Orduan neskatxak deadarka esan zuen: Jauna, nik eztakit zer esan: nere biotzak itzegiñ beza. Amorio añ irazeki baten indarra eziñ geiago sufritu al izan zuen, eta suerte añ oneko ikuskari hura ezkerro geiago eziñ bizi zitekean; eta ala, amodioaren indarrak bularra idiki, eta ber anima Mariaren eskuetan eman zuen, eta Aingeruen musika zoragarrien artean eta Aurtxo Jesus eta bere Ama lastana lagun zituela, berakiñ zerura eraman zuten.

MARIAREN ONRAN

Kartak, edo zernai paper eskribitzera zoazenean, itz guziz eztitu oiek asieran ipintzeko oitura ederra ar zazu, au da: Bizi bedi Jesus, bizi bedi Maria, edota lan guzian asieran itz berak esatekoa, ere lan eta joan-etorri guzietan beren laguntza eskatuaz.

ESKARIA

Eta munduko deserri onen ondoren ikus erazi zaguzu zure sabeleko frutu bedeinkatua.



OGEITA ZAZPIGARREN EGUNA

Jesusek gazte zala eman zizkigun ikasbide edo fejenploen gañean

Jesusek gazte denboran Mariak eta Josek agintzen zioten guzia egi-ten zuten. Jaungoikoa bere kreaturen agindura jartzea! Eta zertan? Beargai eta lan zirzilletan; olak zerratzen, etxea garbitzen, eta oien gisako bestee-
tan, guzi hura zurgin edo arotz beartsu baten semetzat iduki zezaten, eta guri ikasbidea onela emateagatik. Eta nola obeditzen zien? Guzian beren agindura egonaz, eta guzia laster eta gogoz eginaz. Oh nola Berak egin zuenak gure desobedientzi kondenatzen duen!

Jesus urteetan aurreratuaz zijoan kreduan birtuteetan aziaz zijoan Jaungoikoaren begietan ezezik gizonen begietan ere, guk ere gere esan-eginakiñ lagun urkoari gero ta ejenplo ohea emanaz joan bear degula, guri erakusteko. Baña, begira bedi, lenago agertzen dala santu Jaungoikoaren begietan, gizonen begietan baño, gere lenengo kontu eta arreta Jaungoikoari atsegin egiten ipiñi dezagun. Zeñ txartxat Jesusen egiteko moduak nerea ematen duen! Nola birtuterako nere atzerapen, nere ejenplo gaizto, eta esamesaren bildurrak kondenatzen dituen!

EJENPLO

Santo Domingoren Ordenako monja Paradisoko Dominika Jesusen antzera gaztetandik guziz esangille izan zan, eta onegatik, Birjiña txit santagandik mesede asko eta señalatuak artu zituen. Bere bizitzan kontaktzen da (*Aurriem. t. 2, pag 321*) ezen oraindik aur zala, Aingeruen Erregiñak beragana agertu, eta eman ziozkala ondorengo konsejuak: Zere amari ondo obedi zaiozu, (ordurako Aita mundutik joan zitzaion) etxean guziaz begiramentu eta umiltasun andia ager zaiezu; guziakiñ pakean bizi zaite eta erroidurako eta aserretzeko biderik inoiz ere etzazu eman; gezur bat esan baño len ipiñi bear dezu ikatz sutu bat mingañean, gutxi itzegizu, zerura begiratzeko begiak zabal iduki itzazu; baña lurreko gauzetarako itxi itzazu; inor ez ikutzeko konturik andiena iduki zazu, ezta zere burua ere, eta zere gorputzeko alderi ez begiratu; zernai pekaturen itzaletik ere iges-egizu, eta guzian zuzen joateko, ez ezer egin, lenago Jaungoikoarekiñ egon gabe. Aur gaitz gabea, konseju oiek artu, eta ziran guziak arira bete-
tzen berealati asi zan: arpegia garbitu bear zuenean, eskuiko eskua zapi

batean bildu eta arpegia eta beste eskua onela garbitzen zituen; bera baño elduago zan aizpa bati burua garbitzeko lekuri sekulan eman nai etzion, arik eta egun batez, onek artara beartua, Birjiñari bere konsejua eskatze-
ra joan zitzaioneraño. Ama maiteak esan zion, añ geiegiraño bildurti etze-
dilla izan, eta gauza bearretan inolako uzkurtasunik bere aizpari ager etze-
giola, zerren gaztigu edo konsejuak eman ziozkanean, bere intenzioa orrela egitekoa etzan. Aurrerontzean ala egin zuen. Andik lasterrean Constanza zeritzan bere amak soñeko baten gaia eman zion. Alaba zer egin etzekienean geratu zan, zerren batetik, guzian amaren esana egin zezala, Birjiñak kontuan ipiñi zuen; eta bestetik soñekoa ebakitzen eta jos-
ten ere etzekien. Zalanza onetan Jaungoikoaren Amagana bidegin, eta Ama maiteak, beragana agertu, eta soñekoa nola egin erakutsi zion. Nere Ama laztana, neskatoak esan zion, beraren esana arretarik andienaz adi-
tzen zegokion bitartean, *Zuk ematen ezpadiozu asiera, sekulan ikasiko ezte.* Orduan, *garbi eta gaitz gabeakiñ tratatzen duena dala*, beraz eskribitua dagoen arrek guraizeak artu, soñekoa ebaki, eta josteari asiera eman zion. Bakarrrik onekiñ neskatoak baserritar gajo bat zalarik, jostunaren beargintza añ ederki ikasi zuen, non inguru aietan bere parekorik etzuen. Eta nola, añ gaztea zalako, oraindik guraizeak eziñ ondo erabilli baizituen, Birjiña txit santak eskuak bedeinkatu, eta esan zion: *Esan dizudan guzia orañ egizu*; eta orduan begietatik galdu zitzaion. Nor arritzen ezta, eta nork alabatuko ezta Erregiñ guziz estitsu onen gozotasuna? Eta nork ikusten ezta, baldin Dominikarekiñ Amaren beargaia egin bazuen, bere obedi-
tziaren ordañ sarian izan zala?

MARIAREN ONRAN

Ez beñere alperkerian egon, eta egiñkizunik ezpadezu, on izango da Mariaren alabanzak dakaizkien liburuen bat irakurtea.

ESKARIA

Ager zazu nere Ama zerala.



OGEITA ZORTZIGARREN EGUNA

Jesukristok eremuan eman zizkigun ikasbide edo ejenploen gañean

Salbatzalleak bakar bakarrik eremura joanaz, bakarreko eta ezkutuko biziera maite izaten erakusten digu. Bera lausenga zezakean ezeren, bera engaña zezakean lagunen, bera gaizto zezakean izketen, eta bera erori erazi edo berenganatu zezakeen kreaturen bildurrik inon ere etzeukan; eta guziaz ere munduko iskanbillatik aldegiñ, eta eremura baztertu zan. Eta nik, añ ergel eta erorkorra naizelarik, txoratua geratzeko begiratu bat asko zadalarik, inñolako begiramentu gabe beti jende artean sartu eta kreaturakiko itzketa eta tratabidea billatzen det.

Salbatzalleak eramuan barau gogor batekiñ aragia nekatzen edo mortifikatzen erakusten dit. Beste zertarako egon bear zuen berrogei egunean beren gauakiñ aoan ezer sartu gabe, lur otzaren gañean lo egiñaz, eta larrabereen artean biziaz, bere aragia guzian espirituaren agiñdura zegoen, eta bere Majestadeak inñolako pekatuak eziñ egiñ zezakean ezkerok? Baña, ai, eta zer desberdintasuna, garbitasuna bera dan Jaunaren, eta ni bezela pekatuan sortua, pekatua makurtua, eta, bear bada, orañ bertan pekatuan dagoen kreatura onbear triste baten artean? Berak berrogei eguneko barau gogorra egiten du, eta nik ozta eta eziñ bestez ateratzen ditut Eliz Ama santak agiñtzen dizkidan barauak. Edo beintzat bilatzen ditut oriek zerbait arintzeko apukoak.

Salbatzalleak eremuan beti orazioan egonaz, lan santu au zeñ askoan iduki bear dedan, erakusten dit. Baña gure Jauna zeren bear zan? Ez graziaren, zerren ori eziñ galdu zezakean; ez birtutearen, zerren birtute guziaz gañez egiteraño betea zegoen; ez jakiñtasunaren, zerren Jaun au Aitaren jakiñduria bera dan. Ni, ni naiz bear eta premiz betea. Eta guziaz ere, zer miñgarria! nere orazioak txit laburrak dira, alde-aldean bortxaz bezela egiñak; beti oarkabetua egonaz eta inñolako bildutasun eta debozio gabe.

EJENPLOA

Txit atsegiñ zaio Maria guziz santari bere onran, edo on eta mese-deak berari eskatzeko egiten zaion orazioa; eta agitz atsegiñago zaio den-

bora berean guk gere aragi lotsagabea nekaerazi edo mortifikatzea. Zerdeñan amabi urteko donzellatxo bat bizi zan, eta Mariari jaiera andia zion bere amak, egun oro Errosario santua errezzatu eta larunbatean barau egiñ zezala, biziro enkargatzen zuen. Errezatzeari zegokionez, amari obeditu zion; ez ordea barauari zegokionez. Ama leiatzen zitzaion, esanaz, astean egun batez barautzea gauz andia etzala; baña alaba ukatzen zan ori egitera, beste askok egiñ oi duten bezela, nai etzuela, esan bear zukean lekuan eziñ zuelako apukoa emanaz; arik eta gau batez, lo zetzala, ber ize-naz deitzen ziotela, aditu, esnatu, eta ikusi zueneraño nola Birjiña txit santak itzegiten zion, esanaz: *Larunbateko baraua atera zazu, zure amak konsejatzun zaituen bezela, eta ori egiten badezu nik lagunduko dizut zere premi orduetan.* Itz oiek adituta, bereala oietik irten, eta gau guzia asmo eta propositu santuak egiten igaro zuen; bere barauari asiera eman zion, eta orren ondoreak argi eta garbi agertu zuten berak ikusi zuena engañu eta irudipena etzala, zerren usadio santu au ogeita amau urtean gorderik, gertatu zitzaizkion bear eta premi guzietan Birjiña txit santaren esku eta laguntza progatu zituen. (*Aurriem. t. 1. pag 204*)

MARIAREN ONRAN

Alik bakarren eta bilduen bizitzea, eta isillik egotea, batez ere elizan, eskolan eta bakoitzak bere egiñkizunetan.

ESKARIA

Ipintzu, oh Ama lastana, nere ezpañak isill idukiko dituen zaitzalle bat.

EJENPLOA



OGEITA BEDERATZIGARREN EGUNA

Jesus gurutzefikatuaren gañean pensabidea

Begira, anima nerea, Jesukristo gurutzefikatuagan Jaungoikoaren ontasuna. Aitak ematen du sakrifiziora bere Seme Bakarra, eta Semeak ofrendatzen du bere burua, zure salbazioagatik. Zu salbatzeko bere odol txit preziotsuaren tanto bat asko zan, baña bere ontasunak guzia isurtzea nai du, et guzia ixurtzen da. Onginai eta amodioan Bera berdindu duenik izan ezta, eta sekulan inork berdindu eztu, bere adiskideakgatik dolore, tormentu eta desprezioen eramatean.

Baña Jesukristo gurutzefikatuagan Jaungoikoaren justizia ere begira zazu. Nola da, Jaungoikoaren Semea eriotzera, eta gurutzeko eriotzera alere, emana izatea? Munduko pekatuakgatik. Baña pekatu oriek bereak ezpaditu arren! Anbat da, diran guziak bere gañ artu ditu, eta oriek pagatu bear ditu. Baña garbi eta inñolako gaitzgabea, eta bere izatez santutasuna bera bada! Anbat da, besteren pekatuak bere gañ dauzka, eta gurutze batean ipiña izateko ori asko da. Baña eta Aitaren Seme Bakarra bada! Ezta ezer pekatariaren soñekoa artu du? Bada bi lapurren erdian gurutzefikatu izan bear du; bere Aitak ere utzi bear du, eta munduko gaizkilleen andiena balitz bezela hill bear du. Oh pekatuaren izugarria! Oh santutasun azkengabearen borreroa! Oh mostru gorrotagarria!

Emendik ikas itzazu nere anima, balio txit andiko egia bi zure onerako. Lenengoa: zere salbazioa askoan idukitzea. Nai edo ez guziz asko balio duen gauza da zure salbazioa, bada beragatik Jaungoikoaren Semea gurutze batean hiltzeraño iristen da. Bigarrena: zere burua galtzearen bildur andia. Ai zure errukarria, baldiñ kondenatzen bazera! Alabaña, Jaungoikoaren justiziak orren gogor kastigatzen badu Jesus txit garbi eta gaitz gabea besteren pekatuakgatik, zer egiño du zurekiñ, zerorren ainbeste pekatu añ astun eta txit oartua zaudela, egiñ dituzunak kastigatze-ko? Oh nere Jaungoikoa! zure odol txit preziotsuaren merezimentu neurrigabeagatik umiltasunik andienaz eskatzen dizut, arren barka zaizkidatzula nere pekatuak guziak! Oh Jesus ona! zure pasio eta eriotz sagraduagatik salba nazazu, eta biziak diraukidan artean begira zadazu beti begi urrikaltsuaz.

Gizon odoltzale eta pekatu izugarritz bete bat, erremedioaren zerbait esperanza iduki zezan, erregu eta leia asko egiñ ondoan nolerebait ipiñi zuen bere emazteak, beintzat larunbatean barau egitera, eta ikusten zituen, Birjiñaren imajiña guziaz Ave Maria bat erreztatera, penitentzia egitera inñola ere jarri nai etzuen ezkerro. Eta debozio au bere emaztearen esanera jartzeagatik bakarrik asi bazuen ere, emendik bere zoriona etorri zetzai. Egun batez, bada, bidez zijoala, nekeak easan, eta eliza batean sartu zan, eta zerbait arnas artzen zuen garaian besoetan Aurtxo Jesus zedukan Ama Birjiñaren aurrean inñolako jaiera eta debozio gabe Ave Maria erreztatzen asi zan; baña bere bideari ekiteko, andik irtetera zijoala, Aurra zauri edo lлага berriz estalia eta odolez bete zegoelakoaz oartu zan. Onelako gertakari batek biziro arritu, eta bildurtu, eta Amari galde-tu zion: *Andrea norre orren gaizki tratatu du zure Semea? Zuk, Birjiñak erantzun zion, zure eritu eta puskatu dezun nere Semea, eta Jaungoikoaren Semea, zere pekatuaz.* Itz oiek aditu zituen bezela, gizonak negar miñari eman, eta suspiro eta sotiñ tristeak egiñaz, bere pekatuen barkazioa iritxi zegoia, pekatarien gordelekuari eskatu zion. Zeruko Erregiña barkazio au eskatzen berealatik asi zan; baña Aur jaungoikozkoak bere Amaren erreguak enzun nai etzitelakoa egiten zuen. Ama errukitsuak bere erreguak leia andiagotaz berritu zituen, eta geroenean, (zer uka zegoiekan bere errai txit garbietan bizitu zanak?), Jesus txit maitagarria biguñdu, eta Amak eskatzen zionera jarri zan. Atoz, orduan Amak pekatari damutuari esan zion, *atoz eta muñ-egiezun nere Seme maitearen lлага sagraduai.* Gizonak orduan, gorputz guziko ikarak artu, eta negarrezko erreka zeriola, Aurtxoagana alderatu, eta bere llagai muñ-egiaz zijoan erduan, bere damu biziaren indarrak bezela, lлага aiek arradizatu eta sendatuaz zijoazkiola, iruditu zitzaion. Au egiñ ondoan, elizatik, eta denbora berean mundutik, irten zan, zerren bera eta bere emaztea, alkar adituta, Jaungoikoren ontasun mugabagearen graziaz eta deiez, andik laster erlijioan sartu ziran.



MARIAREN ONRAN

Egunean askotan esatea: Jesus gurutzefikatua dago, eta ni atsegin kontentuetan bizi naiz!

ESKARIA

Oh Ama biotz-biguña! zere esku andiaz egizu, Jesusen amoriozko llagak nere biotzean biziro jostea.

OGEITA AMARGARREN EGUNA

Doloretako Ama gurutzatuaren oñean

Besteen artean iru ezpata txit zorrotzek Maria Donzellaren bular biguña, gurutzaren oñean igaro zuten.

LENENGOA. Munduan izan eta izango diran semeen eder, maitagarri, garbi eta santuena galtzea, bi lapurren erdian gurutzean iltzeaz josia, odoldua eta bere edadearen lorean hilla, eta denbora berean, zuk, esker beltzeko pekataria, zugatik ixuri zan odol txit preziotsu aren balio neurrigabea, baño, betiko zere galera eta kondenazio naiago izanaz, erremedio añ garestiaz aprobetxatu naiko etzendueta, ikustea. Au esan al guziak baño dolore portutzago et iñolako pozgabeko Ama onen biotza batetik bestera igaro zuen ezpata zorrotza zan; dolore onek batetik bestera anima igarotzen zion, eta naigabe eta penaren indarrez beartzen zuen esatera: Ai eta pekatari galdubear triste arentzat alperrik ixuri dala nere Seme lazta-naren odola!

BIGARRENA. Odol preziotsu au kristau askorentzat alperrik ixurtzeaz gañera, beren erruz infernu gogorragoa izateko bide izango zitzaiela, ikustea. Dolore eta pena zeñ zorrotza au Ama añ errukitsu batentzat; gizarraza demonioaren atzarretatik ateratzeko eman zan prezio eta balioak berak, gero ere bere seme eta alabak diran pekatari askoren kondenazioko sententzia emateko, serbituko zuela, bere Jesus txit maitagarria zuretzat iñolako probetxu gabe galtzea, eta beronegatik, tormentu geiago eramaten ikustea! Oh Ama naigabez eta penez estutua! Nork poztu al zaitzakean!

IRUGARRENA. Guziaz gañ kristauen esker beltz itsusia, eta askok erredenzioaren on eta mesede paregabea ezertan ez idukitzea, nolebait eraman bazezakean ere zer esango degu beste askok on eta mesede orrez beraz añ gaizki usatuko zutela, ikustez? Nork aditzera eman lezake zenbaterañ igo zan emen bere ansia larri tristea? Zerren baldiñ Jesukristo hill ezpalitz zugatik, egiaz añ kulpagarri izango etziñan; baño orañ zere uste eta esperanza bere odol preziotsuan ipiñita, konfianza zoro onez Bera ofenditzea, eta oraindik areago dana, askok egiten duten bezela, Bera utsean idukitzea, eta bere kontra botako zituzten añeneko eta blasfemi izugarriak begiratzea! Zeñ garratz eta gogorra tormentu au izango zitzaien Birjiña guziz santaren biotz biguñ samurrari! Eta zeñ biotz-



gogorrak geran gu bere pena eta antsia tristeak mugitzen ezpagaituzte errukira eta negar egitera!

EJENPLOA

Santa Brigidaren denboran bizi zan gizon aberats eta noble, bñā oitura gladu eta galgarri guzietara emandako bat. (*Auriem. t. 2. pag 182*). Au azkeneko gaitzak artu zuen, eta guziaz ere eriotzerako prestatzean baño gutxiago ezertan pensatzen etzuen. Au jakiñ zuenean, Santa Brigida, bereala Jaungoikoari bizi eskatzen jarri zan, arren ere setan gogortua zegoen biotz hura biguñdu, eta bide onera erakar zezala, erregutuaz; eta ainbeste bider, eta alaingo leiaz urrikaltasunaren atectan deitu zuen, non gero ere bere Majestade jaungoikozkoak itzegiñ zion, esanaz, gaxo hura damu eta penitenziara mugierazitzera sazerdote bat joan zedilla. Zelo andiko sazerdote bat iru aldiz alegiñ guziaz onetara saiatu zan; baña guzia alperrik, arik eta laugarrenean, Jaungoikoaren graziak lagunduta, oso damutu, eta biotza arras trukatzera iritxi zueneraño; baña alatan nun, eriak ojuka esan zuen: *Irurogei ta amar utean konfesatu ez naiç; denbora guzi orretan demonioaren eskupean egon naiç, leialtasun guzia oni gordeaz, eta areago dana, bera-rekiñ tratabide estua idukiaz; baña orañ oso mudatua senti naiç, konfesioa eskatzen det, eta Jaungoikoak barkatuko didala uste det*. Au esan ondoan, negar goriak ixuriaz egun artan bertan lau alditaraño konfesatu, bigaramonean eliza-koak egiñ, eta beste sei egunen buruan hill zan. Begiak itxi ez al zitzaizkan, santa Brigidari Jesus agertu, eta Jaun onek esan zion: gizon aren anima purgatoriora joan zala, baña denbora luzea igaro gabe zeruan egongo zala. Santa eziñ geiagoraño arritua geratu zan, añ gaizki bizitu zan gizon bat gero ere grazian hiltzeaz, eta au nola gertatu zan, Jaunak agertu zion, esanaz: *Jakizu, ene alaba, nere Amari zion debozioak itxi diotzeala infernuko atea, zerren berak ziniç eta benaç inoiç ere bera maite ezpazuen ere, bere doloreai debozio zien, eta oriek bururatzen zitzaizkion guzian, edo orien izena aditzeaz beste gabe errukia agertzen zuen; orregatik arkitu du bere burua salbatzeko bidelasterra*.

MARIAREN ONRAN

Gaurko naigabe, neke eta eramankizun guziak, Maria txit santari bere doloreen oroipenean ofrendatzea.

ESKARIA

Nik zurekiñ negar egiñ dezadala, nere Ama.



OGEITA AMAIKAGARREN EGUNA

Jesukristoren ongina eta amorioaren gañean

Zure biotzak norbait maitatzera zaramazki? Ordu onean maita zazu, baña gauzarik maitagarrien, eta zure amodioa geien merezi duena, au da, Jesukristo, maita zazu. Begira, gizona bada ere, gizon guzien ederren eta garaiena dala: *Speciosus forma proe filii hominum*. Eta gañera Jaungoikoa da, eta beragatik neurrigabeko edertasuna eta grazia guziak dauzkana. Zenbat aldiz gauza preziotsu bati eder-etsitzen gatzazka, konturako, soñeko bati, erloju bati, ederrak diralako beste gabe; eta Jesus txit maitagarriak gure kariño eta amodio guzia merezi bearko eztu? Non da gure zentzua?

Maite eztegu Jesus, eta Jesusek maite gaitu: eta alañ maite gaitu, non sortu eta jaio zanetik gure ona beste ezer buruan erabili etzuen. Zugatik egiñ zan aurtxo, egon zan seaskan, jardun zan lantegian, eta predikatzen neke eta eramankizunen artean; zugatik ainbeste tormentu eraman zituen; zugatik gurutze batean hill zan, eta zugatik bere odol guzia ixuri zuen. Oraindik gutxi deritzazu?

Bada Berari asko iruditu etzitzaion, alabaña onenbeste amodiori geiago egotzi nai izan zion, bere gorputza janari eta bere odola edari zuri utzia. Badateke, gizon eskergabea, zuri pestak egiten dizkitzun txakurtxo batek, edo graziren bat daukan aur batek zure lege eta gogoa irabaztea, eta amodio azkengabeaz maite zaituen Jesukristori eranzun bear eztozula?

Ez pensatu geiegizko libertadea dala Berari esatea: Jauna, asko nai dizut. Zuzen zuzen au da Berak nai duena. Zeñ eta pekataria zeran, au esan giozu, bada pekatari izatea ri esatetik atzeratzeko arrazoia ezta. Bera da zu artzeko lenen irten zatzuna; Berak botatzen dizkitzu besoak lepota, idikitzen dizu bere bular urrikaltsua, agertzen dizu biotza, eta esaten dizu, Bera maita dezazula biguntasun andiaz. Edo arrizkoa zera, edo eziñ dateke dei añ amodiotsuari ez erantzutea.

EJENPLOA

Paradisoko Dominikak, norzaz len itzegiñ baitegun, (*Aurim t. 2, pag. 323*) larunbat egun batez lorez eotako bi koro, Jesus eta Mariari beren imajiñetan umiltasun andiaz aurrean ipiñi zizten, esanaz, arren usai egiñ

zegotela; eta mesede au iristen etzuela ikusi, eta eman oi zuen limosna bat oraindik eman etzuelako, izango zala, irudituta, bearreko bati deitu eta limosna hura emateko ustean baranda batera joan zan. Lenen ikusi zuena mutiltxo bat eskutik zuen andre bat izan zan: andre onek soñeko zar eta aroatuak bazekaizkien ere, bere arpegian grabetasun eta noblezi andia agertzen zuen: bereala mutiltxoak limosna eskatuaz besoak goratu zituen, eta amak ere ori bera egiñ zuen. Dominika oartu zan, aurrak eskuetan zauri edo llagak zeuzkala, eta errukiz biguñduta, esan zien: Pixka bat itxeden zadazute. Limosna batekiñ jetxi, eta itxia zegoen atea idiki baño len eskale aiek barrunen topatu, eta onez arritu, eta galdetzen die: Nork idiki dizute atea? Ai nere tristea, baldiñ nere amak au ikusten badu! Zaude ixillik, alaba, andreak eranzun zuen, iñork ikusi ezgaituta. Nola dabilke zure semea, Dominikak esan zion, oñetan dauzkan lлага oriekiñ? Oriek amodioak egiñ zizkion, eranzun zion andreak. Mutiltxoaren molde si eta modestia ikustekoa zan, eta onek Dominika gajoa beregandik irten bezela zeukan, eta ala galdetu zion: erida oriek miñik ematen ezdizute? Eta mutiltxoak farra uxian eranzun zion: Zer? eta denbora berean imajiñ biak buruan zeuzkaten loreai begira arretaz jarri, eta berea amari aien eske asi zitzaion. Onek lore aiek eskuaz iritxi, eta semetxoari eman ziozkan. Zerk mugitzen zaitu, alaba, donzellarekiñ berriz itzegiñaz, oni esan zion, imajiñ oiek lorez koroatzera? —Jesusi eta bere Ama bedeinkatuari diedan amodioak. —Zenbat nai diezu? —Al nezakean guzia. —Zenbat zenzake? —Berak laguntzen didaten guzia. —Bada berak onela maitatuaz joan zaitu, eta Jaungoikoak emango dizu ordañsaria. Dominika batari eta bes-teari begiratzaz aspertzen etzan. —Zeri begiratzaz diozu? andreak galde-tu zion. —Zure semeari, donzellak eranzun zion, eta zerbait geiago alde-ratuta, zauri edo llagetatik irteten zan usai gozo zoragarri bat sentitu zuen. Orduan donzellak esan zion: Andrea usai onen ederreko zer ukendu edo balsamuz sendatzen diozkatzu aur oni bere llagak? —Karidadearen bal-samuaz eranzun zion. —Eta ori nun saltzen da? —Fede, eta urrikaltasun-az eta lan onak egiñaz arkitzen da. Onetara ziranean, aurrak bularrean zeukan beste lлага bat garbitzeko Dominikak beste zapi bat artu zuen, eta lлага onek usai oraindik zoragarriagoa banatzen zuen baña garbitzeko lekuri amak eman etzion, eta aurra zerbait atzeratu zan. Atoz, aurra, atoz, donzellak esan zion ogia emango dizut eta. Onen janaria, amak esan zion, amodioa da; zuk oni atsegiñ egiñ nai badiozu, biziro maita zazu. Itz oiek aditzean, aurra bere poz atsegiña agertuaz Dominikarekiñ itzegiten asi zan. Asko nai diozu Jesusi? —Ainbeste nai diot, nun ez egunez eta ez gabez beste gauzarik buruan darabilan, ezpada Bera, eta beste ezer egiñ



nai ez nuke, ezpada, Berari gogoko zaiona. Amodioak erakutsiko dizu nola egin Berari atsegin zaiona, aurrak esan zion. Guzi onetara eriden usai gozo zoragarria geituaz eta aziaz zijoan, alatan, non, Dominikak poz atsegin ez gañez eginta, deadar egin zuen: Aur baten lllagak onelako usai gozo zoragarria badaukate, zer izango da gloriakoa? Ez arritu, Dominika, andreak esan zion, bada non ere dagoen Jaungoikoa, an dago usai eta lurruñ gozosen asiera eta jaiet-burua. Eta itz oiek esan zituen bezela, ikuskari hura beñgoan trukatu zan; aurraren arpegiak eguzkiak bezela argi egin zuen, eta Ama ere argi txit ederrez jantzia agertu zan. Jesusek bere Amaren magaletik loreak artu, eta Dominikaren gañera oiek zabalduaz, esaten dio: Ar itzazu lore oek gero sekula guzian emango dizkidatzudanen señaie eta prenda bezela. Au esan ondoan, begietatik galdu zitzaizkion, suerte oneko donzellaren biotza beren ondoren eramana.

MARIAREN ONRAN

Jesus eta Mariaren Biotz sagraduen onran deboziozko gauzen bat egitea.

ESKARIA

Oh nere Ama amodiotsua! irazeki zazu gauez eta egunez nere Salbatzalleaganako nere amodioaren sua.

GARGARRILLAREN LENENGO EGUNA

Noiz Maria guziz santari biotza eskeñi bear zaion

Maria guziz santa geiago onratzeko berari señaletua dagokion egun au, edo geroxeago edo lentxeago beste bat, baldin orduan jai egun andiren bat suertatzen baliz, konturako, Pazkoa Maiatzekoa edo Korputz eguna, antutzen da berari biotza eta ill guzian bera onratzeko egin diran deboziozko lanak berari ofrendatzeko. Eskeñtze edo ofrendatze au ongarriago izan dedin, konfesatu eta komulgatu bear da debozio andiaz; eta eskerrak eman ondoan, egin bear dira ondorengo aktoak.

LENEN. Mariari bere biotz txit maitagarriaren onran Maietzeko ill guzian egin zaizkion lan on guziak berriro ofrendatzea.

BIGARREN. Jaungoikoaren eta zeruko Santu guzien atsegin kontentu zoragarria dan Mariaren biotz sagradua, Jesusen Biotzaren antz andieneko biotza gañez egiteraño graziaz betetako, eta on eta mesede guziak beraren bidez datozkigun biotza beñ eta askotan egun artan adoratzea.

IRUGARREN. Gure biotza Santu guzien biotzakiñ, eta batez ere bizitz onetan Mariaren biotzari debozio eta amodio geiago izan zienen aiekiñ batutzea, guri palta zaguna berak osa dezaten.

LAUGARREN. Gure biotzaz egiten diogun arren ontzak ar deza-la, eta azkengabeko onra eta alabanzak berari zeruan eman al izateko mesede paregabeaz bizitz onen ondoren koroa ditzala, umilatasun andiaz berari eskatzea.

BOSTGARREN. Egund onetan gure debozioak berotasun andiagooz errezatzea; bere imajinenbat, edo bere izeneko elizen bat bisitatzea; itz batean, Jesus eta Maria beti gure biotzetan bizi ditezen zale eta deseo irazekiaz, egun au al genzakean ondoen ematea.

MARIA TXIT SANTARI BIOTZA OFRENDATZEKO

Modua

Birjiña guziz santa, Jaungoikoaren Ama, eta nere Erregiña, zure oñetan belaunikatu eta guzia dezakean Jaungoikoaren eta zeruko Santu eta Santa guzien aurrean eskeñtzen, eta zure serbitzura ematen dizut, pekatarri onbear tristea banaiz ere, nere biotz guzia oso bere zale eta deseo



guziakiñ. Eta biotz au, zurekiñ zure Seme txit santuaren gauza bezela, sekula guzirako zure eskuetan ipintzeko asmo egiazkoan nago. Ontzat ar zadazu barrun-barrundik egiten dizudan ofrenda au, oh Ama txit ongi-ilea, Santu guziak egiten dizutenarekiñ batera, eta iritxi zadazu aurreron-tzean bakarrik zuretzat eta zure Semearentzat bizitzeko grazia. Onela egiñgo dedala uste det bere laguntza jaungoikozkoarekiñ eta zure anparo indartsuarekiñ; eta nik nere aldetik, inork beartugabe, pozik agintzen dizut, ala egiñgo dedala. Irazeki zazute nere biotz, oh Jose eta Maria, zuek zeronean dauzkazuten su guziz biziak, lurrean amodioaren suzko bonbonadetan irazekita Aingeru eta Santuakiñ batera sekula guzien sekuletan zeruan zuen amodioan sutu eta urtu nadiñ. Amen.

EGUN-ORO AZKENEAN EGITEN DAN LETEIA

Birjiña guziz gozo
Zeruko poz atsegiña
Ar izazu lore oiek,
Gure Anrdre Erregiña.

1

Maietzeko illaren
Egun ongarriak,
Emaikitute arren
Lore zuri-gorriak:
Apañtzeko Amaren
Aldare berriak,
Kanta ditzagun bere
Itz zoragarriak.

2

Goiz-aldeko izarra,
Donzella, zu zera,
Jaiotzan añ ederra
Ziñan, bada, atera:
Mundu gaizto oni gerra
Zatoz ematera,
Eta Luzifer gaiztoa
Menderatutzera.

3

Evak sortu bazuen
Guretzat nekea,
Zu jaiota munduan
Egiñ zan pakea;
Argatik infernuan
Sortu zan kaltea,
Baita jarri zeruan
Zabalik atea.

4

Luzifer dezbrua
Da agitz samintzen,
Beti zure anparoa
Degula sentitzen:
Orrela ari burua
Diozu ausitzen,
Eta guri zerua
Oparo eskeñtzen.

5

Izar ifar-aldeko
Argi emallea,
Gure zorioneko
Bide-erakuslea;
Zu zera bai gaueko
Gu gordetzallea,
Tristuren biotzeko
Desterratzallea.

6

Ah zure mantupean
Señora Erregiña,
Zeñ izan ditekean
Sartzearen diña:
Etsaiek beñ batean
Ta aien alegiña,
Garaitzeko atakean
Gu gauza bagiña.



7

Zuregan birtutea,
Ispillu argia,
Atsegiñ da ikustea,
Donzella garbia:
Hura bada ikastea
Guretzat gloria,
Ta gero izatea
Zurekiñ, Maria.

1

Gaur gu pekatariak
Ona zure billa,
Gerade etorriak
Alkarrekiñ milla;
Egitera eskariak
Oh Maria ongilla!
Bada iritxi sariak
Al izan dedilla. Amen.

Birjiña guziz gozo, etc.

V. Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

Défende, quaesumus, Domine, Beata Maria semper Virgine interde-
dente, istam ab omni adversitate familiam, et toto corde tibi prostratam ab
hostium propitius tuere clementer insidiis. Per Christum Dominum nos-
trum. Amen.

MARIAREN ILLARI OSAGARRIA

Madrid'ko Santo Tomas'ko elizan

Mariaren Kortekoai bere ejerzizioetan Zuzentzalleak
egunoro irakurten eizten ejenploak

LENENGO EGUNA

Maria guziz santak santa Gertrudisi agertu ziozkan gauzen artean
(eta oiek eziñ ipiñi litezke dudak) arkitzen da bat, Maria txit santa, ill
guzian bera serbitzera eta onratzera prestatzen danarentzat txit pozka-
rriak diran itz oiez aditzera ematen dana. Ama laztanak esan zion, bada,
zenbat itz kristau fededunak nere onran esaten dituzten, beste ainbeste
urrezko lore dira; baña nik diran guziak obari eta irabazi andiaz pagatze-
ko, eta nere Seme jaungoikozkoaren eta Santu guzien aurrean bear beze-
la agertzeko bakarrik artzen ditut lore oriek. Alatan non, onen erara, per-
sona berenkoiak, eta ala eztiranak, guziak irabazi eta bentaja berdiñak ate-
ratzen dituzte Mariaren onran egiten diran lan oetan. Oietako batzuek
Mariari atsegiñ egiteagatik bakarrik serbitzen dute Ama maite au; añ desi-
tsatsiak eztiran besteak, Mariak lagunduko dielako uste eta konfianz utsez
serbitzen dute, eta dudarik gabe au egiñgo du zurekiñ: asko da zuk ill one-
tan zere irabaziak Mariaren eskuetan ipintzea, zerren Ama añ on eta esku
andikoaren eskuetan ezer ere galtzen eztan.

BIGARREN EGUNA

Egia onen testigu izan zan Eskilio gaztetxoa, norzaz san
Bernardoren Erljiõaren istoriak oroipen pozkarria egiten duen. Oraindik
amabi urte ez al zeuzkan, ordurako biziera gaiztoa zeraman; baña gazte
au Jaungoikoak beretzat nai zuen, eta gaitz andi batek artzea nai izan
zuen, ainbesterañokoak, non guziak etsi, eta puntu batetik bestera erioen
begira zegoen, noiz nai kordegabe geratuaz; eta orra nun begira zeuden
guziak hill zala, uste zutenean, su eta garrez betetako leku batera erama-
na izan zan, eta andik iges zijoala, beste sala batean sartu, eta Zeruko
Erregiña, Santu asko berekiñ zituela, an arkitu zuen. Eskilio bereala bera-
ren oñetan auzpeztu zan, baña Birjiñak bekoki illunaz beregandik bota



zuen, berriz surtara eraman zezatela, aginduaz. Doakabeak Santu aiei urrikaltasuna eskatu, eta Ama maitagarriak oiei esan zien: *Gazte hura gaizto biurri bat zala, eta auk bere bizian Ave-Mari bat errezzatu etzizola*, Santuak triste argatik erregutu zioten, onduko zala esanaz. Bizkitartean Eskiliok, laborriak artuta, deboziora oso eman, eta bere bizi guzian bera serbituko zuela, Maria txit santari agintzen zion. Orduan Ama biguñak, lenengotik txit zorrotz artu ondoan, igaroko bere itza gorde zegiola agindu, eta sugaretarako eman zitzaion epai edo sententzia aonekiñ desegiñ zan. Onetan ezaguera etorri, eta bere gaitzetik sendatu zanean, Birjiña txit santa onratzeko beargaia batez ere daukan, San Bernardoren Erljioan sartu zan, eta gero birtutean ainstesteraño goratu zan, nun santu izatera iritxi zan, orañ Ama amodiotsu onen gloriak kantatzen zeruan egonaz.

IRUGARREN EGUNA

Antziñako denboretako jende guziak txit askoan iduki zuen Teofiloren gertakari gogoangarri, Teofilo beraren adiskide kutun, Constantinoplako Patriarkak berak bere begiaz ikusi eta kontatua. Geroago Metafrastes, san Pedro Damianbo, Autungo Obispo Honorio, Florenziako san Antonino eta beste zenbait gizon andi jakintsuk kontatzen dute. Justiniano Enperadore zala, Teofilo iritzi añ andian zegoen, nun Obispo izateko txit egoki eta berarizkotzat iduki zuten; baña onetarako esleitu bazuten ere, berak nai etzuelako, Ciciliako Adana deritzan erriko Eliz nagusiko Arcediano egiñ zuten. Andik laster, eliz artako diruak gaizki gastatzen zituelako gezurrezko asmazio itsusia somatu zioten, eta bere goimallatik lotsagarri bota zuten. Iñoiz ere lo ez-datzan etsaiak, deretx onez baliatua, judu zar gaizkiñ edo sorgiñ bat aurrean ipiñi zion. Onek bere sorgiñkeriaz goibeltasun eta barrungo illuntasunean Teofilo erori erazi, eta bere eskuz firmatutako txartel baten bidez bere anima demonioarei ematera beartu zuen. Guziaz ere bildur eta erkiñdadaeren imurtzi miñak laster asko sentitu zituen, eta biotzeko damu eta pena andiaz ontasunaren Ama santaren kapilla batera joan, eta bere imajiñaren aurrean lurrean auzpeztu, eta, alabaña biotz damutu baten erreguak sekulan despreziatu etzituela, eta penitentzia egiñ nai duen pekatari bat iñoiz ere beregandik bota etzuela, bere urrikaltasunaren lengo edertasun eta malla goratua bigur zegiozkala erregutu zion. Au berrogei egunez eta arpegia lurrean zuela, eskatu zion; baña alaingo negar eta antsia tristeaz, nun bere Ama onaren erraiak oso samurtu zituen, eta berrogeigarren egu-

nean, bere anima eskura emateko deabruari utzi zion paper edo txartela beñgoan bere aurrean ikusi zuen, eta bereala bere Obispoak Elizarekiñ eta Jaungoikoarekiñ ongi ipiñi zuen. Eta tratu gaizto aren bidez itsustutako anima hura edertzea Mariak añ ziñez eta benaz bere kontura artu zuen, non birtutearen gañean birtutea, eta graziaren gañean grazia montoituaz, bere biziera ederra zala bide, Santuen erroldean jarria ezatea merezitu zuen, eta oietako bat bezela beneratzen du Elizak Otsaillaren laugarren egunean.

LAUGARREN EGUNA

Maria, berari jaiera eta debozio diotenen animen ezezik, gorputzen ere anparatzallea da. Quitoko lirio sonatu Jesus Paredes, beatifikatu edo doatsu egiteko egiñ ziran auzi-paperetan, kontentagaitzema ase eta iñolako dudarik gabe ipiñi litzakeen paper aietan kontatzen dira suerte oneko anima ark Aingeruen Erregiñ andi Maria txit santagandik artu zituen on eta mesede arrigarriak. Orañdik txit aur zala, eskuko beatz bat añ leku gaiztoan zeukan, non beatz arrek oñaze miñak emateaz gañera, andik miñ bezia sortuko zitzaiola uste zan. Jesus Paredesekiñ batera azitzen zan, eta gero mirariaren berri eman zuen neska txiki batek au ikusten zuen; eta errukiak mugituta gaitz hura andia eta ondore txarrekoa zakam eta sendagarriak ipiñtzen berealatik asi bear zuela, onginai andiaz aditzera eman zion. *Ez ikaratu, Marianak* (onela zeritzan munduan), arpegi alaiatz eranzun zion; *nere miñak orrenbeste bear ezduta*; eta zeruko argia izan bazukean bezela, gañera esan zion: *orañ ikusiko dezū nola ni sendatzen naizen*; eta bereala bere atsegiñ kontentu guzia zan Mariaren imajiña txiki baten aurrean belaukatu zan, gorputzaren bear eta premietan ere nolako uste eta fedez beragana bidegiñ bear degun, txit ederki guri erakutsiaz, eta Ama maiteari bere eskaria egiñaz, umiltasun guziaz bere laguntz eskatu zion. Esan eta egiñ. Miñ zion beatza, iñolako matxura gabe, sendo eta ederki, eta sekulan enpatxurik izan ezpazukean bezela, puntu batean bere lekuan agertu zan. Mirari añ oi ez bezelako eta ustekabekoa ikustean, neska-txiki biak arrituak eta mirarituak geratu ziran; baña Marianak gertakaria ondo begiratu eta ezagutu zuenean, gauza guziaz aurretik bere ongille andiari esker gozo ugaritsuak eman, eta bereala gertakari aren gañean itz bat bera ere iñori, ez etxeoari eta ez kanpokoari, esan etzegiola, lagunari erregu-



BOSTGARREN EGUNA

Franziako errege Luis XIren alaba eta Luis XIIreb esposak, Mariaren birtuteetan pensatzen beti jardunaz ikasi zuen, anima batentzat zeñ ongarrria dan munduaz aztu eta mundua utsean idukitzea. Bere ezkontza legeaz kontraktotzat eman ez al zan, bada, berri au belarrietaratu zitzaion bezela pake eta sosegu ederrean geratzeaz gañera, poz atsegiñaren señale andiak eman zituen, gero ere bere Jaungoiko onaren serbitzura modurik erosoenean emateko era eta zabaltasun osoan ikusten zalako. Bourgesko erri andira baztertu zan, non txit banaketan ezpazan, iñoren begietaratzen etzan, birtutezko lanetan eta beti bizi eta eragillea zan bere onginaí eta karidadeak bururatzen ziozkan urrikaltasunezko lanetan denbora guzia emanaz, eta berari zor zaio 1581garren urtetik gure egunetaraño iraun duten Mariaren Anunziazio edo berriak ekartearen ize-naz ezagutzen diran Erlijosak ipintzea. Prinzesa santa onek Mariaren birtuteetan pensatzen añ ondo emandako denborak, baldiñ lurreko joan-eto-rietan arazotu balitz, ustetzekoa etzan ondore bat eman zuen, au da, Franziako kristau-erriaren on eta probetxu andiaz eta kristau fededunen Aitaren poz atsegiñ guzizkoaz Jaungoikoaren Ama andia onratzeko, eta bere birtuteak imitatzeko Erljio bat ipintzea. Aita Santu Leon Xak Angulemako Dukeari bialdu zion bulda batez Anunziazioko Erljioari Mariaren amar birtute agirikoenen pest-egunak beren zortzi-urrenakiñ egiteko eskubidea eman zion; oek dira: garbitasun edo kastidadea, prudenzia, umiltasuna, siniste edo fedea, debozioa, obediencia, pbreza, pazienza, onginaí edo karidadea, eta urrikaltasuna.

SEIGARREN EGUNA

Pekatu mortalean erori eta Jaungoikoarekikoa galdu nai eztuenak, Maria guziz santari debozio egiazkoa izanaz, eskeñ begio bere serbitzuren bat, beti eta denbora guzietan. Onela iritxi zuen au Suizako Berna deritzan erri andian bizi zan donzella, guraso kristauen alaba batek. Museulu zeritzan Ministro fedegabe gaizto bigurri, bere liburu galgarrien bidez zori gaiztoko sona iritxi zuen batek gure Eliz egiazko bakarraren barrutietatik irtetera, eta berak sorgiñkeriaren izena ematen zion, baña donzellak larunbat oro Mariaren onran errezzatu oi zuen Errosario santua uztera donzella au beartu nai zukean. Donzella aren esanera jarri etzan; eta egun batez

Errosarioa errezzatzen zegoela, txit nastua eta beregandik irtena bere burua barrundatu, eta gauza gaiztoagoren baten bildurrez, sazerdote santu batekiñ egotera Friburgora joateko buruzpidea artu zuen. On guziaren etsaiak, iru alditaraño bidean irten, eta mañaz eta indarrez donzellari eraso zion: gaiztoenak donzellari, itxuraz arrazoi indartsuak begietaratzen ziozkan; eta geroenean zalditik bota zuen; baña Jaungoikoaren Amak Satanas azpiratzeko balorea bere animan ixuri zion, onen katazka guzien damuz ere, Friburgora joan, sazerdotearekiñ egon, eta baza atera ondoan, desleialkeri eta erejiako pekatura amildu nai zukean gaizto biurriaren arte eta engaño galgarriai iges egiño zielako uste eta konfianza osoan, sosegu ederrean bere etxera biurtu zan, egiaz guzi au iritxi zuen bezela, kristau irazeki eta Mariaren deboto txit egiazkoa bezela biziñaz eta hillaz.

ZAZPIGARREN EGUNA

Txit ederki erakutsi zigun Erromako erri andiak, zer moduz urrutiratu edota gera erazi bear ditugun pekatuaren zigorrada edo kastiguak. 530en urtean, san Gregorio Andia Aita Santu zala, izurri edo peste eriozko batek ango jendearen geiena beste mundura zeraman. Suzko saiet eta dardoak zerutik jexten ikusten ziran, eta Jaungoikoa iñoiz ere baño aserrego zegoela, ikusten etzuen bezañ itsurik etzegoen. Aita santua penitencia eta penitencia predikatzen asi zan, Leteien izena eman zitzaien zazpi prozesio, bakoitza malla desberdiñetako personena, egiñ zitezela aginduaz, eta prozesio guzi oiek Santa Maria Andiena deritzan elizara zuzendu, eta negarrez eta intziriaz erregutzen ordu osoan egoten ziran, eta urrikaltasuna eskatzera mugitzen etzan bezal biotz gogorturik etzegoen. Orduko gertakariak eskribitu zituzten jakiñtsuak diote, orazio eta erregu aiek zirauten bitartean larogei personetaraño hillotz erori zirala. Orduan bederatzí biderretaraño Kirieleison kantatu zan, orazio laburra, gero san Gregorioren aginduz Mezan sartua. Guziaz ere gaitza aurrera zijoan, eta usiñ edo ao zabalka egitean person asko hiltzen ziran, eta, uste danez, usiñ egiten dutenai diosal egiteko eta ao-zabalka dagoenean gurutzearen señalea egiteko usadioa onetatik etorri zan. Kristauen erri nagusia, anima bat gabe, eremu egiña geratuko zala guziak uste zuten, eta ala, azkeneko erremedio eta salbazioko aingura bezela, prozesioan eraman zedilla san Gregoriok agindu zuen Ama Birjiñaren imajiña izan zan, Aita Santua bera, geienetan egiñ oi zuen bezela, eliz-lan guzietara joanaz. Kristauak prozesioan zijoazen bezela, zeruko musika soñu zoragarri bat



aditzen zan, kantatuz Pazkoako antifona: *Regina caeli laetare, alleluia, quia quem meruisti portare, alleluia, resurrexit sicut dixit, alleluia*, eta Aita Santuak oni geitzen zion: *Ora pro nobis Deum, alleluia*. Au esaten zan garaian person askok ikusi zuten, izurri edo pestea laster geratuko zalako señalean Adrianoren torre gañean ezpata zorroan sartzen zuen Aingeru bat (geroztik torre hura Sant-Angeloren izenaz ezagutzen da) eta egiaz eta begiaz ala geratu zan.

ZORTZIGARREN EGUNA

Sosegu zeñ ederrean hiltzen dan Mariaren maitatzalle egiazkoa! Jerusalemgo eta Siciliako erregiñ, Varko eta Güeldresko Dukesa, eta gero Santa Clarako monja beartsua, eun eta bost urtean bizitu zan, irurogei eta emezortzi kortean, eta ogeita zazpi komentuan; baña, guzioron zorra pagatu bearra etorri zitzaion. Bere bizian bi debozio guziz artuak izan zituen, bata Jesukristo gure Jaunaren Pasioari, eta bestea Maria Birjiñari. Ordurako kemenak joanta, Ostiral Santu egun-sentian, zeruko Esposoak Bera gugatik hill zan egunean bertan beregana eraman nai zuela, bere aizpa maite monjak uste izan zuten, eta onelako mesedegatik berarekiñ poz atsegiña artzera joan zitzaizkan, eta orra non agertzen dien, ezeztatu zirala, egia zala egun hura berak txit maite izan eta beneratu oi zuela; baña egun artan hilko etzalakoan seguru egon zitezela. Nere zorion guziak gañera, esan zuen, larunbatean etorri zaizkit. Egun onetan ezkondu nitzan nere senar on eta Errege Jaun Renatorekiñ; egun onetan sartu nitzan Loreton nere agindupeko guzien alabazen erdian; egun onetan mundua utzi, eta erlijioan profesatu nitzan, eta bigar, au da, larunbatean, joango naiz nere esposo ezitsu Jesusen laztan gozoak zeruan artzera. Eta egiaz ala gertatu zan, zerren bere anima sosegu andian Birjiñaren eskue-tan uzteko bakarrik Jaungoikoak gorde bazukean bezela, bigaramoneraño bizitu zan, eta egun au etorri zanean, gorputzeko presondegitik zerura egatu zan, sekula guzietan Semearekiñ Amaren laudario eta alabanzak kantatzen diardutenakiñ batutzera.

BEDERATZIGARREN EGUNA

Aita san Franziskoren lagun maite eta estimatuenetako Fr. Leoni begietaratu zitzaion beste geiagoren artean ondorengo ikuskaria. (*Aurium*,

t. 2, pag 289). Begietara zitzaion zelai zabal batean azken juizioa, nora, jui-ziora deitzen zuen tronpeta izugarri baten otsera, konta al baño geiago jende batu, eta beste asko batuaz zijoazen. Onetan eskallera bi ipiñi zituzten, bata gorria eta bestea zuria: eskallera aiek lurretik zerurañoakoal ziran; lenengoaren tontorrean Jesukristo zegoen, eta bere aldean Aita san Franzisko, nork andik igotzera bere semeak arpegi gozatsuz animatzen zituen. Asi ziran onela egiten; baña batzuek irugarren mallatik erorten ziran, besteak laugarrenetik, besteak amargarrenetik. Orduan Guraso santua biziro estututa, beste eskalleratik asi zitezela, ojuka asi zitzaien, bada eskallera aren goienean Maria txit santa zegoen: erlijiosoak lasterka ara joan, eta Ama txit errukitsu onek eskua eman, eta zeruan sartzen zituen. Gure galdubear tristeak, baldiñ Andre miragarri onegana bidegiten ezpade-gu, bada onen bidez iritxi bear dute beren salbazioa zuzentasunaren eskalleratik eta bide zuzenetik joan nai dutenak.

AMARGARREN EGUNA

Infernua animez betetzea galerazteko, Maria txit santak guzizko indar eta eskua duela gure buruetan sar dediñ, gauza berarizko eta ego-kiagorik ezer ez, Santo Domingoren bizitza eskribitu zuten jakintsu guziak dioten bezela, Franzisko Albis deritzan erri andiko gaizkindun baten barrundik Santu onek demonioai bortxaz atera erazi zien aitormen edo konfesioa baño. Gaizkindun au Carcasonan Santuari bere aurrera eraman zioten, eta bere biraumen edo konjuruak egiñ, eta zeruan bizi ziranetan bildurrik andiena nori zioten, eta beragatik gizonak nor geien maitatu eta onratu bear zuten, galdetu ondoan, burruka eta iskanbilla izugarria atereaz, deadartzar eta siñu itsusiaz beren amorru bizia agertu ondoan, eranzuen zioten: Adi zazute, kristauak, nai edo ez aitortu bear deguna; Jaungoikoaren Amak eskubide guzia dauka gure atzapparretatik bere serbitzariak ateratzeko. Eguzkiak lañoa bezela, Berak desegiten ditu gure sare eta lazo guziak; Berak galerazten dizkigu gure lan eta irabazi guziak. Gure damu gorri gaiztoan aitor degu, bere sebitzuan iraun duenetako ipor sekulan gurekiñ infernuratu eztala. Trinidad eguziz Santuaren aurrean Berak ateratzen duen suspirio bakar batek indar eragillegoa dauka, beste Santuen erregu-eskari guziak baño. Bakarrik Berari bildurrago gatzaizka, zeru guziari baño. Jakitzute, bere erreguen indar eragillegatik kristau asko salbatzen dirala, eriotzeko orduan; eta Berak desegiño ezpalitu gure arte, lazo eta sareak, oraiñgotz lurraren gañean Elizari azken



ondamena emango giñoala, eta Eliz onen seme-alaben fedea oso galduko genduela. Aitormen onek txit ondo merezi du munduko eliz guzietako liburutegietan ondo gordeta idukitzea, Jaungoikoarekin bere Ama santaren gloriako, animen onerako, eta infernuaren lotsa gaiztorako Carcasonan gordetzen dan bezela.

AMAIKAGARREN EGUNA

Hungriako Errege san Esteban gloriatsua san Anselmok esan zuena egia zeñ andia zan, eziñ obeto agertzen duen testigu bat da, au da, Mariak bere begi urrikaltsuak zearkatzen diozkan hura salbatzea, eziñ datekean gauza bezela dala. Estebanek bere aurtasunetik au egiñ zuen, bestek ez bezelako biguntasun eta amodioaz, eta Errege izatera igo zanean, bere erreinu guziak Ama maite au *erreinu guziko Erregiñ andiaren* izenaz deitzea, eta alaiñ onratzea, nai izan zuen, non alkarren arteko izketetan iñoiz ere bere izena aotan artzea debekatu zuen, izen au beeratu etzediñ. Bere koroa, eta errege-zigorra, eta bere esku eta aginte guzia zeruko Erregiñaren eskuetan ipiñi zituen, bere serbitzari umillenetakotzat bere burua idukitzea nai izanaz. Enperadore eta prinzipe txit goseti Conradok Hungria eskuetaratzeko buruzpidea artu zuenean, Enperadorearen gerrariak erreinuko mugetan zirala, eta bereak supitoan arrapatzeko itoka zetozela, jakiñ ez al zuen, gizonezko ujol ari ataka isteko bear ziran neurri eta zuzenbideak eman, eta bereala Mariaren imajiña sagraduaren aurrean auzpeztu, eta orazio labur au egiñ zion: «*Nere Erregiña, zure erreinuen zati bat onratzea nai badezu, erregutzen dizut, ondamen au zure anparo eta laguntzaganako nere konfianza laburrari egotzi ezlakiola: Arzaiak merezitu badu kastigua, baka-rrik berak ar dezala zigorrada*». Zegoen lekutik jeiki, eta biotz andi errutsuaz gerrara irten zan; baña egun erdiko bidea egiñ az al zuen, Enperadorearen tropak erretiratuaz zijoazelako berria ekarri zioten, alabaña Alemaniara biur zitezela, agindu zitzairen, eta nola nai ere agindu au zerutik etorri zitzairen, bada Enperadoreak alakorik etzekien. Errege santuak berrogei ta bi urtean pake ederrean eta txit zuzen bere erreinua gobernatu, eta bere merezimentuak eriotz txit preziotsuaz Jaunak koroatu zituen, gure Ama maitearen Zeruetako jasoeraren egunean bertan, Birjiñak eraman zuen triunfoa esleituen artean zelebratzeko beti iduki zuen zale eta egarri bizia onela beteaz, eta egun añ zoragarrian aien kopurua geituz.

AMABIGARREN EGUNA

Maria guziz santari Jaungoikoaren Ama santaren izen zoragarria ukatzen Nestoriorik izan zuen seta gogorra, ereje au aintzat ematera baño len Elizak berarekin agertu zuen firmetasuna, eta bere desleialkeriagatik oni zeruak gañeratu zion kastigu izugarria, bere Jaungoikoaganako esker-gabea dan kristaua arrazoiz eta bidez bildur bear zaien gertakari eta ejemploak dira.

Lege eta fede gabeko Patriarka onek bere dotriña galgarriak zabalitzen zituen lekuetan, au da, Constantinoplan eta bere inguruetan, Elizari egiten ziozkan galera eta ondamendi negargarriak belarrietara zitzaizkionean, Alejandriako Patriarka san Cirilok, beste andiangoak etorriko ziralako bildurrez, begiramentu eta errespeto andiko karta bat eskribitu zion; baña Nentoriorik karta oni lotsagabekeri andiaz eta bere dotriña galgarrietan sendo egonaz eranzun zion. Enperadorea, eta Aita Santua Celestino berri oiek jakiteratu, eta Batzar edo Konzilioan Erroman batu, eta Konzilio onetako Gurasoak, guziak era batera, dotriña berri gorrotogarri hura gaiztotzat eman zuten, eta bereala Aita Santuak Nestoriori, bere erejiya desegiñ zezala, eta ezperen merezi zuen eskumikazioa emango ziola, esanaz eskribitu zion. Gañera Aita Sanduak bere ordekotzat bialdutako San Cirilori, Nestoriorien kontra legeak agintzen zuten bezela obratzeko eskubide guziak eman ziozkan, eta Santuak probinzi artako Obispoen batzar edo konzilio bat deitu, eta joan ziran batzarre onetatik lau Obispo, Erromak erabaki zuenaren berri Nestoriori ematera. Guzia alperrik izan zan, eta Enperadoreak eskatu bear ziran zion, beste Konzilio andi bat Efesora dei zezala. Erri andi artan berreun eta geiago Obispo batu ziran Mariaren izeneko eliz andi ederrean, eta patu gaiztoko Nestorio ere ara joan zan. Eta au Konzilioa idiki zan bezela, bere dotriña eriozko eta blasfemi izugarriak an bertan berritu ondoan, bere jauregira biurtu zan, nun bera juiziora deitzera joan ziran iru Obispori sartzen guardian zeuden soldaduak utzi etziezaten. Orduan bertan Konzilioak Nestorio erejjetzat eman zuen, eta Guraso santuak Batzarrean beren lanean ziarduten bitartean, Efesotar guziak orazioan, eta gertakari aien ondoreai begira zeuden, bña arratsean guzia bertan beera gertu zan, elizako ateak zabaldu, eta setan gogortutako Nestoriorien kontra Batzarrak eman zuen epai edo sententzia irakurri zanean. Laster asko zeruak sentenzi au ontzat eman zuen, bada Nestoriori zauri izugarri bat bialdu, eta bere blasfemiaren kastiguan bere mingaña ar likitxak jan, eta patu gaiztokoarekikoak egiñ zituzten.



AMAIRUGARREN EGUNA

Zure lagun urkoari gaitzerako bide eman badiozu, zoaz Mariagan, eta iritxiko dezu barkazioa, Mariaren deboziotik besteak urrutiratzera al guziaz saiatzen zan Aviñongo gaitzbide-emalle nabarben batek iritxi zuen bezela. Au bera gaizto biurri izatez ez aserik, besteak saiatzen zan, Birjiña txit santaren kongregazioetara joatetik atzera eraziaz, eta kongregazioko oiez eta kongregaziokoaz gaizki itzegiñaz, eta farra eta burlegiñaz, eta, okerrago zana, urteetan aurreratua zalako, askok berari fede eman, eta bere konseju galgarriak artzen zituztela. Gizon au gaitz gogor batek artu zuen; baña erioa ortzetan bazeukan ere, ez bere uste eta iritziak mudatzen zituen, eta ez damuaren inolako señalerik ematen zuen. Baña gero ere Ama Birjiñaren Sortze edo Konzepzio txit garbiaren eguna etorri zan, et kofradiakoak, egun onetan oi bezela, elizpest andiak egiten ziarduten, eta bizkitartean, nolanai ere Maria guziz Santaren bitartekotasunez, gaxoa bere buruagan, eta igaroko bere biziera gaiztoan pensatzen asi, eta bere uste eta iritzi gaiztoak bat batetan trukutzen asi ziran, alatan nun, arrezkero gauzak len ez bezela ikusten zituen. Onekiñ kongregaziolari zubenbidea ematen zion, eta berak len utsean zeukan Aita dei zezatela. Sacerdotea etorri zitzaion bezela, eriak, berarikiñ laztandu, barkazio eskatu, eta arren konfesa zezala erregutu zion, eta konfesatu ondoan, kongregazioan ar zezala, leiaz eskatu zion. Aita on arrek kongregazioan artu, eta hiltzen zegoen gizona animako gaitz eta gorputzeko eritasunetik denbora berean sendatua geratu zan, osasun ederrean, eta ustetzekoa danez, Jaungoikoarekiñ ongi jarria, oietik jeikiaz. (*Aurim. t. 1, 2, pag. 66*).

AMALUGARREN EGUNA

San Felipe Beniziok begietaratzen digu ikasbide edo ejemplo txit ederra grazinari zeñ laster eranzun bear diogun, eta ala bear izan ezker, esamesaren bildur guziak nola aienatu eta oñperatu bear ditugun erakusten digun ejemploa. XIIIen gizaldiaren aurren-aldean Florenziako zazpi merkataritxi aberats *Serviten* edo *Mariaren serbitzariena* deritzan Erljioa ipintzeko, guziak alkar artu, eta erritik ordu ta erdira bezela dagoen Senarioko mendira joan ziran. Guziak alkarrekiñ bakar artan bizi ziran, guziak Bonfilio Monaldiren agindupean egonaz, eta onek, zenbait persona birtutekoiren eskariz komentu txiki bat Maria guziz santaren izeneko eliza-

txoarekiñ Florenziako ateetan fundatu zuen. Egun batez (eta Pazkoa aste-ko osteguna zan) Felipe Benicio meza enzuteko ustean elizatxo artan suertez sartu, eta antziña Espiritu Santuak san Felipe Beniciori zuzendu ziozkan itz: *Aurrera, eta gurdi orretara iritxi zaitte*, oiek kantatzen aditu, eta itz oiek bere animan egiñ zuten mella alaingoia izan zan, eta Jaungoikoak famili sagradu artan Bera serbitzera deitzen zuela, añ ziñez eta benaz sinistu zuen, non gaztigu berriaren begira egon gabe, bere asmo erabakia an bertan egiñ, eta andik laster asmo au amets misteriosu baten bidez ontzat emana, eta berak, bai bere edade andiak, nola bere jakinduria guzizkoak, nolata bere goimallak eta bere aideak begietaratzen ziozkaten aldapa, eragozpen eta begiramentu guziak ostikoperatu, eta biotz prestu deseagarriaz asmo au bereala bete zuen. Eta txit ondo merezi zuen ordañ saria gabe eziñ gera zitekean. Bere gogo eta borondateaz bestera kargurik asndienak Erljioan idukiaz egiñ zuen biziera santuaren ondoren, beraren birtute eta jakinduri andiak alaiñ guziak arritzen zituen, nun Viterbon alkarganatuak zeuden Kardenalak Clemente IVren ondorengo Aita Santu bera esleitzeko begiaz jo zuten; baña Maria guziz santaren Zeruetarako jasoera edo Asunzioaren zortzigarren egunean bizitza egiazkora igarotzekoa iritxi, eta solaidu otzaren gañean autsaren gañean eratzan zezatela, agindu, eta bere Salbatzalle gurutzefikatuari begira gozotoro hill zan.

AMABOSTGARREN EGUNA

Jakintsu andi batek kontatzen du, bizirosinistekoa dan, eta biotz prestu batek zenbateraño egiñ lezakean ezezik, gure Ama on Maria txit santaren maitagarritasuna ere erakusten digun gertakari bat; bada Ama onek berari egindako serbitzu txikiak, Jaungoikoaren adiskidetasun galdua ostera irabazi, eta betiko zori ona iristeko graziaz askotan ordañtzen ditu. Gazte noble eta bere buruaz txit pagatu bat iru Erljioso lagun zituela, Genovatik Savonara itsasoz zijoa, eta nola emana baizan, garai artan amodiozko itz neurtu edo koplak zekaizkien liburu bat irakurriaz zijoa; eta bere hura irakurten alaingo atsegiñ kontentua artzen zuela, zion, non diru askogatik ere liburu hura emango etzukean. Erljiosoetako batek esan zion: *Gogo onez egiño zijiñioke serbitzu bat Birjiña txit santari? Ori bai, Aita, gazteak eranzun zion: zernai gauza egiño det Mariaren onran. —Txit ondo, Erljiosoak irauli zion: Mariari atsegiñ egiteko liburu ori apurtu eta itsasora bota zazu. Au adituta gazteak eranzun zuen: Orra non daukan— Ez, Erljiosoak ostera esan zion zerrorrek zere eskez ofrendatu bear diozu Mariari*



doai au. Orduan gazteak kanibeta batez liburua erdibitu, eta orrien erdiak itsasora bota, eta beste erdiak Erlijosuari eman ziozkan, nork ere, ziran guziak apurtu eta putzura bota zituen. Biotz prestuaz egindako lan au ordañ-sari gabe geratu etzan, alabaña andik denbora gutxiren buruan gazte hura Genovara biurtu, eta birtutezko biziera santu bat egitera Jaungoikoak deitu, eta Birjiña txit santak salbaziooko portu seguru eta ditzaz betera, au da, Erlijiora, ekarri zuen. Oh zeñ atsegin Birjiña txit santari izango litzaiokean, liburu gaizto pozoniz beteak ark bezela leuzkakeanak, berari atsegin egiteagatik ark bezela desegitea! Arrazoiz eta bidez uste lezake onela egiten duenak, damutzeko eta biziera berri santu bat egiteko grazia. (*Auriem, t. 2, pag. 115*.)

AMASEIGARREN EGUNA

Zerurako bide estutik zuzen eta zearkatu gabe beti ibilli nai duena, al guziaz izan bedi, Jesusen Konpañiaren poz atsegin, eta seme andi Berchmans doatsuaren antzeko. Bere lenengo urteetatik bere poz andiena Mariaren anditasunaz itzegitea oi zan, eta bere izketa guzietan onen gañeko zerbait sartu oi zuen, onetarako Mariaren laudario edo alabanzen gañean eskribitu zuten jakintsuen esaerak bilduta idukiaz. Ama jaungoikoagana bera bezela itsutua zegoenen batekin arkitzen zan guzian, oni Andre miragarri onen birtute eta pribilejioen gañeko gauzen bat begietaraten zion, eta bere biotzaren zale eta deseoi zabaltasun guzia onela ematen zien; eta bere lagun gazte guziak gai onen gañean bere gisakoak baziran ere, inñolako duda gabe Berchmans izaten zan lanbide irazekiai sukaria eman ziozakean inñor arkitzen etzuenean, Aingeruen Erregiña onratzeko Konpañiakoak Erroman zedukaten kapilla batera baztertu, eta bere biotzeko biguntasunaren indarrez urtzen an oi zegoen, eta bere Amaren izenaz milla bider deitu, eta bere bear eta premiak agertuaz, arren salba zezala erregutzen zion. Eta egiaz eta begiaz salbazio au bentaja andiakin iritxi zuen Mariaren bidez, eta onek lagunduta, santutasunaren goi-mallara igotzerano iritxiaz. Zenbat on eta grazia zerutik artu zituen, guziak Mariaren bitartez zirala, aoa betean aitortzen zuen, hill zan bezperan bere eskola-lagunetako bati agertu zion bezela, gañera geituz itz bigun oiek: «*Nik maite det Maria, beti al guziaz maitatu det, eta bere mantupean jarrita, betiko bizitzaren uste eta esperanza osoan nago*».

AMAZAZPIGARREN EGUNA

Konta al baño geiago lazeri eta gaitz gogor eraman dituen Españiak berak denbora berean progradu du, nola zeruko Erregiñak berari egiten zaion serbitzu txikienetarako oparo pagatzen duen. Onela ikusi zan 1212en urtean, noiz sarrazeno edo moroen errege eta kristau-izenaren etsai amorratua gurutzearen adoratzalle guziak ondatu, eta desegiteko asmo eta usteetan ejerzitu andi izugarri batekin Granadatik sartu zan Aita Marianak kontatzen du, eta gañera, Gaztelako Errege Alfonso VIII gerra santu hura egiten zuten kristauen alde grazi eta induljenzi asko Aita Santu Inozentio IIIgandik iritxi, eta Aragoiko eta Naparroako Erregeekin batu, eta Granadako erri andi Baeza alderonz joan zala. Uztaillaren 16an soldadu kristauak Sakramentu santuakin aldeaurrez prestatu eta Mezaren sakrifizio adoragarria enzun ondoan batalla andia eman zan. Gurutzea aurretik zijoan, eta erregeren estandartean Jaungoikoaren Ama bere Semetxoa besoetan zuela, pintatua zegoen, eta soldadu kristauai au ikuste utsez biotza zabaldu, eta guziak guzizko erru eta animoa artzen zuten. Pelea luzarozan zalanzen egon zan, eta oraindik lenengo aietan kristau buru zagiak amor eman bearrean ikusi ziran, baña beren Jeneralak alaingo erru eta biotza eman zien, eta alaingo izu-laborria etsaiaren tropai sartu zien, non beretako berreun ta geiago milla gizon ortzaz gora lurrean geratu ziran, kristauetatik ogeita bost edo ogeita amar milla baizik hill gabe. Batalla onetako gertakarien berri Errege berak Aita Santuari bialdu, eta jatzar artan parterik andiena izan zuen Toledoko Arzobispo D. Rodrigo Jimenezek an gertatutako guzia eskribitu zuen.

EMEZORTZIGARREN EGUNA

Gure egunetako izkribatzalle batek, beste askoren gisa, Constantinoplako erri nagusian egin oi zan zeremoni modu batek nondik eta nola bere asiera izan zuen, billatuaz, Grecia-tarren Erlojua deritzan liburuan dio onela: «Apostolu santuak, Jesukristo hill ezker, naiz lagunakin, naiz beren bakarrean bazkaltzen zutenean, lenengo lekua beti utsa uzten zuten, beren onra andiaz ainbeste bider berarekin bazkaldu zuten, Maisu maitearen oroipenean. Bazkariaren azkeneronz, geratzen zan ogia bearrekoai ematen ziezaten, kantatuaz itz oiek: *Gloria beko gure Jaun goiko Aita, Seme eta Espiritu Santuari. Andia da Trinidad txit Santuaren izena. Jesus Jauna, lagun zaguza*» Pazkoatik Espiritu Santuaren etorrerano gañera esa-



ten zuten *Piřtu da gure Jauna*. Gertatu zan, bada, Maria guziz santaren Iragoera edo Asunziarako guziak Jerusalemaren batu, eta Getsemanitik afaltzera bihurtu ziraneko gertakari artatik irugarren egunean) jan ondoan, usadio santu au egiten zeudela, Jaungoikoaren Ama argiz eta gloriaz inguraturua airean agertzea, eta ustekabeko gertakari añ atsegiñgarrian guziak era batera deadar egiñ zuten: *Panagia Deipara adjuva nos*; da esatea: *Jaungoikoaren Ama santa, lagun zaguřu*. Eta Ama laztanak begitarte alai eta atsegiñaz eranzun zien: *Sekula guziraiko zuekiñ nago*. Oh zeñ pozkarria dan promes au! Arren, Ama maitea, gurekiñ onela egizu, eta zere seme-alabakiñ beti egon zaite, au da, kristau fededun guziakiñ, zure Seme jaungoikoak bere anaien izen ederraz onratu nai izan zituen guziakiñ.

EMERETZIGARREN EGUNA

Antziñako denboretan elizako kanta ederrak ipintzen zituen Venanzio Fortunatok ipiñi zuen *O gloriosa Domina* deritzan himno zoragarria ere, kanta onekiñ gure Erregiñ adorarria biziro goratuaz, eta bere Seme jaungoikoakorekiñ batera guk bera serbitzeko daukan eskapide eta deretxoa agertuaz. Au on egiteko Aita san Franciskoren Erljio sagraduko gertakariak dakaizkien liburuan kontatzen da, ezen 1222en urtean, Erljio sagradu oni asiera eman zitzaionetik amabostgarren egunean, Portugalko Alanger deritzan errian erlijioso oek ipiñi zuten komentuan orduan Guardian zegoenak himnoetako zeñ gogokoen Birjiña txit santari ote zitzaion jakiñ nairik, bere kontura zedukan talde txiki artako nobizio maitenari agindu ziola, Jaungoikoaren Amari au galde zegiola. Birjiña txit santak *O gloriosa Domina* gogokoen zitzaiola eranzun, eta nobizioak ostera irauli zion: Ama laztana, esperatzera ere ni eziñ bentura nitekean mesede eta grazia bat egiñ didazun ezkerre, arren utzi zadazu nere biotza estutzen didan pena bat zuri agertzen, eta da, nere buru-zagiak orri, nere amestzat artu, eta federik emango eztiola. Bada ondo, Ama ongilleak esan zion, berealatik kendu nai dizut zure barrungo naigabe eta kezka ori; eta eman nai dizut sospetxa guzitik libratuko zaituen señaile eta prueba bat: zoaz Guardian zorrotz ori billatzera, eta ner izenean esan zaiozu, nere itza eta zurea on egiteko, datorrela orañ onera, bere fraile guziakiñ, eta oraındaño nere ezkerreko besoan egon dan oraındaño nere ezkerreko besoan egon dan nere Seme maite Jesus eskuikoan ikusiko duela. Au esan zuen bezela, nobizio birtutekoia begira zegoela, Ama txit santak beso batetik

bestera Aurtxoa aldatu zuen, eta nobizioa poz atsegiñez zoratzeko zorian, zeru-lurretako Erregiñaren ontasuna zeruetaraño goratuaz.

OGEIGARREN EGUNA

Jaungoikoagana biurtzea oraındaño luzatu duenak, edo biurtu ezkerre berriz pekatu egiteratu danak, biotza erorteko biderik eztauka, bada adi beza Santo Domingoren bizitzan kontatzen dan gertakari sonatu au.

Santuak bere santutasunaren usai ederrra Italiako bazter guzietan zabalduaz, bere predikuaren frutu ugaritsua arrapatzen zuen denboran, bere edertasun eta donario paregabeen bidez anima asko infernura amiltzen zituen, Florenciako neskak gazte batek Santuaren sermoi bat aditu, eta onen itzak alaingo mella gazte aren biotzean egiñ zuten, non, beregan eziñ kabituz, Santuaren oñetan auzpeztzera joan, eta arren konfesioa adi zegiola, erreguka asi zitzaion. Santo Domingok orduan bertan konfesioa aditu, eta alaiñ jaungoikoak suan neskak irazeki zuen, nun bereala negar miñari eman zitzaion. Bere ontze edo konbersioa oso eta egiakoa izan zan; baña gaiztoena lo etzegen; eta len añ luzaroan bere eskupean iduki zuen animaren gorputza orañ eskuperatu zuen. Infernuko etsaia urte bete osoan gorputz aren barrunbean egon ondoan, Santuak andik bota, eta gaizkiñ aidurrak animari saietsik argalenetik eraso, eta gaiztake-rian lengo azkarri edo len baño areago neskak egiñ zuen. Santo Domingori onegatik biotza erori etzitziaion, eta, ondo progatuak bezela, graziaren indar eragillea zenbaterañoakoa zan jakiñik, gaztea lotsez estalita bere oñetan aupeztzea iritxi, eta uste eta konfianza berriro sartu ziozkan, Jesus eta Mariaren izen sagraduak bere gordegarri eman ziozkan, eta geroenean, pekatari oiturazko, aldakor, onbear triste hura Jaungoikoagana biurtzeko gerora begira ez egotea, egiñ zuen, onetarako goitikako neurri eta bide jaungoikoak bat artuaz. Azken juizioa begietaratu zion, nun, juez guzien Jueza, onen aldean Birjiña txit santa, eta onen oñetan Santo Domingo bera, eta beste aldean bere pekatu izugarriak salatzen ziozkaten etsaiak zeuden. Oriek aditzean, gutxik egiñ zuen nola etsimen eta ernegazioak artu etzuten, zerren berealatik deadar bildurgarriak egiten asi zan; damu miñari onela eman zitzaion bezela, biotz on artu, eta penitentzia egiteko epe edo plazoren bat iritxi zegoen, Urrikaltasunaren Amagana bidegitera Santuak animatzen zuela, begitandu zitzaion. Neskak onela egiñ eta Ama maite ongillearen amodiozko begiratu bat, eta pekatu guziak era-



bat kendu ziozkan damu egiazko bat, eta eriotzeraño onean irauteko grazia iritxi zituen.

OGEITABATGARREN EGUNA

Jesusen Konpañiako Aita Poire, gizon jakintsu eta fede guzia zor zaionak eskribitzen du, berak ezagutu zuen letradu sonatu batek berari kontatu zion gertakari bat, Franzian gertatua. Letradu au emakume bategana oso itsutua zegoen, alatan nun, gauz onak egitera grina hura zalarik, eta grazia beti kolpeka ari zitzaiozlarik, eriozko grina hura beregandik ezin kendu zuen. Onetan Jaunak gaitz estu bat bialdu zion, eta gaitz au bere animaren osasun izan zan. Konfesio andi edo jeneral bat egiteko sazerdote bat eskatu, eta konfesio au egiten asi zanetik laster penitenteari biotza ixurtzen zitzaiozla, konfesoari iruditu zitzaion; baña bildurkizunik etzegoela, eta hura laster igaroko zala, gaxoak segurutu zion. Garai artan gaxoa, Birjiña txit santaren eta berak jaiera guzizkoa zion santu baten erdian gure Jauna bere oiaren barren-aldean ikusten zegoen. Juezak bekozko illunaz kondenazio epai edo sententzia eman nai ziola, zirudien, eta orra non Birjiña txit santak, bere onetan auzpeztu, eta pekatari triste aren asmo eta deseo onak, eta pekatua uzteko ematen zituen segurantzak agertu ziozkan. Ikusten eztezu, ene Ama, Salbatzalleak eranzun zion, oriek beti oi dituen ateraldi batzuek baño ez tirala? Zenbat bider ori bera agindu, eta perilletik irten danean ostera pekatua biurtu dan! Gauza bearra da beñ edo beñ nere besoaren indarra orrek sentitzea. Itz oiek aditzean Ama ongilleak burua makurtu, eta eranzun zion onela: Egia da barkaziorik merezi ezteuela; baña nik erregutzen dizut, barka zaiozula, beste guziaz gañera oraingoan ere, eta uste det naierara geratuko zerala. Au esan ondoan, begietatik galdu zitzaizkion, eta alaingo damu miñaz penitenteak bere konfesioa egin zuen, non sekulan alakorik beregan barrundatu etzuela, segurutzen zuen. Ordutik birjiñen Amak alatan biotza trukatu, eta garbitasun edo kastidadearen usai atsegiñgarriz alaiñ lurrundu zuen, non bere lokarri gaiztoetatik libre bereala geratu, eta aragiaren inolako tentaziorik sekulan geiago sentitu etzuen.

OGEITA BIGARREN EGUNA

Loretoko Etxe santuaren gertakarietan kontaktzen da, ezen Veneciara zijoazen amar edo amabi txalupa Ama Birjiñaren egunetako baten bezperan Etxe santutik legua gutxira arkitzen zirala, eta txalupa aietako jende guziak bigaramonean Meza enzun, eta beretako batzuek Komunio sagradua Etxe santu artan artu nairik, guzien buru egiten zuena orretara ukatu zala, txalupak inor gabe ikusi, eta Turkiako itsas-lapurrak atzaparrak egotzi zegiezten bildurrez. Onetan Antonio zeritzan mariñel bat Birjiña txit santaganako konfianzez beteta, bakarrik berak txalupa guziak gordetzera eskeñi zan, eta artarako txit gai zala añ ondo agertu zuen, nun, bere deseo zuzena koitu zuen. Bigaramon goizean, bada, beste guziak elizarako irten, eta txalupak zaitzen bera bakarrik geratu zan, eta orra non, luzarora begira egon gabe, itsas-lapurrenak zirala ezagutu zituen ontzi batzuek alderatzen, ikusi zituen eta Birjiña txit santari bere erregua ziñez eta benaz egin, eta beste guziak bera onratzera joan ziralako, bera bakarrik zegoelakoaz kontura zedilla, eskatu zion. Bere erregu-eskaria egin ondoan, aizkora bat eskuan artu, eta turkoak aldean zeukaten txaluparen zoko batean ezkutatut zan, eta andik laster txalupa alde batera makurtzen zala, eta an sartzera zijoan turko baten eskua txaluparen ertzean ikusita, alik gutxien inork ikusi zezan, belauniko jarri, eta kolpe izugarri bat deskargatu, eta esku hura moztu, eta txaluparen barrura erori zan. Eskumotz geratu zan turkoak deadar añ izugarria egin zuen, nun bere lagun guziai zukaratzak sartu, eta txalupak jendez beteak zeudelakoan, ziran guziak igesari eman zitzaizkion. Orduan Antoniok burua goratu, eta itsas-lapurrak zerbait urruti ikusi zituenean, ostera belaunikatu, eta esku txit andiko bere anparatzalleari esker gozoak eman ziozkan. Bizkitartean Loretoko bere lagunak beren txalupetara zetozen, eta oiek turkoen ontziak urrutira ikusi, eta beren txalupak galdutzat, eta Antonio hiltzat zeuzkaten; baña au esku batean aizkora, eta bestean turkoaren eskua zituela ikusi, eta gertatu zan guzia bere aotik zutenean, arritu eta txundituak geratu ziran, eta guziak batera Mariari alabanzak ematera onek beartu zituen, eskerrak emateko Loretoko Leteia kantatuaz.

OGEITA IRUGARREN EGUNA

Portugalko prinzesa Juanak txit ondo merezi du munduko erregiñ andienen artean leku onenetako berari ematea, prinzesa batek bear dituen



prenda guziaz ornitua zegoelako ezezik, bere aita Alfonso Va eta anaia Juan II-na Afrikako moroakiñ gerran zebiltzan bitartean erreinua añ ongi gobernatu zuelako ere. Birjiña txit santari izan zion debozio eta beraganako uste eta konfianza bere koroa apañtzen zuten perla preziotsuenetako bat izan ziran; eta zenbait suertealditan perla onen balioa txit ondo ezagutzeko bidea izan zuen; baña batez ere bere gaztelua etsaietatik gorde zuen denboran. Lurreko prinzesa guzien ederrentzat zegoena zan; eta bera ikusteko suertea zutenak, aoa betean esaten zuten, ez gizonen arteak, ez pintatzalle onenak egiñ zezakeala grazi ederragoko gauza bat. Parerik etzuen bere edertasuna bere Esposo jaungoikozkoari konsagratzeko zeruko ixill-mandatu eta zale eta deseo irazeki bat beregan sentitu, eta ori egun señalatu batean, eta suertealdirik andi eta gloriatsuenan egiñ nai izan zuen. Biktori andiak irabazita Afrikatik zetorren bere Aitari ongietorria egitera bidera irteteko txit ederki apañdu, eta gala eta apañdurak bere edertasuna alaiñ geitzen zuten, non bera ikusten zuten guziak zerutik jetxitako aingeru baten pareko egiten zuten, eta batez ere bere Aita añ prenatua eta arritua geratu zan, nun bere alabak nai eta eskatzen zion guzia emateko prest zegoela zirudien. Baña nori buruak eman zegoekean prinzesa añ eder, lirañ eta munduko erregeen andienarentzat txit diña zan prinzesak, jende guziaren atsegiñ-kontentuzko egunean bakarrik Jaunaren serbitzura emateko baimen eta eskudanzia eskatuko zuela? Guziaz ere Erregeak, Jaungoikoaren bildurrekoak bezela, alabaren gogoia errespetatu, eta kontrarik egiteko biotzik izan etzuen; baña beregandik irtena bezela geratu, eta itz bat bera eziñ eranzun al izan zion. Bere alabak ixiltasun au ixilikako baimentzat artuta, al zuen ondoen bere gauzak zuzendu, eta lenbait len erlijioan sartzeko egiñkizun guziak berealatik egiñ zituen. Berarekiñ bere anaia prinzipe Juan, eta korteko Jaun andienak joan ziran komentura, eta ziran guziak lutoz jantzi ziran, lurra ematera bazijoazkion bezela.

OGEITA LAUGARREN EGUNA

Baldiñ Portugalko errege Alfonso Vak aurrekoagandik ikasi zuen Mariaganako debozioaren bidez iritxi zituen on eta mesede guziak bat-banaka kontatu bear bagindu, sekulan ere sall oni azkena emango ez giñioke. Asko laztan onen laguntzarekin denbora aietako prinzipeen andienetako bat izan zala errege au, zerren buru txit argi eta azkarra izateaz, eta jakintasunai eta jakintsuui amodio andia agertzeaz gañera, jan-

edanean txit begiratu eta kontuzkoa, bere biziaren guziz garbia, aserrea gozaten erraza, koleratzen gaitza, guzientzat, baña batez ere katibu zuden kristau beartsuentzat esku luze ongilleduna izan zan, eta azkeneko prenda onenetatik etorri zitzaion katibuen libratzallearen glori ankiko izena. Itz batean, kristau on bati bearrak zaizkion ongari eta bentajakiñ, eta pekatu benialaren itzalerañokoari gorroto bizia izaterañoko konzienziako garbitasunarekiñ, errege andi eta garai bati bearrak zaizkion doaiak batutzen jakiñ zuen. Bera izan zan Aita Santu Calistoc turkoaren kontra eraiki zuen gurutzada andian sendo eta firmae irauin zuen errege bakarra, eta errege andi onek 1458en urtean lenengotik ogeita bost milla gizon besterik berekiñ etzituelarik, goi eta be eraso zion. Berberriako plaza portitz eta gogor Azellari erasotzeko, Birjiña txit santari egiñ zion orañ esango degun promesa: Baldiñ erri hura eskuetaritzen laguntzen bazion, gorputzaren tamañoko imajiña zillarrezko bat zaldiz eta arma guziaz ornitua eragiñ, eta bere izeneko eliza batean ipiñiko ziola, sekulako gogoangarri izan zediñ. Bi milla turko hillotz eta bost milla atzituak geratu ziran, eta etsaiari kenduta, beretzat ezer artu gabe, soldaduen artean zabaldu zituen ondasunen balioa zortzireun milla eta geiago ezkutu lodira igotzen zan; eta egiñ zuen promesa bete edo kunplituaz zillarrezko imajiñ hura Zarzako Ama Birjiñaren elizan ipiñi zuen. Azella artu zalako berria Tangerra iritxi ez al zan, itsumustuan ango jende guziak al zuten guzia beren ondasunetatik bildu, eta andik iges egiñ zuten, armak erabili bearrrik-gabe Alfonso an sartuaz.

OGEITA BOSTGARREN EGUNA

Santa Brigidac zerutik izan zituen argi edo ixill-mandatuatan irakurten da, Maria guziz santak egun batez esan ziozkala itz oek:

«Ni naiz zeruko Erregiña, urrikaltasunaren Ama, justuen atsegiñ kontentua, pekatariak Jaungoikoagana erakarten ditudana, nere bidez arintzen eta eramangarriago egiten eztan tormentu eta penarik purgatorioan ezta». Tormentu aietatik ateratzeko Mariak daukan esku andia bezela, aipatuko det eman san Pedro Damianok kontatzen duen gertakaria, Erromako erri andian añ sonatua izan zan gertakaria, non bere oroipenak beti irauin zezan, arri zurizko ol eder batean urrezko letretan ezarri, eta Porticoko Ama Birjiñaren elizako aldare nagusiaren aldamenan ipiñi zuten. Dio, bada, ezen, 1072.en urtean Erromako emakume batek Asunzio eguneko eliz-pestetara joan ziranen artean ikusi zuela aspaldi



hilla zan beste emakume bere lagun bat. Ustekabeko enkontru arrez bizi-
ro arrituta, emakume ari begiratzez eziñ aspertu zan, eta ikusten zegoena
eziñ sinistuz zegoen. Eliz-pestak egin ziranean, emakume onek, jende
guziaren artetik sartu, lagun zanagana alderatu, eta galdetzen dio, ea lengo
bere lagun hura bera zan, Huraxe bera, hillak eranzun zion Nola agertzen
zera, bada, bizien artean besteak ostera esan zion, beste mundukoa zera-
larik? Zer moduz zaude an? Zer billatzen dezu emen? Hillak oni eranzun
zion: berari aditzera ematera zetorrela, nola purgatorioko penak eraman
zituen, eta pest-egun andi aren bezpera gauean bera eta beste asko pur-
gatoriotik ateratzea Jaungoikoaren Amak eskatu, eta konta al baño geia-
go anima atera zituela presondegi izugarri artatik. Hillaren itzai fede
tea adiskideari gaitz egiten zitzaion, eta orduan hillak esan zion: urte bete-
ren buruan zure eriotzarekiñ on egiñgo ditut nere itzak, eta esan eta egiñ,
urtego urteko egun berean emakume au pake ederrean hill zan.

OGEITA SEIGARREN EGUNA

Maria guziz santak berotasunik andienaz deseatu izan du beti, amodio
azkengabeaz gizonak maite izan zituen eta oiekgatik aurtxo egiñ zan bere
Seme jaungoikozkoa gizonak bizi maitatzea. Nola nai ere onetarako alda-
tu zituen, lora-baratz prezioztura bezela, mundutik erlijiora, munduan on
eta mesederik ederrenen intz atsegiñaz bustitzen zituen landare esleitu
oriek. Oetako bat Jesusen Konpañiako aingeruaren izenaz dei genzakean,
eta Birjiña txit santak bere maiteena bezela zedukan Koskako san
Estanislao zan. Poloniako etxe andi, noble eta aberats bateko jatorria zan;
etxe artatik elizako Guraso sonatu, kapitan azkar, gobernari gañ-gañeko eta
gizon andi asko irten ziran. Amairu urte zituenean eskolatza Veneciara
bialdu, eta eskol artan egiten zituen aurrerapenak txit begiratzekoak ziran;
baña bere atsegiñ-kontentu andiena errosarioa eskuan idukitzea, edo Maria
txit santaren laudario edo alabanzak zekaizkien libururen bat irakurtea,
edota Ama eztitsu ono gogokoen zitzaiola zeritzan beste zerbait egitea oi
zan. Onela arazotua zegoela, gaitz gogor batek eraso zion: eta gaitz hura
Birjiña txit santak berariaz bialdu ziola, zirudien, bere onginai eta amorioa
agertzeko, bada debozio eta jaiera txit andia zion santa Barbara, berari
komunio sagradua eman zioten zenbait Aingeru berekiñ zituela, bera ikus-
tera Ama maitatsuak aurrez bialdu, eta ondoren Maria bera bere ikusaldia
egitera etorri, eta Ama onek amodiozko milla itz esanaz fiñez asko egiñ
zizokan, besteen artean besoetan zekarren bere Seme jaungoikozkoa oia-

ren gañean ipiñi zion, eta eriak atsegiñ-kontentu esan al baño andiagooz
bereetan artu zuen. Ama laztanak andik aldegitiko puntuan Jesusen
Konpañian sar zedilla Estanislaoi agertu zion, eta mutill-gazte aingeruz-
koak au iristeko, neke eta aldapa gogorak igaro bear izan zituen; asko izan
bedi esatea artara egiña ezpazegoen ere, irureun eta geiago legoa bide oñez
egiñ bear izan zituela, baña bere bularreko karobi biziak guzia errazten
zion. Bera nor edo zeñ zan laster asko bere bizierak agertu zuen; bada erli-
jioan amar illabete baño gutxiagoan bizitu zalarik, biotz andiko eta aurrera-
tuenak ozta iritxi oi duten bertutearen mallara igo zan.

OGEITA ZAZPIGARREN EGUNA

Mariaren seme onetsi eta maiteenetako bat Aita san Franciskoren
Erljioko san Bernardino izan zan. Oraindik gazte zala, bestek ez bezela-
ko bere modesti, eta kastidadeari zion amodio, eta bere oitura eder eta
garbiakgatik Jesus gaztearen irudi bizia izateko Mariak bere begiak argan
ipiñi zituela, zirudien. Baña mutill gazte birtutetsuan geien argi egiten
zuen, Aingeruen Erregiñaganako amodio añ biguña zan, non bera izen-
datzen zan guzian bere arpegitik argi-errañu biziak irteten ziran. Batez ere
Sena deritzan erriko ate baten gañean Camoliacoaren izenarekiñ dagoen
Ama maitearen imajiña bati jaiera eta debozio guztizkoa zion. Bere hura
ikustera egun oro joaten zan, eta belaun gorrien gañean lurrean belauni-
katu eta bere serbitzuak eskeñtzen zizokan, eta esaten zion, besterik ez
bezela maite zuela bere, eta Jaungoikoaren urrena uste eta konfianza guzia
beregana zeukala. Mariak serbitzu onen eta besteen ezagueraz bere bali-
mentu eta laguntza agindu, eta Jaungoikoaren eta gizonen begietan andi
egiñ zuen. Ezagutzera eman zion, txit gogoan erorten zitzaiola bere
debozioa, eta bere serbitzuari begiratuta, iritxi ziola mirariak egiteko doaia,
Jaungoikoaren eta Ama beraren gloria aurreratu zitzaion. Oraindik gañera
bere predikutik frutu ugaritsua anteratzeko grazia iritxiko ziola, eta
zeruan bere atsegiñ-kontentuen parte andi bat sekula guzian izango zuela
agindu zion. Bere adiskide kutunenak berari aditu zioten, etzeritzala
debozio aren egikaria, eta zeruko Erregiñak zion onginaiaren seña agi-
ria etzan iñolako on eta mesede Jaungoikoagandik artu zuela; eta 1427
garren urtean Senan predikatzen ziardula, guzien aurrean esan zuen, bera
Maria txit santaren jaiotz-egunean jai zala, egun berean erlijioa habitua
artu zuela, eta profesatu zala, eta egun artan hill uste zuela; azkeneko au



ala gertatu ezpazan ere, zerren Maietzaren 20an hill zan, onetarako egun batzuez aurretik zeruko gaztigua artuta.

OGEITA ZORTZIGARREN EGUNA

Henrique Ilen prinzipe guziz birtutekoa Maria txit santaren añ debotoa zan nun bere izena aditze utsez biotza samurtzen zitzaion, eta Jaungoikoaren Ama guziz santaren izenean eskatzen zitzaion ezer ukatzen etzekien. Ama maitearen eta bere Seme jaungoikozkoaren antzeko izateko zalez, onek gure ikasbiderako egiten zituen penitenzien gisakoak egiñ nai izaten zituen, eta ala larunbat guzietan, Ostiral santu egunean egiñ oi dan barau modua bera egiten zuen, iñolako bizikorren aragirik jan gabe. Maria txit santaren pest-egunak debozio andiaz zebratzen zituen. San Jorgeren elizan dagoen, Birjiña aurrean auzpeztuta luzaro egon oi zan. Bere esposa Gonzagako Margaritaren aginduz Loretoko kapilla santuan bezela eliz artan egun guzietan kantatzen zan Leteiera askotan joaten zan. Sinistekoa danez, biotz añ on eta errukitsua Ama amodiotsu onek eman zion, erreinaldi doatsu eta soseguzko bat iritxiaz. Bere senti-duaz baliatzeko lekuri ematen etzion sormiñ edo perlesia nai ainbat lan ematen zion, eta Maria guziz santak Tuolko Obispo Juan Porcelet berari bialdu, eta Obispo onek hiltzen zegoen Erregeari zerk mella andiena egiten zion zekienak bezela, Birjiñaganako debozioa ikutu zion, eta Loretoko leteiak Ama maite oni ematen diozkan izen onragarriak begietaratu ziozkan bezela, lozorro pisu batetik esnatu zuen, eta fede, esperanza eta karidadezko, kontriziozko, umiltasunezko eta Jaungoikoaren esku-ara egoteko aktoak beñ eta berriz egitera mugitu zuen, berari eta an arkitzen ziran guziaz penazko negar goriak ixur-eraziaz. Beste mesederik eskatzen etzuen, ezpada San Jorgeko Ama Birjiñaren aldarearen oñean lurra eman zegotela baña gaeuz eta iñolako anditasun eta ponpa gabe, prinzi-peai, lurra ematerakoan, egiñ oi zaizten zeremoni andien diñatzat bere burua ez idukiaz.

OGEITA BEDERATZIGARREN EGUNA

Vlen gizaldiaren aurren-aldean Maria Egipcica santa, amabiren bat urte zituenean bere aitaren etxetik iges egi, eta Alejandriako erri andira igaro zan non biziera gaizto nabarben batera emana amazapi urtean bizi-

tu zan. Egund batez, Gurutze santuaren eguna zetorrelako, egund aietako eliz-pestetara Jerusalem zijoan jendetza ontzietan sartzen ikusi, eta aiekin batu zan, eta erri sonatu artara ziranean, beste gañerakoak bezela, elizan sartzen asi zan; baña ikusten etzuen esku batek iru biderretaraño geraerazi zuen. Mirari hura zergatik zan ezagutzeko, buru-auste andirik bear izan etzuen. Damu bizi batez biotza josita, begiak goratu, eta elizako atalburuaren gañean Birjiña txit santaren imajiña bat ikusi, eta hura ikusi zuen bezela, bere burua eziñ eskuratuz, deadar egiñ zuen: Oh Birjiña guziz santa! alabaña pekatariak beragana erakarri eta ontzeko zure errailetan gizon egiñ zan aren Ama egiazkoa zera, nizaz errukitu, eta eliz onetan sartu al izatearen grazia iritxi zadazu, nere Salbatzallearen Gurutzea beste kristauakiñ batera ikusi eta adora dezadan. Nere erreguak enutera makurtzen bazera, zeru-lurren aurrean berealitik agintzen dizut, nere biziera galdua sekula guzirako utzi, eta zuk erakusten didazun bidea jarraituko dedala. Orazio au egiñ zuen bezela, ezerk galerazi gabe elizan sartu, eta Jesukristo gure amodioz ainbeste eraman eta hill zan Gurutzea ikusteak bere ontze edo konbersioa oso bukatu zuen. Egur santua adoratu ondoan Mariari bere laguntza eskatu zion lekura biurtu, eta aditu zuen itzots bat ziotsana: Jordango ibaia zazu, eta pake eta sosegu egiazkoa arkituko dituzu. Ah nere Ama, deitu zuen berak itz-ots hura aditzean, arren ez nazazu utzi, eta au esanta, Jordanera joan, ibai hura igaro, eremuaren biotzeraño sartu, eta igarotzen ditu leku artan berrogei eta zazpi urte, penitenzi ikaragarriak egiñaz, eta oien buruan san Zozimo eremutarrak an topatu, eta andik laster Jaun andia eraman zion, eta Santu onek, urren-go urteko Garizuman Santa ikustera joan, eta hillotz topatu zuen, eta onra andiaz leku artan bertan lurra eman zion.

OGEITA AMARGARREN EGUNA

Santa Brigidaren denboran gizon txit noble eta aberats bat, baña oitura galgarri eta bizio guzietara emana bizi zan. (*Auriem. t. 1, pag. 182*) Azkeneko gaitzak artu zuen, baña guziaz ere ezertan gutxiena eriotzerako prestatzean pensatzen zuen. Au jakiñ zuenean bereala, santa Brigida pekatari gogortu aren bularra biguñdu, eta onbear triste hura bide onera erakar zezala, erregetzen al guziaz jarri zan, eta añ askotan, eta alaingo leiaz Jaungoikoaren urrikaltasun ondogabearen atetan deitu zuen, nun gero ere bere Majestade jaungoikozkoak itzegiñ zion esanaz, damu eta penitenziara eria mugierazitzera sazerdote bat joan zedilla. Zelo andiko



sazerdote bat iru alditaraño au egitera saiatu zan, baña esan ziozkan gauza guziakgatik ezer aurreratzen etzuen arik eta laugarrenean, Jaungoikoaren graziak ikututa, bere gaiztakeriaz damutu, eta biotza oso trukatzera iritxi zueneraño, alatan, non, gaxoak deadarka esan zuen: *Irurogei ta amar urte oietan konfesatu ez naiç, denbora añ luçeaz demonioaren morrontça gogorrean bizçitu naiç, bera leialki serbituaz, eta areago dana, berarekiñ tratatide andia idukiaz; baña orañ oso trukatua barrunda naiç, konfesioa eskatzen det, eta Jaungoikoak bar-katuko didalako uste eta esperanzan nago.* Au esanta, negar ugariak txirrian zeriozkala, egun artan bertan lau biderretaraño konfesatu, bigaramonean Elizakoak egiñ, eta beste sei egun igaro ondoan hill zan. Begiak itxi ez al zitzaizkan, gure Jaunak, santa Brigidagana agertu, eta oni esan zion: gizon aren anima purgatoriora joan zala, eta luzaroan egon gabe, zeruratuko zala; Santa eziñ geiagoraño arritua geratu zan, añ gaizki bizitu zan gizon bat gero ere Jaungoikoaren adiskidetasunean hiltzeaz, eta au zergatik eta nola izan zan Jaunak agertu zion, esanaz: Jakizu, ene alaba, nere Ama maiteganako debozioak itxi diozkala orri infernuko atea, zerren, berak beñere ziñez eta benaz maite izan ezpazuen ere, bere doloreai debozio zien, eta oriek bururatzen zitzaizkion guzian, edo beren izena aditze utsez, errukia agertzen zuen: onegatik topatu du salbatzeko bide-laster bat

OGEITA AMAIKAGARREN EGUNA

Senako santa Catalinaren bizitza utsaldi gabeko mirari bat izan zan. Santa onek Jaungoikoa maitatzeko bear ainbat ezaguera eta argitasun izan baño len, bere Majestade jaungoikozkoagandik mesede eta grazia txit señalatuak artu zituen. Berak oiei leialtasunik andienaz eranzuten zeien, bere bakarrean orazioan egotean bere atsegiñ kontentuek idukiaz. Noizean beñ basotxo bakar batera joaten zan, bere edade laburrak agintzen zion eran nolerebait eremuetako guraso santuak bezela egiñ naiez. Leku artan baere aurtasunari etzegozkion erako gorputz-nekagarri eta penitentiak egiten zituen, eta bere biotzaren jabe beste iñor egiñ etzediñ, bere bizi guzian garbitasun edo kastidatea gordetzeko boto edo promesa egiñaz, biotz au Jaungoikoari ofrendatu zion.

Aurak agertzen zion amodioaren señaleara hura Jesukristori gogoan txit sartu zitzaion; baña Jaun onek berealatik eta guziz ondo aren leialtasuna progradu nai izan zuen. Oraindik amabi urteetara baño len bere gurasoak beren hura ezkontzeko buruzpideak artu zituztenean, artara ez jartzeko

somatu zituen, donzellatxoak alako estura larrian bere burua ikusita, bere Esposo jaungoikozkoagana bidegiñ, eta bere erregu-eskari eta penitentiak geitu zituen. Gaztetxoak bakar-lekuari zion amodio itsua galeratzeko, gurasoak artzen etzuten neurri eta biderik etzan, alabaña amodio onek kentzen ziola ezkontzeko griña, uste zuten, deboziozko lan guziak debekatzeraño iritxi ziran, eta noizean beñ bere bakarrean egoteko eman zioten gela ere itxi zioten. Eta au asko ezpazan bezela, etxe guziko lanak bere gañera egotzi, eta serbitzari batek egiñ oi duen guzia eragiten zioten. Ala ere guzi hura alperrik izan zan. Berak dio: nere animaren erdian bertan nere bakar-lekua egiten, eta an berarekiñ itzegiten Jaunak erakutsi zidan, ezerk galeraziko etzidan barrungo pake eta sosegu bat denbora berean arkituaz.

Bere emezortzi urteetan Santo Domingoren irugarren Ordenako habitua jantzi, eta Jesukristoganako bere amodio ondogabea zala bide izan zituen ainbeste neke eta eramankizun añ andien damuz ere, berarekiñ irteteko lagundu zion Maria guziz santaganako uste eta konfianza andienara onekiñ igo zan; eta beti onela irauñ zuen, arik eta 1380garren urtean bere 33ean suerte oneko bere espiritua eman zueneraño Erroman, non bere gorputz santua Minervako elizan Mariaren aldare baten azpian arkitzen dan.

ORAZIOA

Guzia dezazukean Jaun, gaitzetik ona ateratzeko gaitzari leku eman dien diozuna, arren enzun itzazu onenbeste galbide eta perillen artean eriotzeraño Zuri leial irauteko egiten dizkitzugen erregu umillak; Maria guziz santaren bitartekotzagatik iguzkutzu gañera beti eta gauza guzietan zure borondate txit santuak nai duen guzira egoteko indarrak. Amen.

Orazio au berak bere eskuaz eskribitu zuen Aita Santu Pio IXnak 1862en urteko Garagarrillaren 15an eman çituen letretan eun eguneko indulgenzia ematen die orazio bera egun oro erreçatzen duten guzçai.

AZKENA